

.. Altsasuko euskara ..

••Altsasuko euskara••

Jose Luis Erdozia

Argitaratzen du:

Altsasuko Udala eta Sakanako Mankomunitatea

Lehenengo Edizioa:

Altsasu, 2006ko abendua

Diseinua eta maketazioa:

Nabarrera Argitalpen Kudeaketa

Antso Azkarra 26, 9. bulegoa

31008 Iruñea

Tel. 948 22 71 25

nabarrera@nabarrera.com

Lege Gordailua: xxxxxxxxxxxx

Inprimaketa: xxxxxxxxxxxx

# .. Altsasuko euskara ..

Jose Luis Erdozia



1970. Tren geltokia



# Hitzaurrea

**E**uskaldun gutxi egonen da euskalki baten soinua aditzerakoan belarria gozaten ez duenik, batzuek bitxikeria bezala hartzeko bada ere. Beste askok ordea, bitxikeria eta folklorismotik haratagoko balorea eta erabilgarritasuna ematen diogu. Gaur-gaurkoa.

Haurra nintzela, gure etxeko sarrerari *Hall-a* hots egiten genion. Atea, sarrera edo zergatik ez, baserrietan eta euskal etxeetan erabiltzen dugun *ezkaratza* jatorra beharrean. Zergatik *estrenatu* erdal hitza erabili, Sakanan hain ezaguna eta erabilia dugun *mustu* hitza baino? ...

Altsasu ondoan dagoen Urdiainen, orain dela gutxi, laguna eta burkidea dudan Mikel Galartza urdiaindarrak azkenaldian aditu dudan hitzik polite-netakoa adierazi zidan. Haurdun dauden emakumeak izaten duten gurariari txirrinta\* esaten diogu Sakana erdialdeko herrietan, Urdiainen aldiz, ONGURAMINA\*: gauza onen gogoarengatik izaten dugun mina. Benetan hitz liluragarria eta era berean ulerterraza, Euskal Herri guzian hedatzeko modukoa.

Honetaz gain, euskalkiek eta herri hizkerak, oro har, euskara jatorraren egiturak eta esamoldeak *poleki*, ongi, gorde dituzte eta batua erabiltzen dugunean etengabeko erreferentzia dira.

Herri hizkerak euskara batua aberastu eta indartzen du. Euskara batuak herri hizkera bizkortzen du eta irauten laguntzen du. Bata bestearen osagarri da eta biak ala biak ezinbestekoak.

\*Jose Luis Erdoziaren Hiztegi Dialektologikoan jasoa.

Altsasuko hizkera galdua dugu dagoeneko erabilerari dagokionez. Bego Jose Luisen lan hau altsasuarren ahoetatik beren hizkeraren zati bat berreskuratu eta berrerabiltzen hasteko.

Lan bikain honekin, Jose Luisek beste herrietako euskaltzaleei, gure herrietan lan beretsua burutzeko oinarrizko egitura erakutsi digu. Lekukoa orain gure eskuetan dago. Eskerrik asko Jose Luis.

---

Gorka Ovejero Ganboa. Sakanako Mankomunitateko Lehendakaria

## Trapu zaharrarekin jantzi berria

**A**zkenaldian ugaritu egin dira euskalkiei buruzko bilketa lanak. Alde horretatik, garrantzi berezia du Altsasun horrelako lan bat egin izana, urriak baitira geratzen zaizkigun testigantza biziak. Nolanahi ere, bilketa lanaz gain, edo horren gainetik, garrantzitsuagoa da bildutako materialaren azterketa egitea. Izan ere, ikertutakoaren xedeetako bat da euskalki zaharreko ezaugarri zenbait hizkera estandarrean erabili ahal izatea, alegia euskara batuaren zurruntasuna euskalkiarekin gozatzea.

Jose Luis Erdoziak lan honetan Altsasuko hizkeraren argazki koloretsua erakusten digu, altsasuarron historia eta identitatea islatzen duena. Lan eskerga dugu argazkia horretako itzalak osatzen, iraganeko hitz gehiago gal ez ditzagun. Era berean, ahalegina egin behar dugu argazki horren kolore ñabarrak hedatzen eta zabaltzen; izan ere, gure hizkera gure nortasunaren adierazlea da.

Altsasuko hizkera —eta oro har Burundakoa— hizkera koloretsua da, alegia zubi-hizkera: euskalki ezberdinetako ezaugarriak biltzen ditu, eta, horretaz gain, bertan bakarrik antzeman daitezkeen ezaugarriak baditu. Beraz, gure hizkeraren aberastasuna gordetzea eta —ahal den heinean— gizarteratzea are garrantzitsuagoa da kasu honetan, ez baita parekorik Euskal Herrian.





# Etorkizunerako zubia eraikitzen

**A**zken urteotan Altsasun euskaldunen kopuruak gora egin duen arren, oso gutxik ezagutzen eta hitz egiten dute bertako euskara, hau da, euskararen estandarizazio-prozesuaren emaitza den euskara batua baino lehenagokoa. Horiek horrela, garrantzitsua iruditzen zaigu iraganetik etorkizunerako zubia egitea.

Premiazkoa da Altsasuko euskalkiaren testigantzak lehenbailehen biltzea bertako euskara gorde duten altsasuarrengandik. Horretaz gain, ezinbestekoa da aipatu testigantzak ordenatu eta sistematizatzea, etorkizunean berreskuratu ahal izateko, zenbait mugekin bada ere.

Jose Luis Erdozia, euskaltzain urgazlea, euskal filologian doktorea da eta Sakanako euskalkietan aditua. Aipatu euskalkien biltze- eta erkatze-lanak egin ditu, eta bere doktorego-tesiak Sakanako euskalkiak aztertzen ditu. Begien aurrean dugun lana azkeneko urteetan egindako emaitza interesgarrietako bat dugu. Lan horretako egungo testigantza biziak baliatu ditu, baina bai eta lehenagotik bilduta edota argitaratuta zeuden materialak ere.

Zuzen da egileari eskerrak ematea Altsasuko hizkeraren ezaugarri nabarmenenak modu zehatzean aztertzen eta auzo hizkerekin erkatzen egindako lanarengatik, Altsasuko hizkera zinez eta izatez nortasun handikoa dela erakusten baitu.

---

Asun Fernandez de Garaialde Lazkano  
Altsasuko alkatea



**G**altzeko zorian dugu dagoeneko Altsasuko euskara, bospasei pertsona (horrela esan digute gure informatzaileek) baino ez baitira gelditzen altsasuera erabiltzeko gai. Eta horiek ere, adina dela eta, arazoak dituzte behar bezala baliatzeko haien ama hizkuntza. Gezurra badirudi ere, hala ere, seguru asko inoiz baino hitzun gehiago ditu gaur egun euskarak Altsasun, baina ez altsasuerak, eta horrexegatik, hain zuzen ere, mendeetan zehar herriko karrikak bere doinu bereziarekin bete dituen hizkera gozoa gal ez dadin eta euskal hitzunak bere berezitasunak baliatzen has daitezen, jaso dugu liburu honetan altsasueraren gatza eta piperra, hots, hizkera berezi hau gorpuzten duen ezaugarri bilduma.

Ez da posible, zoritxarrez, egungo informatzaileekin soilik Altsasuko hizkeraren berezitasunak aztertzea, baina, bestalde, ugari dira azken laurogei urteotan altsasueraren edo burunderaren gainean egindako lanak eta guk horiek guztiak baliatu ditugu azterketa hauxe burutzerakoan. Eta lan horiek aipatzeko orduan, zaharrenetik hurbilenera egingo dugu ibilbidea jarraian, ondorengoak izan direlarik hauexek: Damaso Intzaren ‘Burunda’ko euskalkia’; Kandido Izagireren ‘Altsasuko euskeraren gai batzuk’; Francisco Ondarraren ‘Voces vascas de Bacaicoa’; Pedro Irizarren *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano*; Koldo Zuazoren ‘Burundako hizkera’; eta, azkenik, Sakanako Mankomunitatea eta Bierrik elkarteari esker Castillo Suarezek eta Imanol Arratibelek jasotako *Sakanako Ahozko Tradizioa* (SAT hemendik aurrera) grabazio bilduma.

Garrantzi berezia izan du guztien artean zerrenda horretako bigarrenak, Kandido Izagirrearenak, ongi baino hobeki jasotzen baitu bere lanak altsasueraren izaera, lexiko bilduma aberatsa ez ezik gai interesgarriak aurkezten baitzikigu, esanguratsuak oso hizkeraren ezaugarri morfologiko eta sintaktikoen ikuspegitik. Harritzekoa da, benetan, nolako hizkuntza ezaugarri bilduma zabala ageri zaigun 1967an Izagirrek egindako lanean.

Aipatzekoak, era berean, Altsasuko euskararen nondik norakoak aztertzeko, SATen ageri diren grabazioak ondorengo altsasuarrei eginak: Joxe Garasa, Polonia Iriarte, Luisa San Roman, Ageda Zelaia eta Martina Arrizabalaga.

Eta ezin aipatu gabe utzi, informatzaile moduan izan ditugun Inazio Zelaia eta bere lehengusua Santi. Pazientzia handia erakutsi dute gure galderak, bata bestearen ondotik, erantzuterakoan.

Azkenik, lan honen berri izan bezain laster, hautsak harrotzen hasi eta be-  
raur argitaratzeko ezinbesteko suertatu den Castillo Suarez Sakanako Mankomunitateko euskara teknikaria aipatu behar dugu, eta gure eskerrik zintzoe-  
nak eman nahi dizkiogu hemendik. Eta Castillorekin batera, informatzaileenak  
edo herriko argazki zaharrak direlarik, berari lagundu dioten guztiak ere go-  
goratu nahi nituzke, azken hauen artean, Javi Moreno, Patxi Goikoetxea eta  
Amaia Oiarbide, XX. mendeko argazki dotoreak gure esku utzi baitituzte.

Sarrera honen beraren hasieran aipatzen genuen altsasuera hiltzeko zo-  
rian dela dagoeneko, eta baita egun inoiz baino euskal hiztun gehiago dago-  
ela Altsasun seguru asko. Lehenengo datua, altsasuera baliatzen dutenena,  
lehenago aipatu dugu eta, zoritxarrez, ez du inolako azterketa soziolinguisti-  
koren beharrik. Hilzorian dago. Baina bestearen inguruan, euskal hiztunen  
kopuruarenean alegia, bai, merezi du azken urteotan egindako neurketen ara-  
berako zenbait datu jasotzea eta bere bilakabidea ikusi. Sakanako Manko-  
munitateko Euskara Zerbitzuak ondorengo datuak eskaintzen dizkigu bere  
web orrialdean Altsasun euskarak erakusten duen egoerari buruz:

**EUSKARAREN EZAGUTZA:**

1991			1996			2001		
Euskald	Guztira	%	Euskald	Guztira	%	Euskald	Guztira	%
891	6614	13,5	1121	6884	16,2	1502	6965	21,6

Oso nabaria da euskara ezagutzen dutenen kopuruaren gorakada, hamar urteko epean ia bikoiztu baita. Aurtengo datuek igoera portzentaje berbera erakutsiko balute, %25ean legoke dagoeneko euskara ezagutzen dutenen kopurua Altsasan.

**EUSKARAREN ERABILERA KALEAN:**

1993	1997	2001
% 5,3	% 6,5	% 7,5

Modu apalean bada ere euskararen erabilera goraka doa, puntu bat lau urtero, ikusten denez. Horrela beraz, progresio honen arabera, egun %8,5ekoa litzateke gutxienez.

Jarraian ikusiko ditugunak, aldiz, 2005-2006 eta 2006-2007 ikasturtean Altsasuko ikastetxeetan (Zelandi, Iñigo Aritza, Jesusen Bihotza eta Aralarko Mikel Donea I eta II) matrikulatutako ikasleen datuak izango ditugu, maila-ka eta eredu-ka:

	Haur H.	Lehen H.	DBH	Batxilerra	Lanbide H.	GUZTIRA
A eredu- (%)	52 (21,2)	147 (27,8)	185 (37,9)	48 (28,5)	63 <sup>1</sup> (100)	495 (33,2)
D eredu- (%)	193 (78,8)	381 (72,2)	302 (62,1)	120 (71,5)	-	996 (66,8)
GUZTIRA	245	528	487	168	63	1491

2006-2007	Haur H.	Lehen H.	DBH	Batxilerra	Lanbide H.	GUZTIRA
A eredu- (%)	38 (16,1)	132 (24,3)	174 (36,2)	42 (24,1)	-	386 (27)
B eredu- (%)	16 (6,8)	14 (2,5)	-	-	-	30 (2)
D eredu- (%)	181 (77,1)	396 (73,2)	306 (63,8)	127 (75,9)		1010 (71)
GUZTIRA	235	542	480	169		1426

1. Hauek ez dira, berez, A eredu-koak, euskara ez baitute ezta ikasgai moduan ere ematen.

Hala ere, datuak horrela harturik ez dute Altsasuko egoera modu zehatzean islatzen, DBHn, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan Burunda eta Sakana erdialdeko ikasleak ere baitaude. Horrexegatik, jarraian Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako mailak baino ez ditugu kontuan hartuko, maila horietan Olaztin, Urdiainen eta Iturmendin Burundan, eta Etxarri Aranatzen, Arbizun, Lakuntzan eta Uharte Arakilen ere ikastetxeak badirelako eta, pentsatzekoa den bezala, ez dira adin eta herri horietako ikasleak Altsasura joango. Beraz, ondorengo datuak (Altsasuko ikastetxeetako Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako matrikulak 2005-2006 eta 2006-2007 ikasturteetan) bai izan daitezke Altsasurako ia erabat zehatzak:

	2005-2006	2006-2007
A eredia	199 (% 25,3)	170 (% 21,8)
D eredia	574 (% 74,7)	577 (% 74,5)
B eredia	-	30 (% 3,7)
GUZTIRA	773	777

Datu hauek garrantzitsuak dira hasieran esaten genuena ulertzeko, hau da, egun baino euskararen ezagutza gehiago inoiz ez dela izan seguru asko Altsasun, askoz gehiago baitira aipatu ikasturteetan D ereduan hezi diren ikasleak. Gainera, badirudi gero eta gehiago izango direla aurrerantzean ere, beheko mailetan portzentajeak handiagoak baitira D eredukoak.

Horrela, euskararen ezagutzaren aldetik baikor izateko moduan bagara, eman beharreko hurrengo urratsa, ikasitako euskara hori altsasueraren ezauzgarriez janztea edo apaintzea izango litzateke eta, horretarako, besterik ez bada ere, baliagarri izan nahi luke lan honek.

•• Altsasuko euskararen azterketa ••



1957. Foruen plaza





.. 1 ..  
Bokalismoa



Eskuinean, Luisa San Roman Bengoetxea



## 1.1. Asimilazioa aurrerakaria

Ondorengo bilakabidea da, salbuespenak ere badirelarik, Altsasuko hizkeran betetzen dena:  $a > e / i, u \ C\_C$ . Ez da betetzen, aldiz, hitzaren bukaeran doanean bokal irekia. Horrela beraz, bokal irekia (/a/) itxi egiten da aurreko silabako bokala itxia (/i/, /u/) denean, baina aipatu bokal irekia hitzaren amaieran ez joatekotan.

Eta Altsasuko euskarak erakusten duen jokabide honek bat egiten du, Burundako gainerako herrietakoez gain (Urdiainen eta Bakaikun soilik egiazta daiteke datu hau gaur egun), Sakana erdialdean Arbizukoak, Unanukoak, Dorraokoak eta Arruazukoak erakusten dutenarekin. Izagirrek (1967, 46) horrela aitortzen digu bere lanaren hasieran itxieraren maila oso argi ikusten ez badu ere:

“Toki bakoitzean oarrik ezarri ezpadut ere -aspergarri ez egitearren-, *i* ta *u*-ren ondoren datorren *a* ia beti aldatzen da, gutxi edo asko, *e*-ren aldera; geienetan bide-erdian gelditzen da. Batzutan *e* idatzi dut, baiña badu orduan ere *a*-ren antza pixka bat. Ontara artu bear dira: *neskiai* (-*kiei*), *gutxitán* (-*txitén*), *ogiyakin* (*ogiye*-), *dakiau* (-*kieu*), *gaztiak* (-*tiek*), *aitek* (*aitak*), *guziyen* (-*ziyan*), *ardiyek*

(-diyak), *gauba* (*gaube*), *itxura* (*itxure*), *sukalde* (*sukel-*), *udáako* (*udé-*), *mundubán* (*-dubén*), *soruen* (*-ruan*), etabar, etabar.”

Jarraian ikusiko dugunez, ugari dira bilakabide honen adierazle diren adibideak Altsasun:

*itzelin* (itzalean, Izag, 56), *izen* (izan, Izag, 76), *izeten* (izaten, SAT, 118), *biel-  
du* (bidaldu), *izera* (izara, Izag, 69) (SAT, 128), *bieje* (biaje, Izag, 73), *biyer* (bihar, Izag, 57), *ikes* (ikas(i), Izag, 67), *itsesun* (itsasoan, Izag, 69), *itsetsi* (itsatsi, Izag, 69), *idergiya* (ilargi, Izag, 67), *iguel* (igual, Izag, 92) (SAT, 119), *ubezaita* (ugatz + aita, Izag, 82), *ubezama*, *ubezalabi*, *ubezsemi*, *ubezsenidik*, *guesuk* (gurasoak, Izag, 66), *bigarren* (bigarren, Izag, 55), *irugerren* (hirugarren, Izag, 73), *koilera* (goilara, Izag, 71), *eskilera* (‘eskilara’, Izag, 61), *eskueriakin* (eskuarearekin, Izag, 61), *gerrieino* (gerriraino, Izag, 56), *suertzen* (su + hartzen, Izag, 89), *subertaa* (su + hartara, Izag, 89), *feriyek* (feriak, Izag, 89), *ikera* (ikara, Izag, 92), *elizeti* (elizatik, Izag, 86), *iketü* (ikaratu, Izag, 86), *iketza* (ikatza, Izag, 67), *suelduten* (sueldotan, SAT, 123), *sukeldin/sukeldetan* (sukaldean/sukaldeetan, SAT, 130), *tietu* (tiratu, SAT, 131), *adineti* (SAT, 119)...

Gauza bera (bokal asimilazio aurrerakaria) gertatzen da partitiboan eta aditz partizipioak egiteko *-riken* (< -rikan) morfemaren kasuan eta baita, zenbait kasutan gutxienez, *izenondoa* + *bat zenbatzailea* ingurunean:

*Nekatuiken* (‘nekatuirikan’, Izag, 48), *oileskoiken* (‘oilaskorikan’, Izag, 58), *arro-  
paiken* (‘arroparikan’, Izag, 50), *nastuiken* (‘nahastuirikan’), *arrituiken* (‘harrituirikan’), *izera zuri betin* (izara zuri batean, Izag, 73), *aldioko lau bet* (aldioko lau bat, Izag, 73)...

Aipatutako salbuespenen artean ondorengoak ditugu: *izurratu* (izorratu, Izag, 69), *korrikan* (korrika, SAT, 128), *inbuluskan* (itzulipurdika, Izag, 67), *premiatzen* (Izag, 80), *iyasi* (ihesi, Izag, 69), *iguraiya* (inguru + zain’, Izag, 69), *itzaiya* (itzai, Izag, 69)...

Eta azkeneko bi adibideez gain, badira hitz bukaerako bokal irekia ez dela ixten frogatzen duten beste asko:

*txikiya* (Izag, 66), *goriya* (goria, Izag, 66), *gosaiya* (gosaria, Izag, 66), *ibaiya* (Izag, 66), *goinatuba* (koinatua, Izag, 65), *gizenkiya* (gizenkia, Izag, 65), *nesakiya* (neska, Izag, 76), *subandilla* (sugendila, Izag, 81), *sekura* (lehortea, Izag, 80), *begimakurra* (Izag, 55), *dia* (dira, SAT, 118), *ura* (hura, SAT, 129)...

## 1.2. Asimilazio atzerakaria

Gertaera fonetiko honen bilakabidea ondorengoa izango genuke:  $a > e / \_ (C) i, j, u, w$ . Aurreko puntuan gertatzen denaren antzera, baina oraingoan bokal itxiaren aurreko silaban edo posizioan, gutxienez, dagoenean bokal irekia. Adibide garbi bakarra aurkitu dugu guk erabili ditugun lanabesetan, gainerakoak /ai/ diptongoaren itxiera moduan azal baititzakegu, bilakabide sistematikoa ez delarik:

*ereldunak* (SAT, 119), *norbeit* (SAT, 127), *norbeitek* (SAT, 128), *beindo* (baino, SAT, 127), *nei* (nahi, SAT, 130), *ebei* ('ebagi', SAT, 131), *zengeiti* (Izag, 76). Hala ere, askoz gehiago dira diptongo itxiera burutzen ez duten adibideak, horiek aztertzean ikusiko dugun moduan.

## 1.3. Bokal elkarketak

Jarraian, bukaera ezberdineko lexemek mugatzailea eransterakoan zer nolako bilakabidea burutzen duten aztertuko dugu:

- Mugatzailea eransten zaion lexemak bukaeran -a bokala badu, hots, -a organikoduna bada, ondorengo bilakabidea gertatzen da, berdin delarik ondoren deklinabideko beste kasu baten morfema eransten zaion edo ez:

$-a + -a > (-ea) > -ia > -ii -i$  disimilazioa

*bargi* (Izag, 55), *beli* (Izag, 55), *domeki* (Izag, 58), *dunbi* (Izag, 58), *eriyotzi* (Izag, 60), *erguneri* (Izag, 60), *lajyotili* (Izag, 71), *neski* (Izag, 76), *alabi* (Izag, 76) (SAT, 128), *etzupi* ('estopa', SAT, 127), *andri* (SAT, 129), *arimi* (SAT, 133), *serenati* (SAT, 134), *gitarri* (SAT, 134), *ganbelii* (Izag, 90), *mezia* (SAT, 133), *martxia* (SAT, 130)...

Ikus daitekeenez, bilakabidea ez da osaturik agertzen burutzapen guztietan, azken hiruretan esate baterako.

Bestalde, disimilazioa berdin gertatzen da absolutiboa ez diren gainerrako deklinabide kasu gehienetan ere:

*aizpik* (<*aizpiik* < *aizpiak* < *aizpeak* < *aizpa* + -ak)

*alabian* (SAT, 128) (<*alabean* < *alabaan* < *alabaaen* < *alaba*+ -aren)

*sekurian* (<*sekurean* < *sekuraan* < *sekuraaen* < *sekura* + -aren)

*berjinian* (<*berjinean* < *berjinaan* < *berjinaaen* < *berjina* + -aren)

*berjiniai* (<*berjineai* < *berjinaai* < *berjina* + -ari)

*alabiai* (SAT, 128, 131) (< *alabeai* < *alabai*, *alaba* + -ari)

*berjiniandako* (< *berjineandako* < *berjinaandako* < *berjinaaendako* < *berjina* + -arendako)

*eskueriakin* (Izag, 61) (<*eskuereakin* < *eskueraakin* < *eskueraaekin* < *eskuera* + -arekin)

*anriakin* (Izag, 76) (<*anreakin* < *anraakin* < *anraaekin* < *anra* + -arekin)

*danporikin* (SAT, 122) (<*danporiikin* < *danporiakin* < *danporeakin* < *danporaa-*  
*kin* < *danporaaekin* < *danpora* + -arekin)

Bilakabide hau, Burunda osoan, mendebaldeko hizkeran eta erdialdeko hizkerako hego-mendebaldean gertatzeaz gain, Arabako euskararen testigantza erakusten duten ondorengo lanabesetan ageri da: XVI. mendean Landuchioren hiztegian eta Joan Perez de Lazarragaren eskuizkribuan, eta, XVII. mendean aldiz, Martin Portalen erromantzean.

• Mugatzailea eransten zaion lexemak bukaeran -e bokala badu, aurreko kasuko egoera errepikatzen da eta disimilazioa burutzen da:

-e + -a > -ia > -ii > -i

*jendi* (SAT, 119), *galti* (SAT, 130), *luzi* (Izag, 55), *bizargili* (Izag, 57), *esti* (Izag, 61), *ipurtesti* (Izag, 68), *etxi* (Izag, 61), *errapi* (Izag, 60), *maldadi* (Izag, 74), *semi* (Izag, 80), *ubezsemi* (Izag, 82), *ubaldi* (Izag, 82), *umi* (Izag, 83), *unidi* (Izag, 83), *biaji* (SAT, 129), *eguaizi* (Izag, 59)...

Eta bilakabide bera jarraitzen dute lexema hauek deklinabideko morfema edo bestelakoa eransten zaienean:

*ubezsenidik* (Izag, 82) (<*ubezsenidiik* < *ubezsenidiak* < *ubezsenide* + -ak)

*etxeoandrik* (SAT, 123) (<*etxeoandriik* < *etxeoandriak* < *etxeoandre* + -ak)

*etxin* (SAT, 122) (<*etxiin* < *etxian* > *etxe* + -an)

*batin* (SAT, 122) (<*batin* <*batian* <*bat* + *-ean*)

*udatzenin* (SAT, 127) (<*udatzeniin* <*udatzenian* <*udatzen* + *-ean*)

*gainin* (SAT, 127) (<*gainiin* <*gainian* <*gain* + *-ean*)

*esforzatz* (SAT, 131) (<*esforzatzii* <*esforzatzia* <*esforza(tu)* + *-tzea*)

*ureitzi* (Izag, 55) (*ureitzi* >*ureitzia* <*urei* + *-tzea*)

Hala ere, askotan, bilakabidearen hasierako urratsean maiz geratzen dira burutzapenak: *jendia*, *luzia*, *estia*, *etxia*, *errapia*... Eta disimilazioaren urrats horretan bertan daude Sakana erdialdeko Arbizuko, Dorraoko, Unanuko eta Arruazuko hizkerak ere. Sakanako gainerako herrietako hizkeretan, disimilazioa lehen urrats horren ondoren, bokal irekiaren asimilazioa suertatzen da, eta horrelako burutzapenak ageri dira: *jendie*, *luzie*, *estie*, *etxie*, *errapie*...

- Mugatzailea eransten zaion lexemak bukaeran *-o* bokala badu, aurreko kasuetako egoera errepikatzen da eta disimilazioa burutzen da:

*-o + -a > -ua > -uu > -u*

*gogu* (Izag, 76), *zanku* (Izag, 76), *liyu* (SAT, 127) (Izag, 73), *primeraku* (SAT, 127), *betiku* (SAT, 127), *jitu* (SAT, 128), *azkeneku* (SAT, 129), *besu* (SAT, 131), *maju* (SAT, 133), *kanpetxanu* (SAT, 133), *araru* (Izag, 51), *egu* (Izag, 59), *gerriku* (Izag, 64), *giltzazulu* (Izag, 65), *itaurriku* (Izag, 68), *lasu* (Izag, 71), *leiyu* (Izag, 72), *nungu* (Izag, 77), *sendu* (Izag, 81), *talu* (Izag, 81), *zikiyu* (Izag, 85), *zurezku* (Izag, 85), *suegrua* (Izag, 76), *pulpitua* (SAT, 117), *kanpuan* (SAT, 117)...

Berriz ere, azken hiru adibideek erakusten digute bilakabidea ez dela beti oso-osorik burutzen. Horrelakoetan, bat egiten du, beste behin, Altsasuko hizkerak Sakana erdialdeko Arbizu, Dorrau, Unanu eta Arruazukoekin. Bestalde, deklinabideko beste kasuetako morfema bat eransterakoan ere, disimilazioa suertatzen da:

*aldamenekuk* (SAT, 119) (<*aldamenekuuk* <*aldemenekuak* <*aldemeneko* + *-ak*)

*kintuk* (SAT, 134) (<*kintuuk* <*kintuak* <*kinto* + *-ak*)

*zierra-zapuk* (Izag, 85) (<*zierra-zapuuk* <*zierra-zapuak* <*zierra-zapo* + *-ak*)

*gantxillukin* (SAT, 122) (<*gantxilluukin* <*gantzilluakin* <*gantxilluaakin* <*gantxilluaekin* <*gantxillo* + *-arekin*)

*sonbrerukin* (SAT, 128) (<*sonbreruukin* <*sonbreruakin* <*sonbreruaakin* <*sonbreruaekin* <*sonbrero* + *-arekin*)

*suelduten* (SAT, 123) (<*suelduutan* <*suelduetan* <*sueldo* + *-etan*)

*kanpun* (SAT, 128) (<*kanpuun* <*kanpuan* <*kanpo* + *-an*)

*ondun* (SAT, 130) (<*onduun* <*onduan* <*ondo* + *-an*)

*lengun* (Izag, 61) (<*lenguun* <*lenguan* <*le(he)ngo* + *-an*)

• Mugatu beharreko lexemak bukaeran *-i* bokala badu, /y/ kontsonante epentetiko hartzen du eta ez du mugatzailea asimilatzen:

*-i + -a > -iya*

*erriya* (SAT, 131), *guziya* (SAT, 131) (Izag, 76), *txikiya* (Izag, 76), *belarriya* (Izag, 76), *txerriya* (Izag, 76), *ardiyek*<sup>2</sup> (SAT, 134), *aiztaiyak* (Izag, 49), *abiya* (Izag, 48), *alkiya* (Izag, 50), *amurriya* (Izag, 50), *Anaya* (Izag, 50), *andrageiya* (Izag, 50), *argiya* (Izag, 51), *ardaiya* (Izag, 51), *ardiya* (Izag, 51), *argiya* (Izag, 51), *ariya* (Izag, 52), *arriya* (Izag, 52), *arriya* (Izag, 52), *auriya* (Izag, 53), *axaiya* (Izag, 54), *axuiya* (Izag, 54), *besalaiya* (Izag, 56), *burniya* (Izag, 57), *faramiya* (Izag, 62), *ibaiya* (Izag, 66), *iruzkiya* (Izag, 68)...

Berriz ere Arbizuko, Dorrauko, Unanuko eta Arruazuko hizkerekin bat egiten du altsasuerak.

• Azkenik, mugatu beharreko lexemak bukaeran *-u* bokala badarama, /i/ bokalaren antzera, kontsonante epentetikoa, /b/, hartzen du eta ez du, oraingoan ere, mugatzailea asimilatzen, aurreko puntuetan aipatu ditugun Sakana erdialdeko herriekin bat datorrelarik altsasuera:

*-u + -a > -uba*

*peligruban* (Izag, 76), *trapuba* (Izag, 76), *kontubak* (Izag, 76), *kontuba* (SAT, 129, 131), *katubak* (SAT, 131), *eskuba* (SAT, 131), *diruba* (SAT, 131), *eztainuba* (Izag, 62), *goinatuba* (Izag, 65), *iletsuba* (Izag, 67), *jakinsuba* (Izag, 69), *jokuba* (Izag, 70), *kai-kuba* (Izag, 70), *kainuba* (Izag, 70), *katiluba* (Izag, 70), *narruba* (Izag, 75), *pixuba* (Izag, 79), *tuba* (Izag, 82), *txintxuba* (Izag, 82), *txipuba* (Izag, 82)...

<sup>2</sup> Kasu honetan, kontsonante epentetikoaz gain, asimilazio aurrerakaria ere buruturik dauka.



## 1.4. Bokal luzeak

Ederki aztertu zituen Koldo Zuazo hizkuntzalariak (1991, 303-304) bokal luzeak Burundan eta, horretarako, Izagirren lanabesak (1967) izan zituen kontuan bereziki. Guk ere horrelaxe egin dugu eta antzeko ondorioetara iritsi gara Altsasuko euskarari dagokionez, baina Izagirrenaz gain SAT lana ere baliatu dugu.

Altsasuerak baliatzen dituen bokal luzeek lau jatorri ezberdin dituzte<sup>3</sup>:

- Bokal elkarketak aztertzerakoan esan bezala, itxiak ez diren bokalez (/a/, /e/, /o/) amaituriko lexemari mugatzailea eransterakoan sortutako disimilazio bilakabidearen ondorioz bokal luzeak ageri dira altsasueran:

*neskii<sup>4</sup>, alabii, plazii, arrontzii, mezii, ganbelii, etxii, semii, frailiik, luzii, basuu, onduun, gaixuu, soruu...*

- Bokal berdinen arteko kontsonanteen galeraren ondorioz sortutako bokal luzeak. Galdutako kontsonanteak herskari ahostunak (/b/, /d/, /g/) eta dardarkaria (/r/) ditugu:

*gaa, ezaa* (ez zara, SAT, 133), *gartzelaa<sup>5</sup>* (kartzelara, SAT, 118), *surtaa* (sutara, Izag, 81), *ezkaatzetan* (ezkaratzetan, SAT, 122), *baator* (bahator, SAT, 127), *bee* (bere, SAT, 129), *ataa* ('atará', SAT, 129) (Izag, 78), *aaztu* (ahaztu, Izag, 46), *paatzeko* (pagatzeko, SAT, 131), *puskaat<sup>6</sup>* (puska bat), *tuu* (ditugu, Izag, 79), *goor* (gogor), *ool* (ohol, Izag, 81), *baezpaa* (badaezpada), *ikusiiik<sup>7</sup>* (ikusirik), *jarriik* (jarriik, Izag, 81)...

- Bokal ezberdinen arteko kontsonanteen galeraren ondorioz sortutako bokal luzeak. Galtzen diren kontsonanteak aureko kasuko berberak izaten dira gehienbat:

*doo* (dago, Izag, 81), *noo* (nago), *dee* (daude), *zoon* (zegoen, Izag, 77) (SAT, 131), *zeen* (zeuden, Izag, 89), *aurreaxoo<sup>8</sup>* (aurreraxeago, Izag, 81), *lenxoo* (lehenxeago, SAT, 119), *lenooko* (lehenagoko, SAT, 131), *sagarripee* (sagarrik bage, Izag, 81), *gauboo<sup>9</sup>* (gauero), *egunoo* (egunero)...

- Adierazkortasuna lortu nahian buruturiko bokal luzeak:

*oori* (hori, Izag, 78), *oooyukan* (oihuka, Izag, 79), *eneee* (ene, Izag, 79), *maajo* (majo, ederki, Izag, 89), *poozik* (pozik, Izag, 89), *oondo* (ondo, Izag, 90), *pooolitak* (politak, Izag, 91)...

3. Gauza bera adierazi zuen Zuazok aipatu lanean, baina berak laugarren multzoan sartzen dituen burutzapenak guk ez ditugu horrelaxe jaso, VV > V bilakabidea buruturik baizik: *fan* (joan), *nen* (nuen), *zen* (zuen).

4. Izagirek (1967, 76) burutzapen hau bokal itxiaren gainean tildea daramala idatzi zuen. Honek erakusten digu bokal luzea dela, intentsitate gehien berak baitarama. Horrela, tildea daramatelarik, ageri dira Izagirren lanean gainerako burutzapen gehienak ere.

5. Horrela gertatzen da sitematikoki adlatiboko morfema eransten zaionean -a bokalaz amaituriko lexemari.

6. Era sistematikoan gertatzen dira bokal luzeak -a bokalaz amaituriko lexema eta bat zenbatzailearen artean sortutako inguruneetan: *amaat, plaziaat, gitarriaat...*

7. Kasu honetan ere modu sistematikoan suertatzen dira horrelako burutzapenak, hots, -i bokalaz amaituriko aditz partizipioei -rik morfema eransterakoan: *itxiik, biziik...*

8. Konparatiboko morfema, -ago, eransterakoan, sistematikoa da bokal luzearen agerpena: *gaiyoo, beltzoo, aundiyyoo...*

9. Maiztasuna adierazteko atzizki eratorlearen kasuan ere, ikus daitekeenez bokal luzeak sortzen dira.

## 1.5. -a organikoa

Altsasuko euskarak modu sistematikoan eusten dio -a berezkoari jarraian aipatuko ditugun adibideek erakusten duten moduan. Koldo Zuazok<sup>10</sup> -a + -a > -ea > -ia disimilazio bilakabidearen ondorioetako dauka Altsasun eta baita Burunda osoan ere suertatzen den ezaugarri hau. Ondorengoak ditugu esandakoaren lekuko:

*iru makila* (Izag, 74)

*azia kendu ta gio makila atzugin jo* (SAT, 127)

*gauza gindaneti, ganaubein aurreti, soruun tola* (Izag, 64)

*elizakuk eman* (Izag, 59)

*bi txapela* (Izag, 82)

*ganbela guziya* (Izag, 63)

Hala ere, behin gutxienez, ageri da burutzapen sinkopatua Izagirreraren lanabesean, egia bada ere izenondoari erantsita, sandhian, dagoela:

..., *yanak eztuka ordi gauzonik* (Izag, 79) (... edanak ez dauka ordea gauza onik)

Etxarri Aranaztik ekialdera, Zuazok esan bezala, -a organikoa mantentzen ez duten burutzapenak erabiltzen dira modu sistematikoan: *makil, gauz, eliz, txapel, ganbel...*

10. (1991, 306): "Disimilazio hau (-a + -a > -ia) gertatzearen bigarren ondorioa, berriaz, -a berezkoari zuzen eustea izan ohi da, eta ez dira Burundan gip. -aipatutako Urola eta Goierriko hizkeretan ez besteetan hain zabal dabilizan *eliz bat, gauz bat, makilkada* ... tanke-rakoak batere ohizko. Nabarmendu, azkenik, Burundaraino, Bakaikuraino zehatzago nahi bada, iristen dela disimilazio honen isoglosa, eta ez dugu beronen aztamarik behin Etxariraz gero aurkitu."

## 1.6. E bokalaren itxiera

Altsasuko euskararen, zenbait egoeratan, /e/ bokala itxi egiten da /i/ bihurtuz. Guk ondorengo kasuetan antzeman dugu itxiera hori gertatzen dela:

- Hitzaren hasieran. Kasu gehienetan, kontsonante erorkorra (/r/, /g/, /d/) jarraian doanean, -e bokala itxi eta ondoren kontsonantizatu egiten da:

*iruzkiya* (eguzkia, Izag, 68), *inara* (enara), *inbiya* ('envidia'), *iyó* (eho), *yakusi* (erakutsi), *yon* (egon), *yan* (eroan) (edan), *yaztun* (eraztun), *yozein* (edozein),

*yaili* (erabili, Izag, 84), *yalki* (eralki, Izag, 84), *yantzi*<sup>11</sup> (erantzi, Izag, 84), *yuntsi*<sup>12</sup> (erauntsi)...

- *-e + C + -o > -jó* eta *-e + C + -a > -já* diptongazio bilakabideak. Bilakabide horien arabera, bokal ezberdinen arteko kontsonantearen galerak diptongo bigarrenkaria sortzen du. Askotan zail suertatzen da *e* bokala eta /j/ erdiko bokalaren artean bereiztea eta horrela esan zuten Izagirrek ere bere lanaren hasieran (1867, 47):

“Geiagotan (bokalen arteko ‘otsa’z ari zaigu) *e* eta *i*-ren artekoa: *geo* (*gio*), *artzeaiti* (*artzieiti*), *goitibea* (*-bia*), *umeok* (*umiok*), *urien* (*uriin*)”.

Egungo informatzaileek adierazten dutenaren arabera, erdiko bokala ageri da altsasueran honako egoeretan:

*gio* (SAT, 127), *biotu* (berotu), *bi(y)or* (behor), *merkio* (merkeago), *batia* (batera, SAT, 127), *atzia* (atzera, SAT, 131), *aurria* (aurrera), *kalia* (kalera), *larria* (larrera, SAT, 133), *abiatsa*<sup>13</sup> (aberatsa), *biandu* (berandu), *ikestia* (ikastera), *gaztabiatu* (gaztaberatu, gaztazahar), *erriatu* (‘erregatu’)...

## 1.7. E bokalaren irekiera

Aurrekoan erdiko bokal honen itxiera aipatu badugu, oraingoan bokal berberarekin suertatzen den kontrako gertakizuna aztertuko dugu, hau da, zenbait egoeratan /e/ erdiko bokala /a/ bokal irekiarekin nola txandakatzen den ikusiko dugu.

- Hitzaren bukaeran doanean bokal erdia:

*antxuma* (Izag, 51), *bara* (Izag, 55), *anra* (andre, Izag, 50), *basurda* (Izag, 55), *bela* (Izag, 56), *burnisarda* (Izag, 57), *lora*, *udara* (Izag, 83), *fara* (joare, Izag, 62), *ila* (Izag, 67), *titera* (ditare, Izag, 81), *batza* (baratze, Izag, 55), *langila* (Izag, 71), *kurutza* (Izag, 71), *txorikuma* (Izag, 82), *giltza* (iltze, Izag, 64), *lantxurda* (Izag, 71)...

Eta Altsasuko toponimian (NTM, IX) ere ageri zaizkigu horrelako burutzapenak: *artzanba(ra)tza* (36), *mailazarkurutza* (50), *peziñako baratza* (54).

- Hitzaren barruan ere gertatzen da bokalaren irekiera, *e > a / \_ r, l* bilakabidea burutuz. Horrela, beraz, kontsonante dardarkariaren aurrean,

11. Izagirrek (1967, 84) oker erabili zuen burutzapen hau *yantzi zaitz* ‘vistase ustet’ itzuli zuenean, aurretiko (70) *jantzi* jasotzen duela ‘vestir’ aditzaren ordain moduan.

12. Horrela jaso diogu Inazio Zelaia Lezea altsasuarri.

13. Izagirrek (1967, 48) *e* bokalarekin jaso zuen, baina ez dugu ahaztu behar sarrean esandakoa, hots, *e* eta *i*-ren arteko ‘otsa’ entzuten zuela berak.

bereziki, eta kasuren batean baino ez bada ere alboko kontsonantearen aurrean, gertatzen da aipatu bokal txandaketa:

*baztar*, *asarratu* (Izag, 52), *eskarrik asko*, *arrauts*, *pitxar*<sup>14</sup>, *aguardiartin* (eguerdi artean, Izag 48), *maiztar* (Izag, 73), *muskar*<sup>15</sup>, *infarnu*, *alkar* (Izag, 50), *alkarrekin* (Izag, 91), *arrautsa* (Izag, 61)...

## 1.8. O bokalaren itxiera

Erdiko bokal honen itxiera erakusten duten bi bilakabide bereizi ditza-kegu Altsasun, Sakana erdialde osoan ezagunak direnak:

- *o* > *u* / *\_n*, hau da, *o* bokala itxi egiten da kontsonante sudurkariaren aurrean: *nun* (Izag, 76), *nundi*, *nungo*, *nunbait*, *nunai*, *trunku* (SAT, 127), *undatzen* (hondatzen, Izag, 89)...

- *o* bokala itxi egiten da bokal arteko kontsonante dardarkaria, /r/, galdu ondoren, zenbait kasutan. Ez da horrelakorik suertatzen Altsasun, esate baterako, *o* bokalaz amaituriko lexemari adlatiboko kasu marka erans-terakoan (Sakana erdialdean<sup>16</sup>, aldiz, bai gertatzen da, kasu honetan ere, *o* bokalaren itxiera): *guatu* (goratu, Izag, 66), *guai* (orain, Izag, 66, 88), *guaindokun* (oraindikan, Izag, 66)... baina *San Inaziyoa*<sup>17</sup> (San Inaziora, Izag, 83)...

14. Guk horrela jaso badugu ere, Izagirrek (1967, 79) *pitxera* jaso zuen.

15. Hau ere Izagirrek (1967, 75) erdiko bokalarekin dakar.

16. Sakana erdialdean ohi-koak dira horrelako burutzapenak: *basua* (basora), *zulua* (zulora), *San Inaziyua* (San Inaziora)...

17. Izagirrek (1867, 47) lanaren hasieran esan digu gutxitan gertatzen dela, bere ustean, altsasueran *o* eta *u* bokalaren arteko hotsa, eta ez ditu kasu gutxi horien artean adlatibokoak aipatzen.

## 1.9. Diptongoak

Diptongoak direla eta, gertaera ezberdin zenbait aztertuko ditugu jarraian. Batzuetan, diptongo txandaketa, irekiera nola itxiera, izango dugu kontuan; beste batzuetan, aldiz, jatorrizko bokal bakarretik sortutako diptongazioa; eta, azkenik, monoptongazioa ere bai, hau da, jatorrizko diptongoaren ezabaketa, bokal soila burutzen dela. Eta hasi baino lehen, argitu behar dugu diptongo horietariko batzuk bigarrenkariak direla, bokal arteko kontsonante baten galerak sortutakoak alegia.

- *ei* > *ai* diptongo irekiera. Burunda osoan gertatzen dira horrelako burutzapenak, baina ez Etxarri Aranaztik ekialdera. Bilakabide hori baliatzen duten burutzapen gehienetako diptongoak bigarrenkariak ditugu:

*laitu* (< *leitu* < *'legitu(m)'*)

*bairatzeko* (Izag, 90) (<*beiratzeko* < *begiratzeko*)

*bizartaiyan* (Izag, 57) (<*bizarteiyan* < *bizartegi(y)an*)

*gaiyo* (SAT, 127) (<*geiyo* <*gehiyo* < *gehiao* <*gehiago*)

*gaiyenak* (Izag, 57) (<*geiyenak* < *gehienak*)

*laiyoti beira* (Izag, 71) (<*leiyoti* <*leihotik*)

*laiyotila* (Izag, 71) (<*leiyotila* < *leihotila*)

*erlataiya* (Izag, 60) (<*erlateiya* <*erletegi(y)a*)

*erakaiya* (Izag, 59) (<*erakeiya* <*erakeri(y)a*)

*edozainek*<sup>18</sup> (Izag, 59) (*edozeinek*)

*aizea fan* (Izag, 49) (<*eizea* <*ehizea*)

*aiztaiyak* (Izag, 49) (<*eiztaiyak* <*ehizta(r)iyak*)

*maikuba* (Izag, 73) (<*meikuba* <*medikuba*)

*axaiya* (Izag, 54) (<*axeiya* <*axeriya*)

*baiya* (Izag, 55) (<*beiya* < *behi(y)a*)

*nafarraiya*<sup>19</sup> (Izag, 75) (<*nafarreiya* <*nafarreri(y)a*)

Altsasuko toponimian (NTM, IX) ere ageri zaizkigu horrelako burutzapenak: *buztindai* (39) (*buztindeg*), *erlatai* (41) (*erletegi*), *choritai* (58) (*txoritegi*).

• Aztertu berri dugun bilakabidearen kontrako joera, *ai* > *ei* diptongo itxiera alegia, ez da sistematikoki burutzen Altsasun eta gutxiago oraindik Burundako gainerako herrietan (ikus Erdozia, 2002, 'Bakaikuko hizkera'). Sakana erdialdean, berriz, erabat sistematikoa da diptongo itxiera hau (*bei*, *nei*, *neiz*, *meiz*, *mei*, *jei*...). Zuazok (1995, 310) hautazkoa dugula dio, eta horixe frogatzen duten adibideak eskaintzen ditu, geroxeago, ondorengoa gehituz:

“Aldaera hauetako batzuetan, dena dela, aurreko silabako *u* / *i* ere izan litezke aldaketaren eragile: *argizei*, *dukei*, *igurei*, *itzei*, *izein*, ... bezalakoetan adibidez.”

18. Beste burutzapena ere, *edozeinek*, erabili zuen Izagirek orrialde beran.

19. Izagirek berak, orrialde beran, *nafarreirik* erabili zuen.

Guk, gure aldetik, orokorrean Altsasun ez dela burutzen diptongo itxie-  
ra ondorioztatu dugu, hala baieztatu baitigute gure informatzaileek. Hala  
ere, zenbaitetan, atzeman dugu hautazkotasun hori frogatzen duen adibi-  
deren bat edo beste:

*bai, jai, naiz, maiz, lasai, usai, mai*<sup>20</sup> (mahai), *zengaiti* (SAT, 127), *gaineti* (SAT,  
130), *jaitxi* (Izag, 69), *kainuba* (Izag, 70), *laino* (Izag, 71) (SAT, 130)... baina *nor-  
beit* (SAT, 127) / *norbaitek* (SAT, 128), *nei* (nahi, SAT, 130) / *nai* (nahi, SAT, 119,  
130), *beindo* (baino, SAT, 127), *ebei* (ebagi, SAT, 131).

• *eu > au* diptongo irekiera. Altsasuko hizkeran, Sakana erdialde osoan  
eta nafarrera gehienez suertatzen da bilakabide hau (Arratian eta Mung-  
ialdean ere bai Bizkaian diosku Zuazok (1995, 310) Azkueri jarraituz):

*auliya* (Izag, 53), *auriya* (Izag, 53), *autsiya* (Izag, 54), *naurriya* (Izag, 75), *itau-  
liya* (Izag, 68), *naure*<sup>21</sup> (Izag, 76), *gaure* (SAT, 130), *nauri* (SAT, 134), *gaurok* (Izag,  
64), *berraun* (Izag, 86), *iruraun* (Izag, 86), *lauraun* (Izag, 86), *bostaun* (Izag, 86),  
*seiraun* (Izag, 86), *arainaun* (herenegun, Izag, 51)...

• *a > ai* diptongazioa. Erdialdeko hizkeran suertatzen dira horrelako buru-  
tzapenak maizenik. Sakana erdialdean eta Arakilen ez da horrelakorik gerta-  
tzen eta Altsasun, gutxi badira ere, ondorengoak adibideak aurkitu ditugu:

*aizken* (Izag, 62), *aizkenian* (Izag, 76), *laister*, *zergaitik*, *jaiski* (SAT, 117)...

• *a C e > ai* eta *o C e > oi* disimilazioek sortutako diptongoak. Bi bokal ez-  
berdin horien arteko kontsonantearen galerak eta ondorengo disimila-  
zioak beheranzko diptongoak sortzen ditu altsasueran:

*baiya* (Izag, 55) (<bahea), *galbaiya* (Izag, 55), *irinbai* (Izag, 55)

*fain* (<*faen* <*fanen* <joanen)

*yain* (<*yaen* <*yanen* <edanen)

*yoin* (<*yoen* <*yonen* <egonen)

*emain* (<*emaen* <emanen)

*amain* (<*amaen* <amaren)

*ajolabaiko* (<*ajolabaeko* <ajolabageko)

20. Sakana erdialdean *mei*  
erabiltzen da.

21. Dena dela, behin gu-  
txienez ez da txandaketa  
burutu: *eure* (heure, Izag,  
69).

• *u > au* diptongazioa. Ez da inondik inora ere modu sistematikoan, hiruzpalau burutzapen baino ez dira, gertatzen ez Altsasun, ez aldameneko Sakana erdialdean eta Arakilen. Azken eremu horietan (Altsasun ere bai kasu batean: *pilotajauku* <pilota joku) jarraian ikusiko ditugun adibideez gain, *o > au* diptongazioa (*aungi*, *auspel*<sup>22</sup>, *auntzi*<sup>23</sup>...) ere suertatzen da. Ondorengo burutzapenak antzeman ditugu guk geuk Altsasun eta, esan bezala, ohikoak dira Sakana erdialdean eta Arakilen ere:

*autzi* (utzi, SAT, 131) (Izag, 76), *auzteko zoon ura* (Izag, 55), *An auzten genduan...* (Izag, 83), *banau* (banu), *bayau* (bahu), *balau* (balu)...

## 1.10. Monoptongazioak

Altsasun, Burunda eta Sakanako gainerako hizkeretan bezala, jatorriz diptongoak direnak monoptongatu egiten dira, hau da, bokal soila bihurtu. Ondorengoak ditugu aipagarrienak:

- *au > u* monoptongazioa. Ia modu sistematikoan suertatzen da *urei* (eduki) aditzaren burutzapenetan: *dukat* (daukat), *dukak/n* (daukak/n), *duka* (dauka), *dukau* (daukagu), *zukan* ('zaukan')... Eta bestelako kasuak: *baruik* (baraurik), *yuntsi* (erauntsi), *iturriko* (itaurreko, Izag, 68<sup>24</sup>), *iorrutsi* ('iharrausi', Izag, 68), *aitajuna*<sup>25</sup> (aitona)...
- *au > a* monoptongazioa. Hiru burutzapen baino ez baditugu jaso ere, hauek nahiko adierazgarriak dira: *Jangeikuan gerriku* (Izag, 70), *alkiya* (SAT, 130), *lanbata*<sup>26</sup>...
- *au > o* monoptongazioa. Kasu honetan ere bi baino ez ditugu jasotako burutzapenak, eta hauexek dira: *arrantzi* (arrautza, Izag, 52), *intxorra* (intxaur, Izag, 67)...
- *ei > i* monoptongazioa. Ondorengoak ditugu honen adibideak: *binopin* (behinik behin), *zizilu* (zizeilu, Izag, 85)...

22. Inazio Zelaia altsasuarak *aspel* erabiltzen zela Altsasun esan digu.

23. Izagirrek (1967, 78) *ontziya dakar*.

24. Izagirrek, aipatu orrialdean bi modutara erabili zuen: "*itaurriku* "el que va ante las vacas al labrar el campo"; *it(a)urriko dail*."

25. Horrelaxe jaso diogu Inazio Zelaia altsasuarrari: *aitajuna* (< *aitajuna*).

26. Bakaikun ere horrela jaso genion Pedro Miguel Kintana. Sakana erdialdean, berriz, *launbeta* burutzapena entzun daiteke.

## 1.11. i/u bokal txandaketa

Altsasun eta Sakana osoan suertatzen dira *i* eta *u* bokalen arteko alternantzia edo txandaketa erakusten duten burutzapenak: *bultzurrun* (giltzurrin, Izag, 57), *bilixkorrian* (biluzgorrian, Izag, 57), *irruiti* (urruti, Izag, 68)...

## 1.12. Aditzetako $a + e > a$ bilakabidea

Nor erako hirugarren pertsonako aditz laguntzaileari erlatiboetako (-*en*) edo esaldi kompletiboetako (-*ela*) menderagailuak eransten zaizkionean, Altsasuko hizkeran *a* bokal irekia gailentzen da, mendebaldeko euskalkian eta ondoko Etxarri Aranatzan eta Ergoien bezala (Arbizutik ekialdera *e* bokala da erabiltzen dena: *zela*, *den*, *zen*...):

*geyei zala* (SAT, 123); *Neska, bakin ze pasatzen dan* (SAT, 127); *ibilko zan* (SAT, 133)...

Gauza bera gertatzen da Altsasun eta mendebaldeko euskalkian (Etxarri Aranatzetik ekialdera *e* bokala baliatzen da: *dena*), *a*-duna dugu, hots, hirugarren pertsonako adizkitik datorren zenbatzaile orokorraren kasuan:

*danok* (denok, SAT, 128), *danoiyek* (Izag, 67), *gurdi dana* (Izag, 74), *danak* (Izag, 76), *dannnaik* (Izag, 88)...

## 1.13. Aferesiak, sinkopak eta apokopeak

Honako hiru gertaera fonetiko hauen ondorioz bokalen galerak suertatzen dira: hitzaren hasieran lehenengoaren kasuan; hitzaren barruan, aldiz, bigarrenarenean; eta hitzaren bukaeran hirugarrenarenean. Lehenengo biak hizkera nafarraren ezaugarri nabarmenenetarikoak dira eta Sakanan, bereziki, Etxarri Aranatzetik ekialdera ageri dira modu nahiko sistematikoan. Ez Altsasun, ez Burundan orokorrean, ez dira, beraz, ohikoak horrelako burutzapenak, baina, hala ere, badira horrelakorik erakusten duten zenbait burutzapen, ondorengoak, esate baterako:



*re* (SAT, 128), *ta, maten* (Izag, 54), *letrezidadekin* (elektrizidadearekin, Izag, 88), *men* (omen, SAT, 128), *jito* (SAT, 128), *jituk* (Izag, 70), *bedratzi*<sup>27</sup>, *sobreak* (sobera ere, Izag, 88), *pezta, ibilko* (SAT, 133), *ikesko, arimi etorko zanen* (SAT, 133), *arimi ibil da guekin* (SAT, 133), *ikus dot, ekar dot, aitagier* (Izag, 49), *amagier* (Izag, 50)...

## 1.14. Bokalkoak

Kontsonante dardarkariz hasitako erdal maileguetan, modu sistemati-koan eta hitzaren hasieran ia kasu guztietan, bokalko irekia edo erdikoaren pro-tesia jasotzen da altsasueran eta Sakana osoan:

*arama* (Izag, 52), *aramaiyo* (armario, Izag, 52), *arrastuk* (Izag, 52), *erretena* ('retén', Izag, 60), *erromeria, erremeiyo, erleju, errezatu, erriatu, errenditu, errabiya, errep-  
patu* ('errepairatu', ohartu), *arropa, arrazio, arratoi, errespeto, errenta, errosaiyu* (Izag, 92), *errueda* (Izag, 60)...

## 1.15. E bokalaren epentesia

Bakaikuko<sup>28</sup> eta Sakana erdialdeko<sup>29</sup> hizkerak aztertzerakoan jaso genuen moduan, Altsasun ere etimologikoa ez den *e* bokala tartekatzen da zenbait bu-  
rutzapenetan, eta hau Nafarroako zenbait hizkeratan<sup>30</sup> baino ez da gertatzen:

*esene* (esne, Izag, 60), *ardieseni* (Izag, 60), *esenatu* (esnatu, Izag, 60), *alegeria* (alegreia, Izag, 53)...

## 1.16. Metatesiak

Lexema baten barruan fonema batzuk lekuz aldatuta agertzen direnean esaten dugu gertatu dela metatesia. Altsasuko hizkeran ez dira asko horre-  
lako burutzapenak, jarraian ikusiko dugun moduan:

*ikutu* (Izag, 67) (<ukitu)

*eskuaz* (<euskaz <euskaraz)

27. Horrela esan digu Inazio Zelaia altsasuarak, bian Izagirrek (1967, 85) *bedera-  
tzi* jaso zuen.

28. Nik neronek (2002, 277) horrela jaso nuen: "Etimolo-  
gikoa ez den, hau da, be-  
rez eraman behar ez duen  
bokala tartekatzeari esaten  
zaio bokalko epentesia, eta  
burutzapen bakarrean jaso  
dut Bakaikuko hizkeran, Er-  
goienan gertatzen den bu-  
rutzapen berberan: *esenia*  
(< esnea). Honetaz gain,  
Unanun *aseneya* (hatz nahia)  
entzun daiteke, baina ez  
Bakaikun, *azkuria* (hatz  
gura)."

29. Berriz ere nik neuk  
(2001, 125) Ergoieneko bu-  
rutzapenen berri ematen  
nuen eta Mitxelanaren  
oharra gaineratzen nuen,  
zeinen arabera horrelako  
bokalko epentesiak goi-nafa-  
rreraren ezaugarri diren.

30. Larraunen, Esteriba-  
rren, Atetzen, Ultzaman,  
Imotzen eta Baztanen age-  
ri dira *esene* eta/edo *esenatu*  
burutzapenak erabiltzen  
dituzte.

*prezosiya* (Izag, 88) (<prozesiya)

*urei* (<udei <edui <edugi)

*kabrestu* (<'cabestro')

*txofrakiya* (Izag, 82) (<txori kafiya)

*pastarrotza* (Izag, 79) (<pastorrotza)

.. 2 ..

## Kontsonantismoa



1920. Prozesioa



## 2.1. Bustidura edo palatalizazioa

Ez da Altsasuko euskararen *i* bokal itxiaren eraginez asimilazio-bustidurarik gertatzen eta bada, aldiz, bustidura adierazkorra. Honelaxe genion Bakaikuko hizkera aztertu genuenean (2002, 279): “*Hauxe dugu* (asimilazio-bustidurarik ezaz ari ginen) *Burundako ezaugarri nabarmenatarikoa eta Etxarri Aranatz eta Bakaikuko hizkeren arteko isoglosa garbia eta garrantzitsua.*” Eta aurreraxeago horrela jarraitzen genuen: “*Baina jaso ditut burutzapen palatalizatuak, gehienbat ‘i + txistukaria’ ingurunean, eta bustidura adierazkorraren adibideak direnak: ... pattarra, pattal, ... goxua, ... atximixka, ttattalangorri, Urkingo txulo* (toponimoa)...”

Eta gauza bera suertatzen da, hasieran esan dugun moduan, Altsasuko hizkeran. Ugari dira palatalizaziorik ez dela burutzen erakusten duten burutzapenak:

*ginan* (SAT, 118), *ginun* (SAT, 118), *ferrokarrila* (SAT, 119), *adineti* (SAT, 119), *gindan* (SAT, 122), *soinubakin* (SAT, 122), *danbolinakin* (SAT, 122), *mutileiri* (SAT, 123), *ereiten* (SAT, 127), *makila* (SAT, 127), *gainin* (SAT, 127), *sorginena* (SAT, 127), *Mainamikirri* (SAT, 127), *aitu* (SAT, 127), *norbeit* (SAT, 127), *bajakinet* (SAT, 128), *zinen* (SAT, 128), *ein* (SAT, 128), *bazendekinei* (SAT, 129), *txikitu* (SAT, 129), *dinau*

31. Horrela ageri da DLCn ere. Guk Sakana gehienez horrela jaso dugu. Soilik Lakuntan eta Arruazun erabiltzen dute kontsonante ahoskabea daraman burutzapena (*bake*) eta Arbizun eta Ergoienen *f*-duna (*fake*).

32. Kontsonante ahoskabe-duna (*pekatu*) jaso genuen guk Sakana erdialde gehienez (soilik Etxarri Aranatzan eta Lizarragan burutzen da Altsasun bezala).

33. Sakana erdialde osoan *penasko* burutzapena erabiltzen da.

34. Horrela ageri da DLCn, *farre/a* Etxarri Aranatzan eta Arbizun, *parre/a* Lakuntzan eta Arruazun, eta *irri* Ergoienen, Uharte Arakilen eta Irañetan.

35. *Kalte* Sakana erdialdean.

36. Horrela ere bai DLCn, baina *kate* Sakana erdialde osoan.

37. Sakana erdialdean *goñedo*.

38. *Danborra* ere bai Etxarri Aranatzan, Lizarragan, Arbizun eta Arruazun.

39. Horrela ere bai Sakana erdialde gehienez. Arbizun, hala ere, *torre*.

(SAT, 129), *bila* (SAT, 129), *itia* (SAT, 129), *iteko* (SAT, 129), *beindo* (SAT, 130), *ixil-ixila* (SAT, 130), *laino* (SAT, 130), *gaineti* (SAT, 130), *azpiti* (SAT, 130), *ailatzen* (SAT, 131), *ibili* (SAT, 132), *Zangitu* (SAT, 132), *bagazila* (SAT, 133), *ofrezituik* (SAT, 133), *neskatil* (SAT, 133), *agina* (Izag, 48), *mila* (Izag, 48), *aino* (Izag, 48), *aita dina* (Izag, 48), *arina* (Izag, 51), *astimina* (Izag, 53), *bekaina* (Izag, 55), *bilatu* (Izag, 57), *bizargili* (Izag, 57), *dainuba* (Izag, 58), *espila* (Izag, 61), *ezkila* (Izag, 62), *ezpainak* (Izag, 62), *ezpartinak* (Izag, 62), *goinatuba* (Izag, 65), *ilarre* (Izag, 67), *ilesuba* (Izag, 67), *koilera* (Izag, 71), *laino* (Izag, 71), *laiyotili* (Izag, 71), *langila* (Izag, 71), *krisiluba* (Izag, 71), *leitu* (Izag, 72), *negartintinak* (Izag, 75), *oilarra* (Izag, 77), *oilesku* (Izag, 77), *pila* (Izag, 79), *tapilo* (Izag, 81), *teila* (Izag, 81), *zila* (Izag, 85), *zirritu* (Izag, 85), *zizilu* (Izag, 85), *ailetu* (Izag, 86), *polita* (Izag, 88), *katilugariya* (Izag, 90), *Berjiniandako* (Izag, 91), *txokolate-pastila(n)mat* (Izag, 91), *automobila* (Izag, 92), *dandolinakin* (Izag, 93)...

Dena dela, jaso ditugu burutzapen palatalizatuak, baina batez ere mai-legu berrien kasuan, eta beste zenbait bustidura adierazkorra adierazten dutenak eta *-i +* kontsonante txistukaria ingurunean:

*jaitxi* (Izag, 92), *Estellan* (Izag, 92), *Plaza Kastilloa* (Izag, 92), *pixkat* (Izag, 90), *pañeluakin* (Izag, 90), *xakarra* (Izag, 84), *pixuba* (Izag, 79), *lixiba* (Izag, 73), *Joxepa* (Izag, 61), *bildotx* (Izag, 57), *Patxi* (Izag, 55), *bereixin* (Izag, 55), *aixkire* (Izag, 49), *kurrillo* (Izag, 71), *gantxillukin* (SAT, 122), *puntilla* (SAT, 122), *kutxillo* (SAT, 131), *ttikiena* (SAT, 131), *aundixaok* (SAT, 133), *kuadrillak* (SAT, 133)...

## 2.2. Kontsonante herskarien burutzapenak

Kontsonante herskariak, ahostunak (/b/, /d/, /g/) zein ahoskabeak (/p/, /t/, /k/), aztertuko ditugu jarraian. Hitzaren hasieran, bereziki, zeintzuk agertzen diren izango dugu kontuan, eta honekin batera, zein kasutan erortzen diren eta beste kontsonanteren batekin txandakatzen diren ere bai.

- Herskariak hitzaren hasieran. Egoera nahasia agertzen dute kontsonante herskariak hitzaren hasieran Altsasuko hizkeran, ahostunak zein ahoskabeak ageri baitaitezke. Ondorengoak ditugu ahostunen adibideak:

*bake*<sup>31</sup>, *bekatu*<sup>32</sup> (Izag, 61), *benazko*<sup>33</sup> (Izag, 63), *barre*<sup>34</sup>, *galti*<sup>35</sup> (SAT, 130), *galtegai* (Izag, 62), *gate*<sup>36</sup> (Izag, 64), *gaztaina*, *gartzela*, *goinatuba*<sup>37</sup> (Izag, 65), *danbora*<sup>38</sup> (Izag, 58), *denboraik* (Izag, 62), *dorre*<sup>39</sup> ...

Zenbait kasutan, lautan bai gutxienez, Izagirrek burutzapen berbera kontsonante ahostuna zein ahoskabearekin azaltzen du:

... *etzon diruik gastatzeik ..., ... baiya kastatzeko ez; ...* (Izag, 91) (... ez zegoen dirurik gastatzerik ..., ... baina gastatzeko ez; ...)

*Geo etorri gindan bideberriz, pideberriz geo, ...* (Izag, 91) (Gero etorri ginen bideberriz, bideberriz gero, ...)

*Galbaiyuk an ...* (Izag, 63) (Kalbarioak han ...), *...kalbaiyuk-ee bideberrian ...* (Izag, 91) (... kalbarioak ere bideberrian ...)

*bizkorra* (Izag, 57), ... *pizkorra emen zan, pizkorra* (Izag, 80) (... bizkorra omen zen, bizkorra)

Gure informatzaileek lehen biak kontsonante ahostunarekin hasieran (*gastatu, bideberri*) burutzen dituzte, eta besteak, aldiz, ahoskabeekin (*kalbaiyu, pizkor*).

Hitzaren hasierako herskari ahoskabeen adibideak ditugu ondorengoak:

*kendu*<sup>40</sup> (*kentzen zayo*, SAT, 127), *korotza* (Izag, 54), *koilera* (Izag, 71), *kolko* (Izag, 71), *korostiya* (Izag, 71), *kurutza* (Izag, 71), *pagadiya* (Izag, 79), *pagaxibikorrak* (Izag, 79), *partz* (Izag, 79), *pitsa* (Izag, 79), *piper* (Izag, 79), *titera* (Izag, 81), *titiya* (Izag, 81)...

Ikusten denez, baturako erabaki den moduan, hitz bereborean bi kontsonante herskari baldin badaude eta bigarrena ahoskabea bada, hasiera-koa ere ahoskabea izango da: *kolko, piper, titera, titiya*.

Eta *oa* bokal multzoaren aurrean /g/ herskari belare ahostuna ageri zai-  
gu behin gutxienez (gehiagotan ageri da Sakana erdialdean): *guai* (orain),  
*guaindo* (oraindik).

- Herskariak hitzaren tartean. Kontsonante txistukari frikari bizkar-hobietakoaren ondoren (<z>), normalean, herskari ahoskabea ageri da, ohikoa den bezala, Altsasuko hizkeran. Horrela gertatzen da herskari ezpainenetako (/b/) eta hortzetakoen (/t/) kasuan, baina ez beti belareekin (/g/), gutxienez kontsonante honekin hasitako adizkien kasuan:

*biliskorrian* ('biluz + gorri', Izag, 57), *baezpaa* (badaezbada), *eztakit* (ez dakit), *eztail* (ez dabil), *eztuka* (ez dauka)... baina *ezgaa* (ez gara), *ezgenden* (ez geunden), *ezgindan* (ez ginen), *ezgendukan* (ez geneukan), *noizbait...*

40. Burunda osoan eta Iranietan erabiltzen da horrela, baina *gendu/jendu* Etxarri Aranatzan eta *jendu* Sakana erdialde gehianean.

Bestalde, *n* eta *l*/kontsonantez amaituriko aditzei etorkizuneko morfema eransterakoan, Altsasun, Sakana osoan egiten den moduan, herskari ahoskabetuna, *-ko*, da erabiltzen den aipaturiko morfema: (*e*)*inko*, *fanko*, *esanko*, *jakinko*, *yonko*, *ilko*...

Era berean, kontsonante dardarkariz amaituriko izen bereziak, ablatiboko morfema singularra eransterakoan herskari ahostuna baliatzen du: *Lunbierdi* (Izag, 92), *Eibardi*, *Aibardi*...

Azkenik, behin baino ez bada ere, herskari belare ahostuna ageri da /h/ kontsonantearen testigantza erakutsiz: *egundu* (ehun(du), Izag, 59).

- Herskariaren galerak bokal artean. Ugari dira Altsasuko hizkeran bokal artean suertatzen diren kontsonante herskari ahostunaren galerak, eta horiek gutxienez bi ingurune ezberdinetan gertatzen dira:

*Bat* zenbatzailearen kasuan sortutako ezpainetako herskariaren galera. Zenbatzailearekin doan lexema *-a*, *-e* edo *-o* bokalaz bukatzen denean kontsonante herskari ezpainetako ahostuna erori egiten da:

*pixkat* (<*pixkaat* < *pixka bat*)

*ogeitat* (<*ogeitaat* < *ogeita bat*)

*puskat* (<*puskaat* < *puska bat*)

*amat* (<*amat* < *ama bat*)

*etxiat* (<*etxeat* < *etxe bat*)

*semiat* (<*semeat* < *seme bat*)

*zuluat* (<*zuloat* < *zulo bat*)

*soruat* (<*soroat* < *soro bat*)

Bilakabide berbera dugu *batzuk* zehaztugabearekin eta izenordain banatzaileak sortzeko erabiltzen den morfema eransterakoan *bat* zenbatzaileari:

*puskatzuk* (<*puskaatzuk* < *puska batzuk*)

*semiatzuk* (<*semeatzuk* < *seme batzuk*)

*soruatzuk* (<*soroatzuk* < *soro batzuk*)

*puskana* (<*puskaana* < *puska bana*)



*zigarruana* (<*zigarroana* <*zigarro bana*)

*etxiana* (<*etxeana* <*etxe bana*)

Bokal ezberdinen arteko herskari ahostunen galerak ugari dira Altsasuko hizkeran, jarraian ikusiko dugun moduan:

*zu*<sup>41</sup> (zubi), *kaitu* (kabitu), *dail* (dabil), *prointziko* (probintziko, Izag, 66), *gail-tza* (gabiltza), *yaili* (erabili), *aprotxatu*<sup>42</sup> (Izag, 76), *bakizu* (badakizu), *badirui* (badirudi), *aitu* (aditu, SAT, 127), *aixkire* (adiskide), *bialdu* ('bidaldu'), *ikusiot* (ikusi dot), *(e)in biot* (egin behar dut), *sendatukon* (sendatuko dun, SAT, 127), *falton* (falta dun, SAT, 127), *bakin* (badakin, SAT, 127), *(e)in* (egin), *aurpei* (aurpegi), *ezautu* (ezagutu), *bairatu* (begiratu), *lenoko* (lehenagoko, SAT, 131), *leno*<sup>43</sup> (lehenago, SAT, 130), *geiyoo* (gehiago, SAT, 128), *makurro* (makurrago, Izag, 74), *tuu* (ditugu), *dukeu* (daukagu), *ebei*<sup>44</sup> (ebagi, SAT, 131), *irei* (iregi, Izag, 68), *er-lataiya*<sup>45</sup> (erlategi, Izag, 60), *suteiya* (sutegia, Izag, 81), *afolabaiku* (ajolabageko, Izag, 48), *gatzaiya* (gatzagia, Izag, 64)...

- Zenbait txandaketa. Lehena, *b/m*, ez da gertaera sistematikoa, baina bai garrantzitsua Altsasuko hizkeraren ezaugarri moduan:

*musti*<sup>46</sup> (busti, Izag, 75), *pastila(n)mat* (pastilaren bat, Izag 91), *mentzaiya* (*ben-tzaiye* Sakana erdialderan, Izag, 74), *txotxomar* (zotz + abar, Izag, 82).

Kontrako txandaketa ere suertatzen da behin, behintzat, eta burutzapen hauxe Sakana osoan da erabilia: *ben datu* (merendatu).

Beste txandaketa bat ere, *t/k* txandaketa, behin baino ez dugu jaso eta, gainera, txandaketa berak mendebaldeko euskalki multzora hurbiltzen du altsasuera:

*kipula*<sup>47</sup> (tipula, Izag, 71)

## 2.3. Kontsonante igurzkariak

Multzo honetan, Altsasuko hizkerako kontsonante sabaiko igurzkaria (/j/), ezpain-hortzetako igurzkaria (/f/) eta belare igurzkaria (/x/), guztiak ahoska-beak, izango ditugu kontuan, zein kasutan burutzen diren eta nolako txandaketak izaten dituzten azalduko dugularik.

41. Koldo Zuazok dionez (1995, 318) bertako (Burundakoa dela dio berak) be-reizgarria izango genuke Sakanan gertatzen den galera hauxe: "Burunda, Etxarri eta Arbizun jaso ditugu *zui* aldaeraren aztarnak, baina, hemendik kanpo, Arabako *zufi/zui* aldaeretan du oraingoan ere jarraipena (eta hegoaldera dagoen Ameskoan). (...) Baina behin Arbizutik ekialdera *zubi* da ageri dena Karasatorren zerrenden arabera." Guk Arbizutik ekialdera ere *zui* jaso dugu.

42. Ondorengo izan da bere bilakabidea: *aprobe-txatu* > *aproetxatu* > *aprootxatu* > *aprotxatu*.

43. Bilakabide hau morfologian aipatuko dugu maila konparatiboa aztertzerakoan: *lehenago* > *lenao* > *lenoo* > *leno*.

44. Ondorengo bilakabidea izan du: *ebagi* > *ebai* (hershkariaren galera) > *ebei* (ai > ei diptongo itxiera).

45. Kontsonante herskaria erori ondoren *ei* > *ai* diptongo irekiera suertatu da.

46. Horrela jaso zuen gertaera hauxe Koldo Zuazok (1995, 317): "Izagirrek arkaismoa dirudien (cf. *FHV*: 500) *musti* 'busti' jaso zuen Altsasun eta Burundako hizkeren ezaugarria dirudi honek, ez baitugu handik kanpo beste inon aurkitu."

47. DLcN *guipullea* eta Etxarri Aranaztik ekialdera *tipu-la* aldaera ageri da.

• (/j/) sabaiko igurzkari ahoskabea. Usu ageri da altsasueran kontsonante hori eta bereziki *i* bokalari soinu bokalikoak jarraitzen dionean. Horrelakoetan beti tartekatzen da aipatu kontsonantea:

*zuriyura* (zuri hura, Izag, 89), *iturriyartaa* (iturri hartara, Izag, 90), *liyu* (liho, SAT, 127), *sarriyo* (sarriago, Izag, 80), *erremeiyo* (SAT, 128), *guziyak* (SAT, 129), *oiya* (SAT, 130), *iya* (SAT 130), *galbaiyuaik* (kalbario haiek, Izag, 63), *iy<sup>48</sup>* (Izag, 64), *giyer* (gihar, Izag, 65), *iyesi*, *diyua* (dihoa), *biyar*, *iyor<sup>49</sup>* (inor), *iyortzi* (igurtzi, Izag, 69)...

Era berean, lan honetako 1.6. puntuan geniona gogoratuz, hitz hasieran ere askotan ageri da kontsonante hau altsasueran:

*yon* (egon), *yosi* (erosi), *yan* (edan, eroan), *yaztun* (eraztun), *yantzi* (erantzi), *yalki* (eralki), *yaili* (erabili)...

Bestalde, hizkera nafarrarekin bat eginez, aditzaren bigarren pertsonako hasierako morfema dugu kontsonante hauxe, *h*-aren ordeztu:

*yaiz* (haiz), *yitzan* (hintzen), *yen* (huen), *yuan* (hion, hien), *yuazkian* (hizkion, hizkien), *yitzake* (hintzateke), *yauke* (huke), *yuake* (hoake), *yoo* (hago)...

• /x/ belare igurzkari ahoskabea. Erdialdeko euskalki multzoan eta Sakana osoan bezala erabiltzen da kontsonante hau bere ahoskerari dago-kionez, hau da, gaztelaniako soinu bera egiten du altsasueran ere. Burutzapen horietako batzuk, aditzetako hitano alokutiboetako marka moduan azaltzen zaizkigu:

*Jangeikuan gerriku* (Izag, 70), *josi* (Izag, 70), *jantzi* (Izag, 70), *jituk* (Izag, 70), *jende* (SAT, 117), *jartzen* (SAT, 117), *jakingo* (SAT, 119), *juntauta* (SAT, 122), *jon* (zagon, SAT, 131), *jitubet* / *jitunet* (ditiat / ditinat), *jituk* / *jitun* (ditik / ditin), *jeek* / *jeen* (zaudek / zauden), *jukazkiyau* (zauzkaagu, Izag70), *pilotajauku* (pilota joku)...

Noizbait, alternantzia edo txandaketa jasaten du kontsonante honek, baina hurrengo puntuan aztertuko dugu hori.

• /f/ ezpain-hortzetako igurzkari ahoskabea. Hitz hasieran nola erdian agertzen da kontsonante hau altsasueran. Gipuzkoatik hain hurbil egonik kontrakoa pentsa bazitekeen ere, ez dirudi oso indartsua izan denik *f/p* txandaketa, eta egia bada ere zenbait burutzapenek horixe erakusten duela, gehiago dira txandaketarik burutu ez duten adibideak:

48. Hasierako *e*- bokalaren itxiera suertatu da lehenago: *eho* > *iho* > *iy<sup>o</sup>*.

49. Burutzapen honetan eta hurrengoan, lehenik, bokal arteko kontsonantea galdu da.

*iperraizi* (Izag, 68), *pikuba*, *napar*, *pago*, *Pernando*<sup>50</sup> (Izag, 84)... baina *fésta*, *alfer* (Izag, 50), *farol* (Izag, 62), *fede* (Izag, 63), *ferrazaile* (Izag, 63), *feriya*, *afaldu* (Izag, 48), *nafarraiya* (Izag, 75), *nafarraku* (Izag, 75), *infarnu*, *faltso*, *fraille*, *franko*, *safaiya* (Izag, 80), *fistuotsa* (Izag, 92), *frakak*, *Fernando*, *kafiya* (Izag, 70)...

Ondorengo txandaketa, *j / f* alegia, emankorra da, ez bakarrik Altsasun, baizik eta Burundan eta Sakana osoan, hemen gehiago, ere bai:

*fan* (joan, SAT, 128), *afolabaiku* (ajolabageko, Izag, 48), *fara* (joare, Izag, 62), *faramiya* (joare mihi, Izag, 62)...

## 2.4. Kontsonante txistukariak

Altsasuko hizkeran ederki bereizten dira kontsonante txistukari guztiak, frikariak (*s*, *x*, *z*) nola afrikatuak (*ts*, *tx*, *tz*). Horrela erakusten dute gure lana egiteko orduan erabili ditugun lanabesek eta baita gure informatzaileek esandakoak ere. Izagirreraren laneko 61. eta 69. orrialdeetan txistukari afrikatuen bereizketaren adibide garbiak ageri zaizkigu:

*etseikiya* “el vencejo (de centeno) para atar trigo”.

*etxeina* “el tejado”; *etxain guziya*.

*etxidamu* “tras pasado mañana”.

*itsesun ezta urikaitu ber* “no va a caber el agua en el mar”.

*itxi tu begiyek* “ha cerrado los ojos”.

*itzaiya* “el carretero”.

Bestalde, hitzaren edozein posiziotan ageri daitezke txistukariak, ondorengo adibideotan ikusiko dugun eran:

*ots* (79), *otso* (79), *partz* (79), *pagaxibikorrak* (79), *aixkire* (49), *akets* (49), *andaitz* (50), *ankutsin* (50), *anka-giltzi* (50), *antux* (51), *antxuma* (51), *apaiz* (51), *arantza* (51), *gutxi* (51), *atsa* (53), *auts* (54), *atzaparrak* (53), *bietz* (55), *bildotx* (57), *bixi-bixi* (57), *eakus* (58), *eskuez* (60), *errukiz* (60), *isutsi* (68), *izutu* (69), *kaxkarra* (70), *jostorratz* (70), *lixiba* (73), *pixuba* (79), *pitxer* (79), *pitsa* (79), *susea* (81), *siets* (81), *txintxuba* (82), *xastarra* (82), *urtxistinak* (83), *zarzaro* (84)...

50. Gure informatzaileek *Fernando* erabili izan dela Altsasun adierazi digute.

- Informatzaileek esan digutena eta Izagirren lanean ageri dena kontuan hartuz gero, egoera nahasia ageri zaigu altsasueran kontsonante txistukarien artean /n, l, r/ kontsonanteen ondoan joaten direnean. Izagirren lanean, gehienetan, txistukari frikariak ditugu:

*alsasuarrak* (50), *Aranzazun* (51), *arranzali* (52), *bizersuba* (57), *marsuba* (58), *ferrazaille* (63), *jakinsuba* (69) eta *zarzaro* (84). Baina, bizpahiru alditan gutxienez, txistukari afrikatuak ere erabili zituen: *iletsuba* (67), *nekazan(t)zi* (76) eta *ar(t)zan(t)zi*<sup>51</sup> (76).

SATen, kanpo sandhiak barne, eta gure informatzaileen artean, gehienbat, burutzapen afrikatuak ditugu, salbuespen bat ere badelarik: *pentsatu*, *pentsuba*, *faltso*, *Altsasu*, *Plentzia* (SAT, 118), *gartzelati* (SAT, 118), *kontserbatzeko* (SAT, 119), *merkantziakin* (SAT, 129), *altsasuarrak* (SAT, 132), *faten tzanen* (SAT, 127), *an tzeola* (SAT, 128), *aman tzitunen* (SAT, 128), *in tzanen* (SAT, 128), *omen tzinein* (SAT, 128), *etzoneen* (SAT, 129), *omen tzoneen* (SAT, 129), *men tzen* (SAT, 129)... baina *Alsasuko* (SAT, 118).

Bakaikuko hizkera aztertu genuenean ere, antzeko egoera islatu genuen: “Joera nagusia kontsonante txistukariak ez afrikatzearena izango genuke baina, hala ere, hortzobietako igurzkari ahoskabearen kasuan bai gertatzen da afrikazioa nik jasotako burutzapenetan, guztietan ez bada ere: *pentsatu*, *pentsuba*, *altsasuarra*, *faltsua*, ... baina *salsa*, *bersolaiya*, *jersia*, ... *zarzarua*, *francesa*, *bizerzuba*, *kanzonzillua*, *marsuba*, ...”

- Kontsonante herskarien aurrean txistukarien neutralizazioa gertatzen da zenbait kasutan: *biliskorrian* (biluz + gorrian, Izag, 57), *inbuluskan* (inbuluzka, Izag, 67), *moskortuik* (mozkorturik, Izag, 74), *ustaiya* (uztai, Izag, 83)...
- Ez aditzondoaren atzetik z- kontsonante bizkarhobietako frikariak hasten diren adizkietan, kontsonante hauxe afrikaturik erabiltzen da Atsasuko hizkeran: *etzon* (ez zegoen, Izag, 91), *etzoneen* (ez zegoen, SAT, 129), *etzan* (ez zen), *etzakiyein* (ez zekiten), *etzala* (ez zela, SAT130), *etzola* (ez zegoela, SAT, 131)...

51. Parentesiko kontsonanteek erakusten digute zailantzak izan zituela hitz hauek transkribatzeko orduan.

## 2.5. Kontsonante dardarkariak

Izagireren lanean, hiztegi moduan antolatua dagoen zatian bederen, ez dago hitz bakar bat ere hasieran kontsonante dardarkaria daramanik. Hala ere, Sakana osoan gertatzen den moduan, badira, mailegu nahiko berrietan bereziki, dardarkari azkarra hasieran daramaten hainbat burutzapen:

*rau*<sup>52</sup>, *radiyo*, *raza*, *remolatxa*, *roskila*, *rekexona*, *rubiyua*, *redondua*, *reuniyua*, *rato* (Izag, 93), *repartituten* (Izag, 55), *rejimen* (Izag, 80), *besterromeiyetea* (Izag, 92), *remeyoakin*<sup>53</sup> (SAT, 128), *riojanuk* (SAT, 134)...

- Bokal arteko dardarkari samurraren galera suertatzen da maiz altsasueran Sakana osoan bezala:

*etxia*<sup>54</sup> (etxera), *atzia* (atzera), *aurria* (aurrera), *geo* (SAT, 128), *ze(e)kin* (SAT, 128), *gaa* (gara), *zaa* (zara), *zai* (zarete), *nua* (nora), *guatu* (goratu, Izag, 66), *amain* (amaren), *batza* (baratze, Izag, 55), *batzuiya* (baratxuria, Izag, 55), *benduba* (mendua, Izag, 56), *lanbata* (larunbata, Izag, 52), *axaiya* (azeria, Izag, 54), *zikiyu* (zikirio, Izag, 85), *goitibeakuik* (Izag, 92)...

- Hortzetako herskari ahostunaren ordeztu erabiltzen da batzuetan, hau da, erdialdeko euskalki multzoan bezalako burutzapenak ageri dira Altsasun eta baita Sakana erdialdeko zenbait herritan ere:

*amoriyuak* (Izag, 89), *aixkire* (Izag, 49), *erriakin* (Izag, 64), *aguro* (Izag, 92), *irritara* (Izag, 68), *ero* (edo, Izag, 92)... Baina *idi* (Izag, 64), *edadi* (edari, Izag, 59), *bedinkatuba*...

## 2.6. Kontsonante sudurkariak

Aipatua dugu, dagoeneko, kontsonanteen atalaren hasieran, altsasueran ez dagoela orokorrean palatalizazio edo bustidurarik, eta hala erakusten digute kontsonante sudurkariari dagokionez behintzat, ondorengo adibideek:

*dainuba* (Izag, 58), *erraina* (Izag, 60), *erregina* (Izag, 60), *mina* (Izag, 60), *ezpainak* (Izag, 62), *ezpartinak* (Izag, 62), *goinatuba* (Izag, 65), *gainea* (Izag, 69), *kainuba* (Izag, 70), *ginan* (SAT, 118), *danbolinakin* (SAT, 122), *soinubakin* (SAT, 122)...

52. Bat-batean zerbait gertatu edo sortu dela adierazteko erabiltzen da.

53. *Erremeyo* ere bai geroxeago.

54. Ikusi bokalismoko 1.6 puntua. Adlatiboan oso ohikoa dugu bilakabide hau.

Horrela beraz, /m/ eta /n/ kontsonanteak baino ez dira erabiltzen altsasueran eta hirugarrena, sabaiko sudurkari ahostuna /\_/, ia soilik izen berezietan erabiltzen da:

*Oñatia* (Oñatira, Izag, 91), *Iruña*...

- *-nd-* kontsonante taldearen agerpena *i* bokalaren ondoren. Beste edozein tokitan *-n-* soilik burutzen diren moduan, ugari dira altsasueran eta burunderan, orokorrean, aipatu kontsonante taldearekin agertzen direnak. Burutzapen gehienak aditz formak edo adlatibo bukatuzkoaren kasuko morfemetakoak ditugu:

*gindan* (SAT, 122) (Izag, 89), *beindo* (SAT, 127), *bazindekinei* (SAT, 129), *zindain* (zineten), *gindela* (Izag, 89), *onutzaindo* ('honutzeraino', Izag, 91), *Araiyaingo* (Izag, 91), *Uberteaingo* (Izag, 89), *guaindokun* (Izag, 66)...

- Mitxelenak (1977, 143-144) esan bezala gipuzkera eta Nafarroa Garaiko zenbait hizkeratan suertatzen den *\*-ani* > *-ai* bilakaera ageri zaigu altsasueran<sup>55</sup>, hau da, kontsonante sudurkaria galdu egiten da:

*arraiya* (Izag, 52), *aitagarreba* (Izag, 49), *amagarreba* (Izag, 49), *guai* (orain, Izag, 66), *zartaiya* (Izag, 84)...

- Moduzko adberbioak sortzeko erabiltzen den *-ka* morfemak, kontsonante sudurkariaren protesia izaten du morfemari erantsita, Sakana erdialde osoan gertatzen den moduan:

*laisterkan*, *banakan*, *aizkan* (harrika), *ibaikan* (igerika), *inbuluzkan*, *txintxilixkan* (zintzilix, Izag, 69)...

## 2.7. Kontsonante albokariak

Kontsonante sudurkariekin gertatzen den moduan, albokariekin ere esan dezakegu soilik hortzobietako ahostuna, /l/, erabiltzen dela Altsasun, bestea, sabaiko ahostuna, /l/, ia bakarrik izen berezietan erabiltzen baita. Beraz, kasu honetan ere ez da bustidura edo palatalizazioa suertatzen, jarraian ikusiko dugun eran:

*oilarra* (Izag, 77), *oilesku* (Izag, 77), *mutila* (Izag, 75), *mila* (Izag, 74), *makila* (Izag, 74) (SAT, 127), *zila* (Izag, 85), *zaila* (Izag, 84), *teila* (Izag, 81), *tapilo* (Izag,

55. Gauza bera jaso genuen Bakaikuko hizkeran ere.

81), *pila* (Izag, 79), *ila* (Izag, 67), *ilarre* (Izag, 67), *ilobat* (Izag, 67), *iletsuba* (Izag, 67), *ileti* (Izag, 67), *ferrokarrila* (SAT, 119), *mutileiri* (SAT, 123), *bila* (SAT, 129), *ixil-ixila* (SAT, 130), *ailatu* (SAT, 131), *neskatil* (SAT, 133), *kuadrilak* (Izag, 58)... baina *Estellaa* (Estellara, Izag, 92)...

- *l/d* txandaketa edo alternantzia. Burutzapen gehienek kontsonante albokaria daramate, baina hala ere badira herskari hortzetako ahostunaren alde neutralizatzen direnak ere:

*elur*, *ilarre*, *zilar*<sup>56</sup>... baina *idergiya*<sup>57</sup> (ilargia, Izag, 67) eta *idar* (ilar).

- *l/n* txandaketa edo alternantzia. Nahasketa erakusten du, Burunda osoan bezala, Altsasuko hizkerak bi kontsonante horien arteko txandaketak direla eta. Dena dela, Etxarri Aranatzetik ekialdera<sup>58</sup>, hemen aipatuko ditugun burutzapen guztiek kontsonante albokaria daramate:

*narruba* (larru, Izag, 75) eta *naurritu* (Izag, 75), baina *lasai* eta *lazka*.

- Bestalde, ez dira ageri altsasueran Sakana erdialdean ohikoak diren */pl/* eta */fl/* kontsonante bikoitzak:

*landare* (planta Sakana erdialdean), *lore* (flore Sakana erdialdean), *luma(tu)* (Izag, 73) (plumetu Sakana erdialdean), *patera* (Izag, 79) (platera Sakana erdialdean).

56. Horrela ere bai Uharte Arakilen eta Irañetan. Etxarri Aranatzan, Arruazun eta Lakuntzan *zider*.

57. Horrelaxe ere bai Sakana erdialdean.

58. Irañetan soilik antze-man daiteke Burundan bezalako nahasketa.

## 2.8. Errotazismorik eza

Altsasuko hizkeran, Burundakoan eta Sakana erdialdeko gehienez bezala, ez da errotazismoaren aztarnarik ageri. Gertaera fonetiko horixe erakusten duten lehen burutzapenak Uharte Arakilen ageri dira eta ez asko gainera.





.. 3 ..  
Morfologia



1920-30. Otadiko Santokristoa



### 3.1. Deklinabidea

Ia kasu guztiak aztertuko ditugu jarraian, banan-banan, eta bakoitzaren berezitasunak agerian utziko ditugu. Nominatibo edo absolutiboa, nor kasua, ez dugu hemen aipatuko, lehenago bokalismoan, bokal elkarketak aztertzerakoan argi geratu baita bere jokabidea, morfema singularra, *-a*, erantsen zaionean.

- Ergatiboa. Kasu honi dagokion aspekturik aipagarriena, singularrean eta pluralean morfema beraren erabilera, sinkretismoa beraz, izango genuke:

*Gizonak ein dau* (Gizonak egin du) / *Gizonak ein dei* (Gizonek egin dute)

*Mutikiyak esan dau* (Mutikoak esan du) / *Mutikiyak esan dei* (Mutikoek esan dute)

*Semiak ekar dau* (Semeak ekarri du) / *Semiak ekar dei* (Semeek ekarri dute)

*Moruak saldu dua* (Moroak saldu dit) / *Moruak saldu duai* (Moroek saldu didate)

- Datiboa. *-ri* morfema erantsiz burutzen da, baina singularrean kontsonante dardarkaria galtzen du modu sistematikoan eta lexema bokal irekiaz amaitzen denean disimilatu egiten da:

*alabiai* (SAT, 128, 130), *plaziai*, *pionai* (Izag, 79)...

Pluralean, edute genitiboan eta destinatiboan gertatzen den moduan, pluraleko morfema eransterakoan disimilazioa suertatzen da. Horrela, datibo pluralaren bilakabidea ondorengo da altsasueran:

*-ak* (nominatibo pluraleko morfema) + *e* (lotur letra) + *-ri* (datiboko morfema) > *-aeri* (bokal arteko kontsonante herskaria galdu) > *-airi* (disimilazioa)

*txerriyairi*, *gizonairi*, *dianairi* (Izag, 54), *mutileiri*<sup>59</sup> (SAT, 123), *neskatileiri* (SAT, 134), *giziyeiri* (Izag, 54), *zarrairi* (Izag, 54), *ganaubeiri* (Izag, 56), *ileiri* (Izag, 77), *txumairi* (Izag, 77), *aundienairi* (SAT, 119)...

- Edute genitiboa. Kontsonante dardarkaria galtzen du kasu honetako morfemak ere egoera guztietan. Eta *-a* organikoa duten lexemek eta *-o* bokalaz bukatzen direnek disimilatu eta morfemaren bukaerako kontsonante sudurkaria baino ez dute baliatzen. Bestelako kasuetan dardarkaria galdu eta, kasuan kasu, kontsonante epentetikoak erabiltzen dituzte, bokal elkarketan atalean esan bezala:

*ama(a)n* (amaren), *alabian*, *astuan*, *launa(a)n* (lagunaren), *semian* (semearen), *anrrian* (andreakaren), *Jangeikuan gerriku* (Izag, 70), *kamionan* (Izag, 56), *Jesukriston* (Izag, 77), *mendiyan*, *munduban*, *gizonan*...

Datiboaren kasuan esandakoa baliatuz, ondorengo bilakabidea izaten dute kasu honetako pluraleko burutzapenek:

*-ak + e + -ren* > *-aeren* > *-aeren* > *-aen* > *-ain*

*txerriyein*<sup>60</sup>, *gizonain*, *umiain*, *lagunain* (SAT, 122), *erregiain* (SAT, 128), *ganau-bein* (Izag, 62), *frailiein* (Izag, 91), *astuein*, *semiein*, *mendiyein*, *mundubein*, *kamionain*, *ebein* (haien, Izag, 93) (SAT, 127)...

Bestalde, pertsona izenordaina kasu honetan burutzen denean, lehenik kontsonante dardarkaria galdu eta ondoren bokal murrizketa jasaten du:

*Fain dia zu*<sup>61</sup> *launan erria* (Joan dira zure lagunaren herrira)

59. Disimilazioaz gain, asimilazioa ere jasan du burutzapen honek.

60. Kasu honetan ere bokal asimilazioa gertatu da.

61. Ondorengo izan da burutzapen honen bilakabidea: *zure* > *zue* > *zuu* > *zu*.

*Eta eman zegubein gu aitai ta amai* (Izag, 63) (Eta eman ziguten gure aitari eta amari)

*... eta gu amak ein zeen mi gaiztuek ixiltzeko ...* (Izag, 63) (... eta gure amak egin zuen mihi gaiztoak ixiltzeko ...)

*Ne anrriai gertau zizaiyon* ('Nere' andreari gertatu zitzaion)

- Destinatiboa. Aurreko bi kasuek bezalako bilakaera erakusten du kasu honek, singularrean kontsonante dardarkariaren galera eta, pluralean disimilazioa:

*bakiandako* (Izag, 62), *amandako*, *launandako*, *Ama Berjiniandako* (Izag, 91), *gutako* (Izag, 78)...

*izeraindako* (SAT, 122), *burukoaindako* (SAT, 122), *danoindako* (SAT, 123), *umieindako* (Izag, 78), *ebeindako* (haiendako, Izag, 58), *animeliyeindako* (Izag, 72-73), *lounaindako*, *kamionaindako*, *semiaindako*, *ganaubeindako*, *astueindako*...

- Ablatiboa. Altsasun baliatzen den morfema *-ti* da, zalantzarik gabe, eta hauxe erabiltzen da, era berean, Sakana osoan. Zuazok (1995, 327) bazterhizkeretako ("bizk. eremuko batzuetan, behialako Arabakoan, Goierriko gip., zub., erron ...") ezaugarria dela dio. Altsasukoan eta Sakana erdialdekoetan, ablatiboan ez ezik motibatiboan, zenbait postposiziotan eta moduzko aditzondo baten (*zuti*) kasuan gutxienez ere, morfema bera erabiltzen da:

*gartzelati* (SAT, 118), *Beasaindi* (SAT, 118), *adineti* (SAT, 119), *zengaiti* (SAT, 119), *orregaiti* (SAT, 119), *gaineti* (SAT, 130), *azpiti* (SAT, 130), *andi* (SAT, 118), *nundi*, *guzitati* (Izag, 56), *Donostiyati* (Izag, 56), *Pamplonati* (Izag, 56), *Alsasuti* (Izag, 92), *Olaztiti* (Izag, 92), *Estellati* (Izag, 92), *Lunbierdi* (Izag, 92), *Sangesati* (Izag, 92), *Tudelati* (Izag, 92), *Araiyati* (Izag, 91), *Brinkolati* (Izag, 91), *baserriti* (Izag, 55), *bertati* (Izag, 56), *andi* (Izag, 61), *arainaun-etziti* (Izag, 51), *zuti* (Izag, 85), *mezati* (Izag, 86), *elizeti* (Izag, 86)...

Eta ablatibo zaharraren, *-rik*, aztarna ere agertzen zaigu, behin gutxienez, Izagirreraren lanean (1967, 54): *... etxeik etxe ibiltzen da Parrokuo zarrairi puru ematen*. (... etxerik etxe ibiltzen da Parrokoa zaharrei puroa ematen).

- Prolatiboa. Nafarroako hizkeretako ezaugarria, *-tako*, baliatzen du kasu honetan altsasuerak, eta hauxe Sakana osoan modu berean egiten da:

*semetako*, *maikutako*, *txikitxotako* (Izag, 58), *txikitako* (Izag, 58), *señaletako* (Izag, 72), *sorginatako*, *bendutako* (Izag, 89), *afaitako* (Izag, 89), *satarretako* (Izag, 71)...

• Adlatiboa. Kasu honetako morfemak era sistematikoan galtzen du kontsonante dardarkaria. Eta hau gertatu ondoren, gure informatzaileen arabera, *-e* eta *-u* bokalez amaituriko lexemen kasuan, disimilazioa suertatzen da. Izagirrek ez zituen aipatu disimilazio hauek jaso, eta dardarkariaren galera ere ez beti:

*etxia* (etxera), *kalia* (kalera), *sorua* (sorora), *basua* (basora), *atzia* (atzera, SAT, 131), *batia* (batera, SAT, 133), *lania* (lanera, SAT, 133), *gartzelaa* (kartzelara, SAT, 118), *bertaa* (Izag, 56), *basoa* (Izag, 62), *soraa* (Izag, 62), *Donostira* (Izag, 62), *txabola* (Izag, 64), *onea* (onera, Izag, 63), *ganabarara* (Izag, 69), *nora* (Izag, 75), *galzelaa* (kartzelara, Izag, 86), *Oñatia* (Izag, 86), *Etxarria* (Izag, 89)...

Hurbiltze adlatiboaren kasuan, adizlagunetan, *-(r)utz* morfema erabiltzen da Altsasun Sakana osoan bezala. Eta bestela ez da erabiltzen *-runtz* morfema, *aldia* (aldera) postposizioa baizik:

*arutz* (SAT, 130), *arutza* (Izag, 59) (SAT, 129), *onutz* (SAT, 130), *onutza* (SAT, 118)...

*Mendi aldia fan tuk* (Mendi aldera joan dituk)

Bestalde, adlatibo bukatuzkoaren morfema *-aindo*<sup>62</sup> da Altsasun, Burunda guztian gertatzen den moduan:

*Santanderraindo* (SAT, 118), *guaindo* ('oraino', SAT, 132), *Araiyaindo* (Araiaraino, Izag, 91), *Oñatiaindo* (Izag, 91), *Uberteaindo* (Izag, 89), *onutzaindo* (Izag, 91), *basuaindo*, *etxiaindo*... baina *Uberteaino* (Izag, 89) eta *Uerte Arakileaino* (Izag, 89).

• Soziatiboa. Ez da Altsasun kasu hau burutzen Sakana erdialdean (behin Etxarriraz gero, sudurkaririk gabeko morfema, *-ki*, erabiltzen da nagusiki) bezala, kontsonante sudurkaria baitarama bukaeran hemengo morfemak, *-kin*. Bakaikuko hizkeran ere horrela, Altsasuko modura, jaso genituen guk burutzapen guztiak:

*batzakin* (SAT, 117), *danporikin* (SAT, 122), *soinubakin* (SAT, 122), *danbolinakin* (SAT, 122), *musikekin* (SAT, 122), *gantxillukin* (SAT, 122), *kafikin* (SAT, 123), *makinakin* (SAT, 127), *ardatzakin* (SAT, 127), *remeyoakin* (SAT, 128), *mandatubakin* (SAT, 128), *sonbrerukin* (SAT, 128), *bastonakin* (SAT, 128), *kolgantiakin* (SAT, 128), *zaldiakin* (SAT, 129), *arrekin* (SAT, 130) (Izag, 59), *kutxilloatekin* (SAT, 131), *sardiekin* (Izag, 57), *oilukin* (Izag, 59), *batekin* (Izag, 59), *pixketxutekin* (Izag, 61), *inbiyarrekin* (Izag, 63), *berakin* (Izag, 65), *oinezturakin* (Izag, 86), *jostaiyekin* (Izag, 86), *zazpi santukin* (Izag, 88), *aikin* (Izag, 89)...

62. Kontsonante sudurkariak aztertzerakoan, *nd* kontsonante taldearen berri ematerakoan aipatu ditugu horrelako burutzapenak.

• Inesiboa. Bokal elkarketak azaltzerakoan, lexema ezberdinen kasuak aipatu eta aztertu ditugu, nolako burutzapenak suertatzen diren deklinabideko kasuetan azalduz, horien artean inesiboa. Hala ere, beste ondorengo burutzapenek ere inesiboa nola erabiltzen den Altsasun erakusten digute eta ez dute beste aipamen berezirik merezi:

*Panplonan* (Izag, 88), *karrotan* (Izag, 88), *atariyan* (Izag, 88), *subartan* (su hartan, Izag, 88), *ondun* (Izag, 88), *an* (Izag, 89), *sutan*<sup>63</sup> (Izag, 89), *bijiliyan* (Izag, 89), *erdiyan* (Izag, 89), *trenien* (Izag, 89), *errekan* (Izag, 89), *plazan* (Izag, 89), *or atze-kalde ortan* (Izag, 90), *gainin* (Izag, 90), *kanpuan* (SAT, 117), *Santanderren* (SAT, 118), *etxin*<sup>64</sup> (SAT, 119), *biajin* (SAT, 131)...

Izen bizidunekin, aldiz, ez da *norengan* galdetzailea baliatzen altsasueran, eta Bakaikun eta Sakana erdialde guztian bezala *no(re)n baitan* da erabiltzen dena, eta erantzuteko ere honen kidekoak erabiltzen dira:

*ama(a)n baitan*, *semian baitan* (sing) / *semia(n) baitan* (pl), *ne(e) baitan*, *launa(a)n baitan*...

• Instrumentala. Ohiko morfema, *-(e)z*, da Altsasun erabiltzen dena kasu honetan, Sakana erdialdean eta nafarreran *-(e)s*<sup>65</sup> baliatzen den bitartean:

*irrintziz* (Izag, 56), *errukiz* (Izag, 60), *oinez* (Izag, 62), *lagundubez* (Izag, 63), *inbiyez* (Izag, 63), *garraaxiz* (Izag, 65), *eskuz* (Izag, 73), *bideberriz* (Izag, 91), *euskeraz* (SAT, 119), *erdeaz* (SAT, 119), *inez keoz* (SAT, 119), *ustez* (SAT, 130), *momotxorroz* (SAT, 133)...

• Partitiboa. Bi modutan burutzen dira altsasueran partitiboak, ohikoan *-(r)ik* morfema baliatuz, eta morfema hau *-an (-en)* protesiarekin ere bai:

*arrantzik* (Izag, 52), *zementoik* (Izag, 54), *fundiziyoik* (Izag, 54), *diruik* (Izag, 56), *ganauberrik* (Izag, 76)...

*oileskoiken* (Izag, 58), *basoberriken* (Izag, 76), *bezelakoiken*, *arropaiken*...

• Ia deklinabideko kasu guztiak aztertu ondoren, hona hemen deklinabide osoa baliatuz nola burutzen diren altsasueran ondorengo izen arruntak, bata biziduna (*ume*) eta bestea bizigabea (*baso*):

63. Mugagabeen ageri zaitzazu kasu honetan.

64. Bokal elkarketak azaltzerakoan aztertu dugu bilakabide hau: *etxean* > *etxian* (disimilazioa) > *etxiin* (V1V2 > V1V1) > *etxin* (V1V1 > V1).

65. Erabat sistematikoa da Etxarri Aranaztik ekialdera, nafarrera eta ekialdeko nafarreran bezala: *oñes*, *etxes*, *etxe*, *ustes*, *inbiyes*, *irrintzis*...

	Singularra	Plurala	Singularra	Plurala
Nor	<i>umia</i>	<i>umiak</i>	<i>basua</i>	<i>basuak</i>
Nork	<i>umiak</i>	<i>umiak</i>	<i>basuak</i>	<i>basuak</i>
Nori	<i>umiai</i>	<i>umiairi</i>	<i>basuai</i>	<i>basuairi</i>
Noren	<i>umian</i>	<i>umiain</i>	<i>basuan</i>	<i>basuain</i>
Norentzat	<i>umiandako</i>	<i>umiaindako</i>	<i>basuandako</i>	<i>basuaindako</i>
Norengatik	<i>umiangati</i>	<i>umiaingati</i>	<i>basuangati</i>	<i>basuaingati</i>
Norekin	<i>umiakin</i>	<i>umiaikin</i>	<i>basuakin</i>	<i>basuaikin</i>
Nortzat	<i>umetako (mgg)</i>	-	<i>basotako (mgg)</i>	-
Zerik	<i>umeik</i>	-	<i>basoik</i>	-
Zerez	<i>umez</i>	<i>umez</i>	<i>basoz</i>	<i>basoz</i>
Non	<i>umian baitan</i>	<i>umiain baitan</i>	<i>basuan</i>	<i>basotan</i>
Nongo	<i>umian baitako</i>	<i>umiain baitako</i>	<i>basoko</i>	<i>basotako</i>
Nondik	<i>umiangandi</i>	<i>umiaingandi</i>	<i>basoti</i>	<i>basotati</i>
Nora	<i>umiangana</i>	<i>umiaingana</i> <sup>66</sup>	<i>basua</i>	<i>basota(a)</i>

## 3.2. Izenordainak eta erakusleak

Ez ditugu hemen izenordain guztiak bata bestearen atzetik aztertuko, ezta gutxiago ere. Soilik aipagarriak iruditu zaizkigunak azalduko ditugu eta gauraz bera egingo dugu erakusleekin ere.

- Forma intentsiboak behin baino gehiagotan ageri dira Izagirreran lanean, eta horietako zenbait aipatuak ditugu bokalismoaren atalean, dip-tongoen txandaketak aztertzerakoan:

*nauri* (neuri, Izag, 56, 64) (SAT, 134), *gaure* (geure, Izag, 58, 72) (SAT, 130), *gaurok* (geu(ro)k, Izag, 64), *eure* (heure, Izag, 69), *naure* (nire, Izag, 69, 76), *nau-rekisa* (nire gisa, Izag, 75)...

66. SATen (128) horrela dator jasorik kasu hau izen bi-zidunekin: *erregiaingana*.



- Hirugarren graduko erakusle intentsiboak *-b*-dunak dira altsasueran<sup>67</sup>:

*ebein* (euren, SAT, 127) (Izag, 93), *ebek* (eurek, SAT, 130), *ebeindako* (euren-dako, Izag, 58), *ebeik* / *ebaik* (Zuazo, 328)...

- Hirugarren graduko erakusle arruntak, deklinatzerakoan, dardarkari anitza baliatzen du altsasuerak Sakana osoko eta Nafarroako hizkera gehien modura. Izagirrek, hala ere, ez ditu beti horrela burutzen:

*arrek* (SAT, 127, 129, 131) (Izag, 58), *arrekin* (SAT, 128), *arren* (SAT, 128), *arri* (SAT, 128), *garbiyarri* (garbi hari, Izag, 91), *samarrarri* (samar hari, Izag, 91), *ederrarri* (eder hari, Izag, 91), *garbiyarrek* (garbi hark, Izag, 91)... baina *arek* (Izag, 65), *ari* (Izag, 65).

- Erakusleak, bestalde, Sakana osoan ohikoa den moduan, era enklitikoan, hau da, determinatzen duten izena edo izenondoari itsatsita, ageri dira altsasueran ere:

*samarrarri* (samar hari, Izag, 91), *garbiyarrek* (garbi hark, Izag, 91), *bestiorrek* (beste horrek, Izag, 91), *zeroiyek* (zera horiek, Izag, 92), *prozesiuoi* (prozesio hori, Izag, 92), *bidiortan* (bide horretan, Izag, 92), *amalabaik* (Izag, 88), *dannnaik* (Izag, 88), *zuriyura* (Izag, 89), *mantuarrekin* (SAT, 128), *emakumioiri* (SAT, 130)...

### 3.3. Zenbatzaileak

- Zenbatzaile zehaztuak. Fonetismo zenbait gorabehera, ohikoak ditugu Altsasuko hizkeran erabiltzen diren zenbatzaileak. Izagirrek (85-86) ere horrela jaso zituen:

*Bat, bi, iru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bederatz*<sup>68</sup>, *amar, hamaika, amabi, amairu, amalau, amabost, amasei, amazapi, emezortzi, emeretzi, ogei, oitat*<sup>69</sup>, *oitabi, oitiru, oitalau, oitabost, oitasei, oitazapi, oitazortzi, oitabederatzi, oitamar, oitamaika, oitamabi, oitamairu, oitamalau, oitamabost, oitamasei, oitamazapi, oitamezortzi, oitameretzi, berrogei, berrogeitat*<sup>70</sup> (...); *irurogei, irurogeitat* (...); *laroge*<sup>71</sup>, *larogeitat* (...); *egun, berraun*<sup>72</sup>, *iruraun*<sup>73</sup>, *lauraun, bostaun, seiraun*<sup>74</sup>, *zazpiraun, zortziraun, bederatziraun, mila*.

Ikusi dugunez, *bat* zenbatzailea modu enklitikoan burutzen da determinatzen duen izena edo izenondoa bokal irekiaz bukatzen bada eta gauza bera gertatzen da *batzuk* zenbatzaile zehaztugabearekin:

*oitat, berrogeitat, txuleтана* (txuleta bana, Izag, 61), *besta(a)tzuk* (Izag, 61)...

67. Bakaikun ere (2002, 286) forma hauexek jaso genituen: *ebeik, ebeiri, ebein, ebeikin, ebeindako, ebeingaiti, ebein baitan, ebeingana, ebeiz*.

68. Bakaikun eta Sakana osoan burutzapen sinkopatua, *bedratzi*, jaso dugu guk.

69. Bi kontsonante herskariak, /g/ eta /b/, galdu egin dira.

70. Parentesi artean esaten du Izagirrek horrelaxe jarraitzen duela.

71. Horrelaxe, jatorrizko diptongoa monoptongaturik.

72. Diptongo txandaketa, *eu > au*, buruturik.

73. Bakaikun *iru aldiz egun* parafrasia darabilte eta Etxarri Aranaztik ekialdera *biteñaun* (bietan ehun) bezalakoak.

74. Burutzapen honetan eta humengoetan analogiaz kontsonante dardarkaria txertaturik ageri da.

- Zenbatzaile zehaztugabe zenbait. Lehentxeago aipatu dugun *batzuk* zenbatzaileaz gain Sakanako eremu osoan ezagunak ditugu altsasueran erabiltzen direnak:

*franko* (Izag, 62, 92), *asko*, *izugarri*, *hainbeste*, *makina bat*, *gogoti*, *ubari*, *naiko* (Izag, 80), *gutxi* (Izag, 66)...

Lehenaren kasuan izenaren aurretik eta atzetik jaso diogu Izagirreri eta bigarrena, ohikoa ez den bezala, izenaren aurretik ere jaso diogu:

*umedadi franko ailetzen zaiyon* (62)

*Fan ginden emeti franko jende ...* (92)

..., *Galbaiyu aiyetan dana*, *asko gauza*, *danak*; ... (52)

- Zenbatzaile orokorrak. Lehena, *dana*, aipatua dugu bokalismoaren atalean eta beste biak ere horrela ageri dira Izagirreren lanean:

*dannak ikusita geo* (Izag, 89)

*Musuba garbitu errekan danok eta ...* (Izag, 89)

*Ta pozik gurdi dana erre bee gelditutzen zanin* (Izag, 74)

*galtzarpe guziya*, *ganbela guziya* (Izag, 63)

*ila guziya* (Izag, 67)

*eta ososu bielduko duala* (Izag, 61)

### 3.4. -on erdal maileguak

Hartu bezala burutzen da *-on* mailegu berri hau, Sakana osoan eta Nafarroako hizkeretan<sup>75</sup>, orokorrean, egiten den moduan.

*kajona* (Izag, 63), *kamiona* (Izag, 56), *montona*, *piona* (Izag, 79), *sagona*, *kañona* (SAT, 119), *frontona*, *balona*, *balkona*, *akordiona*, *fanfarrona*, *koltxona*, *leona*, *limona*, *marrona*...

Mailegu zaharragoetan aldiz, *-on* > *-oi* izan da gertaturiko bilakabidea:

*arrazoi*, *arratoi*, *mato(i)*, *sasoi*, *sermoi* (SAT, 118)...

75. Koldo Mitxelena (1997, 143) esan zuen aspaldi onartzen zela *-on* inongo al-daketarik gabe goi-nafarrean eta adibidea ere aipatzen du, *kañonak*, Espoz y Minak 1835ean erabilia Le-karozen eta Jose Maria Iri-barrenen *Historias y costum-bres* liburuan jaso.

Bestalde, gaztelaniaz *-ción* bukaera duten burutzapenak *-ziyo* bihurtzen dira altsasueran eta Sakana osoan:

*arraziyo, deboziyo, maldiziyo, afiziyo, relijiyo, prezosiyo* (Izag, 88), *eskursiyoa* (Izag, 92)...

### 3.5. Aditzondoak

Mota guztietako aditzondo edo adberbioak baliatzen dituzte altsasueran (denborazkoak, lekuzkoak, maila edo iritzia adierazten dutenak eta moduzkoak), eta, azken horiek direnez aipagarrienak, bereziki jasoko ditugu ondorengo lerrootan.

- Orokorrean, Sakana osoan erabiltzen dira aditzondo berberak:

*etxidamu* (Izag, 61), *ereinun* (Izag, 60), *arainaun* (Izag, 51), *arainun-etziti* (Izag, 51), *atzo(re)* (Izag, 53), *guai* (orain, SAT, 122), *onutz* (SAT, 130), *arutz* (SAT, 130), *irrutu* (Izag, 68), *erabat, sobrare* (Izag, 88), *obenien* (hoberenean, agian, Izag, 73), *majo*<sup>76</sup> (Izag, 89)...

- Moduzko aditzondoak. Etxarri Aranaztik ekialdera *-ki/-gi* atzizkia erabiltzen den moduan, Altsasun eta Burunda<sup>77</sup> osoan *-to/-do* da baliatzen dena eta ezaugarri honek mendebaldera begira jartzen du:

*obetoo* (Izag, 51) (hobetoago), *obetogo* (Izag, 77), *ondo...* baina *gaizki* (Izag, 63)

Bestalde, moduzko aditzondoak sortzeko erabiltzen den *-ka* atzizkiak konsonante hortzobietako sudurkari ahostunaren protesia jasotzen du altsasueran eta Sakana osoko hizkeretan:

*arrastakan, arrikan, beirekan* (Izag, 54), *azterrikan* (Izag, 54), *inbuluskan* (Izag, 67), *nagitiekan* (Izag, 75), *ozkakan, furrutakan, banakan* (Izag, 90), *bueltakan* (Izag, 61)...

Eta moduzko aditzondoekin bukatzeko, aipatuko dugu horietako zenbait, lexema errepikaturik doanean, nominatibo edo absolutibo singularrean doazela:

*ixil-ixila* (SAT, 130), *zuri-zuriya* (Izag, 56), *geldi-geldiya* (Izag, 64), *garbi-garbiya* (Izag, 76)...

76. ... eta maaajo afaldu genduben trenin ... jaso zuen Izagirek.

77. Bakaikun *ondo, obeto* eta *polito* jaso genituen.

### 3.6. -di eta -tai (-tegi) atzizkiak

Sakana erdialdeko burutzapenetatik alde egiten du Altsasuko hizkerak zuhaitz edo landare multzoak adierazteko erabiltzen duen atzizkiarekin. Sakana erdialdean<sup>78</sup> *-dei* (-degi) atzizkia baliatzen den bitartean, altsasueran eta burunderan, erdialdeko hizkeretan gertatzen den moduan, *-di* / *-ti* erabiltzen da:

*gaztainadiya* (Izag, 64), *intxordiya* (Izag, 67), *irediya* (Izag, 68), *lizerdi* (Izag, 73), *masdiyak* (Izag, 74), *sasidiya* (Izag, 80), *Amezti* (NTM IX, 33), *Inchostia* (NTM IX, 45), *Otadia* (NTM IX, 53), *Lasta(di)* (NTM IX, 48), *Martinsagasti* (NTM IX, 50), *Sagardiko* (NTM IX, 54), *Chunkadi* (NTM IX, 59)...

Bestalde lekua adierazteko erabiltzen den atzikia *-tai* / *-dai*<sup>79</sup> da Altsasuko hizkeran eta Burundan, eta berriz ere *-dei* Sakana erdialdean:

*artaiya* (Izag, 52), *bizartaiyan* (Izag, 57), *erlataiya* (Izag, 60), *Antxumatei* (NTM IX, 33), *Buztindai* (NTM IX, 39), *Erlatai* (NTM IX, 41)... baina *lastateiyan* (Izag, 71), *Mintegi* (NTM, 51), *Nikolaslantegi* (NTM IX, 52).

### 3.7. Postposizio zenbait

Hona hemen Izagirreraren lanean ageri eta aipagarriak iruditu zaizkigun postposizio batzuk:

*Pasio* [-en \_\_\_ -z]: *Baiya eroitzen ai tuk sekurian pasioz* (Izag, 75) (Baina erortzen ari dituk lehortearen poderioz)

*Kisa* [-en \_\_\_ Ø]: *naure kisa* (Izag, 75) (Neure gisa)

*Eske* [-en \_\_\_ Ø]: ... *gilborra ero zerbaiten eske ta ...* (Izag, 64) (... gilborra edo zerbaiten eske eta ...)

*Arte* [-ak \_\_\_ -n]: ..., *etatzea gaubin amabiyak artin egun guziyen elizeteti bestea, ...* (Izag, 88) (... eta atzera gauean hamabiak artean egun guztian eliza bate-tik bestera, ...)

78. Eremu honetan ondo-rengo burutzapenak dira ohikoak: *gazteindei*, *intxordei*, *ixtordei*, *lizerdei*, *masdei*, *sasidei*...

79. Hauxe da bere bilakabidea: *-tegi* > *-tei* (herskariaren galera) > *-tai* (diptongo irekiera).

### 3.8. Konparatiboa, superlatiboa eta gehiegizko maila

- Bi elementu konparatzerakoan, goragoko maila duenari *-o(o)*<sup>80</sup> morfema eransten zaio altsasueran Sakanako hizkera gehienetan egiten den eran:

*leno* (lehenago, SAT, 130), *geiyoo* (gehiago, SAT, 128), *makurro* (makurrago, Izag, 74), *gertubo* (gertuago), *gutxiyo* (gutxiago), *gogorro* (Izag, 71), *sekuoo* (sekoago, Izag, 51), *obetoo* (hobetoago, Izag, 51), *gaiyoo* (izag, 61), *aundiyoo* (Izag, 61)...

Zenbaitetan (Sakana osoaz gain Imotz, Ultzama eta Baztanen gutxienez gertatzen da hau) morfema konparatiboari *-ko* eransten zaio, *-o(o)ko* morfema sortuz:

*lenoko* (lehenagoko, SAT, 131), *geyoko* (gehiagoko), *makurrokua* (makurragokoa), *gertuboko*, *luziokua*, *aundiyokua*...

- Superlatiboari dagokionez, Sakana osoan egiten den moduan burutzen da Altsasuko hizkeran ere, eta bilakabideak ondorengoak dira:

Lexema bokalez bukatzen bada,  $-V + -en > V(V)n$

Lexema kontsonantez bukatzen bada,  $-C + -en > Cen$

*luze(e)na*, *seko(o)na* (sekoena), *txiki(i)na* (txikiena), *gertu(u)na* (gertuena), *aulena*, *politena*...

- Gehiegizko maila adierazteko, Bakaiku eta Arbizuko bidetik jotzen du altsasuerak, eta bokal elkarketak azaltzerakoan aipaturiko fonetismoak gertatzen dira, oraingoa *-egi* morfema erantsi eta gero:

*merkiei* (merke + -egi > \*merkiegi [disimilazioa] > merkiei [herskariaren galera])

*txikiyei* (txiki + -egi > \*txikiyegi [kontsonante epentetikoa] > txikiyei [hersk.gal])

*sekuei* (seko + -egi > \*sekuegi > sekuei)

*gertubei* (gertu + -egi > \*gertubegi > gertubei)

*politei* (polit + -egi > politegi > politei)

Etxarri Aranazko hizkeran, *-gi* morfema eransten zaio lexemari: *merkegi*, *txikigi*, *sekogi*, *gertugi*, *polittegi*...

80. Ondorengo bilakabidea izan du morfema honek: *-ago* > *-ao* (herskariaren galera) > *-oo* (V1V2 > V2V2) > *-o* (V2V2 > V2).



.. 4 ..  
Aditza



1910. Upelindegia





## 4.1. Aditz laguntzailea

### 4.1.1. Indikatiboa

NOR ERA: NAIZ, HAIZ, DA... NINTZEN, HINTZEN, ZEN...

Orain	Alokutiboa	Lehen	Alokutiboa
<i>naiz</i>	<i>nauk / naun</i>	<i>nitzan</i> <sup>81</sup>	<i>nituken / nituner</i> <sup>82</sup>
<i>yaiz</i> <sup>83</sup>		<i>yitzan</i>	
<i>da</i>	<i>dok / don</i> <sup>84</sup>	<i>zan</i> <sup>85</sup>	<i>zaken / zaner</i> <sup>86</sup>
<i>gaa</i>	<i>gaituk / gaitun</i>	<i>gindan</i>	<i>ginduken / gindunen</i>
<i>zaa</i>		<i>zindan</i>	
<i>za</i> <sup>87</sup>		<i>zindein</i>	
<i>dia</i>	<i>tuk / tun</i>	<i>zian</i> <sup>88</sup>	<i>ziaken / zianen</i>

NOR-NORI ERA

Nor hura denean: zait, zaik/n, zaio... zitzaidan, zitzaian/nan, zitzaion...

81. Izagirrek (1967, 73) horrela erabili zuen aditz forma hau: "*lokatzakin zikindu nitzan*."

82. Sakanako Ahozko Tradizioa lanean, 76. orrialdean *nintzanen* jaso zioten Ageda Zelaia altsasuarrari: "... *ta aitu ninen nik erregin alabin erremeyu egiteko ta mandatubarrekin fan nintzanen ta erregian alabi sendatu zanen eta ...*"

83. Izagirrek (1967, 61) *yiz* forma erabili zuen: "*eyiz akordatzen sutan nola il genduzen Etxabarran zaku-pilak, ...*" Bestalde, autore berak (1967, 84) hemen jasotako forma erabiltzen du: "*Non yon yaiz*".

84. Horrela erabili zuen Ageda Zelaia altsasuarrak (SAT, 76): "*Erregen alabi sendatu emen don*."

85. Joxe Garasa altsasuarrak (SAT, 117) horrela erabili zuen adizki hau: "*Beia jende asko etortzen za, asko*."

86. Aurreko oharreko pertsona berak eta orrialde eta lan berebean, horrela erabili zuen: "*Gero fan zanen sorginoi, txikienoi*."

87. Izagirrek (1967, 60) horrela dakar: "*Patzeko intenziyuakin ezai sartu naure sagardia*."

88. Berriz ere Joxe Garasa altsasuarrak (SAT, 117) horrela erabili zuen aditz forma hauxe: "*Jaizki batzukin, eztaikit ze ekartzen zifion, uste ut, biño eztaiz ze ekartzen zea dan ... danak jaizki batzukin etrotzen tzian*."

Orain	Alokutiboa	Lehen	Alokutiboa
<i>zait</i>	<i>zaidak / zaidan</i>	<i>zizaiten</i>	<i>zizaiteken / zizaitenen</i>
<i>zaik / zain</i>		<i>zizaiken / zizainen</i>	
<i>ayo</i> <sup>89</sup>	<i>zayok / zayon</i>	<i>zizayon</i> <sup>90</sup>	<i>zizayoken / zizayonen</i>
<i>zaigu</i>	<i>zaiguk / zaigun</i>	<i>zizaigun</i>	<i>zizaiguken / zizaigunen</i>
<i>zaizu</i>		<i>zizaizun</i>	
<i>zaizubei</i>		<i>zizaizubein</i>	
<i>zaye</i> <sup>91</sup>	<i>zayek / zayen</i>	<i>zizayen</i>	<i>zizayeken / zizayenen</i>

Nor haiek denean: zaizkit, zaizkik/n, zaizkio... zitzaizkidan, zitzaizkian/nan...

Orain	Alokutiboa	Lehen	Alokutiboa
<i>zaizkit</i>	<i>zaizkidak / zaizkidan</i>	<i>zaizkiten</i>	<i>zaizkiteken / zaizkitenen</i>
<i>zaizkik / zaizkin</i>		<i>zaizkikek / zaizkinen</i>	
<i>zaizkiyo</i>	<i>zazkiyok / zazkiyon</i>	<i>zaizkiyon</i>	<i>zaizkiyoken / zaizkiyonen</i>
<i>zaizkigu</i>	<i>zazkiguk / zazkigun</i>	<i>zaizkigun</i>	<i>zaizkiguken / zaizkigunen</i>
<i>zaizkizu</i>		<i>zaizkizun</i>	
<i>zaizkizubei</i>		<i>zaizkizubein</i>	
<i>zaizkiye</i>	<i>zazkiyek / zazkiyen</i>	<i>zaizkiyen</i>	<i>zaizkiyeken / zaizkiyenen</i>

89. Luisa San Roman eta Ageda Zelaia altsasuarrek horrela erabili zuten (SAT, 127) adizki hau: "Abuztuan atutzen da, liyu, eta atutzen da nin liu ura, kentzen zayo azia ..."

90. Altsasu ondoko herrian, Urdiainen, Jabier Goikoe-txea Lizarragari egindako grabaketan (SAT, 94), ageri zaigu bi aldiz adizki hau: "Ama il zizaion lau urte zituela, aita il zizaion zortzi urte zituela, eta, ezeukan erriyan inior e." Izagirek ere (1967, 76) horrela erabili zuen: "San Pedro anri il zizayon da lan asko, zeinti etxe aundiya zan da, ..."

91. Izagirek (1967, 59) horrela erabili zuen: "..., oiluk kontentu oilar arrek in da bezperan e kentzen zaiye oilueiri oilar ura hurrengo egunin jateko ..."

92. Orain aldian bezala, ez du lehen silaba erabiltzen. Bai, ordea, singularreko hirugarren pertsonak.

Pertsona guztiak. Nor hirugarren pertsonak erakusten digutenaren arabera, horrela behar du izan Nor-Nori erako paradigma osoak: natzaik/n, natzaio, hatzait, hatzaio, gatzazkizu, nintzaion, zitzaigun...

Orain				Lehen							
Nor				Nori	Nor	Nori					
N	a	zai		T	N	in	zai	T (e)	N		
Y	a	zai		K-N	Y	in	zai	Ke-Ne	N		
		zai	(y)	O	Z	i	zai	(y)	O	N	
G	a	zai	zki	GU	G	in	zai	zki	GU	N	
Z	a	zai	zki	ZU	Z	in	zai	zki	ZU	N	
Z	a	zai	zki	ZUBEI	Z	in	zai	zki	ZUBEI	N	
		zai	zki	(y)	E	(*) <sup>92</sup>	zai	zki	(y)	E	N

## NOR-NORK ERA

Nor hura denean: dut, duk/n, du, dugu... nuen, huen, zuen, genuen...

Orain	Alokutiboa	Lehen	Alokutiboa
<i>dot</i>	<i>diyēt / dinet</i>	<i>nen</i>	<i>niyan / ninan</i>
<i>dok / don</i>		<i>yen</i>	
<i>dau</i>	<i>dik / din</i>	<i>zen</i>	<i>zuan<sup>93</sup> / zunan</i>
<i>daau</i>	<i>diyau / dinau<sup>94</sup></i>	<i>genduben</i>	<i>genduken / gendunen</i>
<i>dezu</i>		<i>zenduben</i>	
<i>dezubei</i>		<i>zendubein</i>	
<i>dei (dai<sup>95</sup>)</i>	<i>diyei / dinei</i>	<i>zein<sup>96</sup></i>	<i>ziyain / zinain<sup>97</sup></i>

Nor haiek denean: ditut, dituk/n, ditu, ditugu... nituen, hituen, situen, genituen...

Orain	Alokutiboa	Lehen	Alokutiboa
<i>tut</i>	<i>jitubet / jitunget<sup>98</sup></i>	<i>nituen</i>	<i>nituben<sup>99</sup> / nitunen</i>
<i>tuk / tun<sup>100</sup></i>		<i>ituen</i>	
<i>tu</i>	<i>jituk / jitun<sup>101</sup></i>	<i>zituen</i>	<i>jituben / jitunen</i>
<i>tuu<sup>102</sup></i>	<i>jitubau / jitunau</i>	<i>genduzen</i>	<i>genduzeben / genduzenen</i>
<i>tuzu</i>		<i>zenduzen</i>	
<i>tuzubei</i>		<i>zenduzein</i>	
<i>tubei<sup>103</sup></i>	<i>jitubei / jitunei</i>	<i>zitubein</i>	<i>jitubein / jitunein</i>

Gainerako pertsonak. Nor hirugarrena ez diren beste pertsona guztiak galdutzat eman ditzakegu Altsasuko euskaran eta Nor-Nori-Nork erako aditz formek ordezkatzeko dituzte gaur egun, sinkretismoa nagusitu delarik, beraz, Nor-Nork eta Nor-Nori-Nork erako burutzapen gehienek artean. Aditz forma hauek Nor-Nori-Nork era aztertzerakoan ikusiko ditugu. Hala ere, behin gutxienez, Izagirrek (1967, 73) erabili zuen Nor-nork erako aditz forma: *lubak artu nau*.

## NOR-NORI-NORK ERA.

Nor-Nork eta Nor-Nori-Nork erako adizkiak nahasirik agertzen direnekoa. Azken atalaren bukaeran genioena konfirmatzera datoz ondorengo adibideok:

93. Izagirrek (1967, 50) horrela erabili zuen: "... *tesan emen zuan, amagiyerrak esan emen zuan: ...*"

94. Horrela ageri da behin baino gehiagotan SAT-en (76. orrialdea) Ageda Zelaiaren ahoan: *Ba guai errejistra in ber dinau errota*.

95. Izagirrek (1967, 57) horrela dakar: *Bier ezkon ber dai*.

96. Izagirrek (1867, 49) horrela dakar: *Ta Eibarren ikes zein ofiziyua eta guai bi seme ...*

97. Diptongoaren itxiera buruturik ageri zaigu SAT-en (76. orrialdea): *Ta bilau zenin esan emen zinein: ...*

98. Izagirrek (1967, 57) horrela erabili zuen: *bota jitunget gaiyenak* 'he echado la mayor parte'.

99. Horrela erabili zuen Izagirrek (1967, 76) adizki hau: *Geiyo enituben nik?*

100. Adizki hau ere erabili zuen Izagirrek (1967, 75): *Urte bat ontan ee gauzak danak iyo tun, danak, ...*

101. Horrela erabili zuen Izagirrek (1967, 76) adizki hau: "... *baya onek kontubak artu iten jitung; ...*"

102. Horrela dakar Izagirrek (1967, 75) adizki hau: *mu-bertu tuu txisterraziyak ontzita-ko*.

103. Izagirrek (1967, 49) horrela erabili zuen: *Ta Eibarren ikes zein ofiziyua eta guai bi seme ... plantxak iten tubei, ...*

	Batua	Altsasu	Batua	Altsasu
	nauk / naun didak / didan	<i>duak / duan</i>	nauzu didazu	<i>duazu</i> <sup>104</sup>
	nau dit	<i>dua</i> <sup>105</sup>	naute didate	<i>duai</i>
104. Izagirrek (1967, 58) horrela dakar: "duazu, duozu (?) 'usted me lo ha'."	nauzue didazue	<i>duazubei</i>	gaitu digu	<i>geru</i> <sup>106</sup>
105. Adizki honen forma alokutiboa ondorengo bi eratan erabili zuen Izagirrek (1967, 50): "...: <i>berau, naurire pena ematen juek arropiorrek, baiya ... naurire pena ematen juak arropioi, ...</i> "	gaituzte digute	<i>gerubei</i> <sup>107</sup>	haut diat / dinat	<i>dauet / daunet</i>
	zaitut dizut	<i>dezut</i>	zaituztet dizuet	<i>dezubeit</i>
106. Izagirrek (1967, 68) horrela erabili zuen: " <i>Jangoikuk esaten duenin ireitzeko arek ireiko geru guri (nos abrirá) ataiya.</i> " Honen forma alokutiboak <i>geruk / gerun</i> dira. Bigarrena horrela erabili zuen Izagirrek (1967, 66): " <i>Jangoikuk bota berko gerun auriya goitibea.</i> "	ninduen zidan	<i>zuan</i>	ninduten zidaten	<i>zuein</i>
	gintuen zigun	<i>zegun</i>	gintuzten ziguten	<i>zegubein</i> <sup>108</sup>
	ninduan / nindunan nian / ninan	<i>nauken / naunen</i>	<i>ninduzun</i> nizun	<i>nezun</i>
107. Bere forma alokutiboak ondorengoak dira: <i>jegubei(k) / jegunei</i> . Horrela erabili zituen Izagirrek (1967, 54 eta 86): " <i>Eta gu beriz-e beireka noiz etorkote dian, gure gosiek, gure zer jaten zein beirekan: dana jain jegubeik eta gutako eztiye ezer autzi ber.</i> " " <i>Galzela sartu ber jegunei.</i> "	ninduzuen nizuen	<i>nezubein</i>	zintuzten zizuen	<i>zezubein</i> <sup>109</sup>
108. Horrela erabili zuen Martina Arizabalaga altsasuarrak (SAT, 134) adizki hau: "... <i>jaietan da, ba serenati ematen zegubein, neskatileiri.</i> "				
109. Izagirrek (1967, 58) horrela erabili zuen: " <i>Bai, me-sede in zezubein.</i> "				

Horrela beraz, berdin burutzen dira Nor-Nork eta Nor-Nori-Nork erako aditzak Altsasun:

*Libuu bat ekarri dua izekok nauri. Bere kotxian ekarri dua izekok (ni) Iruñeti.*

Pluralgileari dagokionez, *-zki-* da maizen ageri dena (*-tzi-* jaso dugu nork hirugarren pertsona denean), bai sinkretismoa agertzen duten formetan bai ondoren (nori hirugarren pertsona denean) emango ditugunen artean ikus daitekeen moduan:

*dauet / daunet* (haut, diat / dinat), *dauzkiet / dauzkinet* (dizkiat / dizkinat)

*dezubeit* (zaituztet, dizuet), *dezkiubeit* (dizkizuet)  
*dezut* (zaitut, dizut), *dezkiut* (dizkizut)  
*duak / duan* (nauk / naun, didak / didan), *duazkik / duazkin* (dizkidak / dizki-  
 dan)  
*dua* (nau, dit), *duazki* (dizkit)  
*duazu* (nauzu, didazu), *duazkizu* (dizkidazu)  
*duazubei* (nauzue, didazue), *duazkiubei* (dizkidazue)  
*duai* (naute, didate), *duazkiei* (dizkidate)  
*zuan* (ninduen, zidan), *zuazkin* (zizkidan)  
*zuein* (ninduten, zidaten), *zuzkiein* (zizkidaten)  
*zegun* (gintuen, zigun), *zezkiun* (zizkiun)  
*zegubein* (gintuzten, ziguten), *zezkiubein* (zizkiubeten)  
*nauken / naunen* (ninduan / nindunan, nian / ninan), *nauziken / nauzकिन*  
 (nizkian / nizkinan)  
*nezun* (ninduzun, nizun), *nezkiun* (nizkiun)  
*nezubein* (ninduzuen, nizuen), *nezkiubein* (nizkiubeten)

Nori hirugarren pertsona (hari, haiei) denean:

Batua	Altsasu	Batua	Altsasu
diot, diet	<i>duat</i>	dizkiot, dizkiet	<i>duazkit</i>
diok/n, diek/n	<i>duak / duan</i>	dizkiok/n, dizkiek/n	<i>duazkik / duazkin</i>
dio, die	<i>dua</i> <sup>110</sup>	dizkio, dizkie	<i>duatzi</i>
diogu, diegu	<i>duau</i> <sup>111</sup>	dizkiogu, dizkiegu	<i>duazkiu</i>
diozu, diezu	<i>duazu</i>	dizkiozu, dizkiezu	<i>duazkizu</i>
diozue, diezue	<i>duazubei</i> <sup>112</sup>	dizkiozue, dizkiezue	<i>duazkiubei</i>
diote, diete	<i>duai</i>	dizkiote, dizkiete	<i>duatziei</i>

Ikusten denez, sinkretismo ugari agertzen zaizkigu: *dua* (nau, dit, dio, die), *duak/n* (nauk/n, didak/n, diok/n, diek/n), *duazu* (nauzu, didazu, diozu, diezu), *duazubei* (nauzue, didazue, diozue, diezue), *duai* (naute, didate, diote, diete), *duazkizu* (dizkidazu, dizkiozu, dizkiezu), *duazkiubei* (dizkidazue, dizkiozue, dizkiezue).

110. Horrela erabili zuen Izagirek (1967, 59): “Egosten dua orrek astok Pernandoi.”

111. Izagirek (1967, 58) horrela erabili zuen: “Guk esain duau txuletak atatzeko, zuk ez-tezula nai oileskoiken.”

112. *duazai* forma ere erabiltzen omen zen *duazubei* formarekin batera.

Nori lehen aldiko ordainak aldiz ondorengoak ditugu eta pluralgilea, oraingoan kasu guztietan, berriz ere *-zki-*:

Batua	Altsasu	Batua	Altsasu
nion, nien	<i>nuan</i>	nizkion, nizkien	<i>nuazkian</i>
hion, hien	<i>yuan</i>	hizkion, hizkien	<i>yuazkian</i>
zion, zien	<i>zuan</i>	zizkion, zizkien	<i>zuazkian</i>
genion, genien	<i>genduan</i>	genizkion, genizkien	<i>genduzkiyen</i>
zenion, zenien	<i>zenduan</i>	zenizkion, zenizkien	<i>zenduzkiyen</i>
zenioten, zenieten	<i>zenduain</i>	zenizkioten, zenizkieten	<i>zenduzkiyein</i>
zioten, zieten	<i>zuain</i> <sup>113</sup>	zizkioten, zizkieten	<i>zuazkiain</i>

Oraingo honetan ere sinkretismo kasuak ageri dira: *zuan* (ninduen, zidan, zion, zien), *zuain* / *zuein* (ninduten, zidaten, zioten, zieten).

## 4.1.2. Baldintza

113. *zuein* adizkia ere, *ai > ei* diptongo itxiera buruturik, erabiltzen zen.

114. Izagirrek (1967, 65) horrela jaso zuen: “*Ona izen baitz etxeako izein yitzan*”.

115. Izagirrek burutzapen protesiduna darabil (1967, 79): “*Patxiyoi an yon balitza*”.

116. Izagirrek (1967, 63) horrela erabili zuen: “*Bazendei klinikan aldioko bat jendi poztu inen litzake, baya nolabait gora zazein ...*”

117. Izagirrek (1967, 61) horrela erabili zuen: “*Gu ezpágina izen demoniokei izugarriya izen ber zan au*”.

### NOR ERA

Baldintza	Ondorioa
<i>banitz(a)</i>	<i>nitzake</i>
<i>baitz(a)</i> <sup>114</sup>	<i>yitzake</i>
<i>balitz(a)</i> <sup>115</sup>	<i>litzake</i> <sup>116</sup>
<i>bagin(d)a</i> <sup>117</sup>	<i>gindake</i>
<i>bazin(d)a</i>	<i>zindake</i>
<i>bazindai</i>	<i>zindakei</i>
<i>balia</i>	<i>liake</i>

Nor-Nori eran, ez dugu aditz formarik jaso eta Izagirreren lanabesetan ere ez dugu horrelakorik aurkitu. Hala ere, pentsatzekoa da, indikatiboko lehen aldiko formen arabera, horrelako burutzapenak izan beharko genituzkeela:

Baldintza	Ondorioa	
<i>balizait</i> ( <i>zizaiten</i> formatik eratorria)	<i>oraina</i>	<i>lehena</i>
<i>balizaik</i> / <i>balizain</i>	<i>lizaiteke</i>	<i>zizaitkeen</i>
<i>balizaiyo</i>	<i>lizaiake/nake</i>	<i>zizaiakeen/nakeen</i>
<i>balizaigu</i>	<i>lizaiyoke</i>	<i>zizaiyokeen</i>
<i>balizaizu</i>	<i>lizaiguke</i>	<i>zizaigukeen</i>
<i>balizaizubei</i>	<i>lizaizuke</i>	<i>zizaizukeen</i>
<i>balizaiye</i>	<i>lizaizubeike</i>	<i>zizaizubeikeen</i>
	<i>lizaiyeke</i>	<i>zizaiyekeen</i>

#### NOR-NORK ERA

Baldintza	Ondorioa	
<i>banau</i> <sup>118</sup>	<i>oraina</i>	<i>lehena</i>
<i>ba(y)au</i>	<i>nauke</i>	<i>naukeen</i>
<i>balau</i> <sup>119</sup>	<i>(y)auke</i>	<i>(y)aukeen</i>
<i>bagendu</i>	<i>lauke</i>	<i>zaukeen</i>
<i>bazendu</i>	<i>genduke</i>	<i>gendukeen</i>
<i>bazenduei</i>	<i>zenduke</i>	<i>zendukeen</i>
<i>balei</i>	<i>zendukei</i>	<i>zendukein</i>
	<i>laukei</i>	<i>zaukein</i>

#### NOR-NORI-NORK ERA

Izagireren lanean (1967, 54) era honetako adizki bakarra aurkitu dugu guk, ondorio orainekoa bera: *Enezukesain zenbat puro dian* (Ez nizuke esaneren zenbat puro diren). Nori hirugarren pertsona denean (*hari* zein *haiei* beraz), horrela burutzen dira baldintzazko adizkiak Altsasun. Ikusten denez, indikatiboko lehen aldiko nor-nori-nork erako adizkien (*nuan, yuan, zuan...*) erro berbera darama:

Baldintza	Ondorioa			
(banio)	<i>banua</i>	<i>(nioke)</i>	<i>oraina</i>	<i>lehena</i>
(bahio)	<i>bayua</i>	<i>(hioke)</i>	<i>nuake</i>	<i>nuakeen</i>
(balio)	<i>balua</i>	<i>(lioke)</i>	<i>yuake</i>	<i>yuakeen</i>
(bagenio)	<i>bagendua</i>	<i>(genioke)</i>	<i>luake</i>	<i>zuakeen</i>
(bazenio)	<i>bazendua</i>	<i>(zenioke)</i>	<i>genduake</i>	<i>genduakeen</i>
(bazeniote)	<i>bazenduai</i>	<i>(zeniokete)</i>	<i>zenduake</i>	<i>zenduakeen</i>
(baliote)	<i>baluai</i>	<i>(liokete)</i>	<i>zenduakei</i>	<i>zenduakein</i>
			<i>laukei</i>	<i>zuakein</i>

118. Izagirek (1967, 76) horrela erabili zuen: “*Aziyuoi enen inen peligruba ikus banau.*”

119. Izagirek (1967, 60) horrela erabili zuen: “*Kotxeruk ezpalitu geatu, kotxeruk esan balau: ...*” Ikusten denez, esaldian bertan ageri zaigu objektu plurala daraman adizkia *-it-* pluralgilea eta guzti: *ezpalitu*.

### 4.1.3. Ahalera

Aditz forma gutxi dira dagoeneko erabiltzen direnak altsasueran, baina nor eta nor-nork erakoak bai erabilgarri daudela oraindik orain eta oso gutxi aldentzen dira forma estandarizatuetatik:

NOR ERA	NOR-NORK ERA
<i>naiteke</i>	<i>dezaket</i>
<i>aiteke</i>	<i>dezakek / dezaken</i>
<i>daiteke / laike</i> <sup>120</sup>	<i>dezake</i>
<i>gaitezke</i>	<i>dezakeu</i>
<i>zaitezke</i>	<i>dezakezu</i>
<i>zaitezkei</i>	<i>dezakezai</i>
<i>daitezke / laizke</i>	<i>dezakei</i>

### 4.1.4. Subjuntiboa

Ez ditugu aditz modu honetako adizki asko aurkitu. Izagirrek (1967, 59) esamolde baten barruan ematen digu horrelako bat: “*egunon Jangeikuk daigula* (diezagula).” Eta lan bereko 63. orrialdean beste hurrengoa: “*galdaiyola* (galde diezaiola) *berai* ‘que se lo pregunte a él’.” 74. orrialdean, berriz, ondorengo esaldia dakar: “*umioiyek ee guai mezako moldatu ber daiela* (daitezela)”. Hala ere, gure informanteak ondorengo formak azaldu dizkigu:

#### NOR ERA

(nadin)	<i>nayen</i>
(hadin)	<i>ayen</i>
(dadin)	<i>dayen</i>
(gaitezen)	<i>gaitezen</i>
(zaitezen)	<i>zaitezen</i>
(zaitezten)	<i>zaitezein</i>
(daitezen)	<i>daitezein</i>

120. Horrela erabili zuen Izagirrek (1967, 50): “*Ta bieje ona in genduben ta berriz e fan laike, beya irruitxo iten da, iruti.*” Berez, hau, forma hipotetikoa izango genuke, batuko ‘liteke’ adizkiaren parekoa.



## 4.1.5. Agintera

NOR ERA	NOR-NORK ERA	NOR-NORI-NORK ERA
(hadi) <i>ai</i>	(ezak/n) <i>zak</i> <sup>121</sup> / <i>zan</i>	(iezaiozu) <i>yozu</i> <sup>122</sup>
(zaitez) <i>zaitez</i>	(ezazu) (e) <i>zazu</i> <sup>123</sup>	(iezaiozue) <i>yozubei</i> <sup>124</sup>
(zaitezte) <i>zaitezei</i> <sup>125</sup>	(ezazue) <i>zazubei</i> <sup>126</sup>	
	(nazazu) <i>nazazu</i>	
	(nazazue) <i>nazazubei</i>	

Gutxi dira, ikusten denez, jaso ditugun aginterako adizkiak. Hala ere, maiz subjuntiboko adizkiak *-la* menderagailuz osaturik erabiltzen dira Sakana osoan bezala altsasueran:

*dayela* (bedi, dadila)  
*daitezeila* (bitez, daitezela)



Aita Kandido Izagire

121. Izagirrek (1967, 65) horrela dakar: “*Ta beak: esan tzak ba ona naizlea.*”

122. Autore berak (1967, 50) horrela darabil adizki hau: “... *eta eritzen zait alabi dukatela onduun arropiorrekin eta utziyozu bakin, ...*”

123. Horrelaxe erabili zuen Izagirrek (1967, 60): “*esan ezazu zenbat balio dein sagarrak eta patuko dezubei.*” Baina burutzapen aferesiduna ere erabili zuen lan bereko 55. orrialdean: “*barka zazu ‘perdone V.’.*”

124. Izagirrek (1967, 50) horrela erabili zuen: “*Ez, aruzkun eskatu genduan Santatriai, zenti emeko anratek, Maluxak esan zegun: umiak, eskau yozubei Santatriai; agindu yozubei katilu gariya ...*”

125. Horrela erabili zuen Izagirrek (1967, 80) adizki hauxe: “*sartu zaitezei barrua ‘entrad adentro’.*”

126. Izagirrek (1967, 78) horrela erabili zuen: “...: *ara, ori a naure semi, kotxiortan derubeinoinaure semi a ta erreza zazubei iyamilagru iten den Ama Berjink ...*”

127. Aditz izen eta partizioak ondorengo bilakabidea izan du Altsasuko hizkeran eta Sakanako hizkera gehienetan: *egon* > *eon* (bokal arteko kontsonante herskari belare ahostunaren erorketa) > *ion* (hasierako -e bokalaren itxiera) > *yon* (i- bokalaren kontsonantizazioa). Eta adizkietan ere, bokal arteko kontsonante herskari belare ahostuna erori egiten da, ondorengo bilakabidea osatzen duelarik: *nago* > *nao* > *noo* (V1V2 > V2V2) Etxarri Arantzen bezala.

128. Horrela erabili zuen Izagirek (1967, 76): “*Ni ondo naon (ika) emen ...*”

129. Aditz forma hau ere horrela erabili zuen autore berak (1967, 50): “*Ni binepin konforme noon ikus gendunen, bai*”.

130. Izagire (1967, 84): “*Non yoo?*”. Baina 48. orrian, aldiz, beste burutzapena erabili zuen: “*ago (espera)*”.

131. Izagirek (1967, 89) horrela erabili zuen: “*Ondo doo ori erretzen. Da: eztoo ondo, ez*”.

132. Izagire (1967, 53): “*...; eta mangioi leku gutxitan joon; ...*” Ageda Zelaia altsasuarak (SAT, 75) horrela erabili zuen: “*Erregen alabi gaizki men jon eta bajakinet zekin sendatukon.*”

133. Izagirek (1967, 89) horrela erabili zuen: “*..., San Pedro an zoon beotzen pasuarten ...*” Baina *zagon* ere jaso diogu 1967, 61): “*Sobrare zakumat sutan zagon eta andi jarri zan da ...*”

## 4.2. Zenbait aditz trinko

### YON (EGON) ADITZA<sup>127</sup>

Orain	Alokutiboa	Lehen	Alokutiboa
<i>noo</i>	<i>naok / naon</i> <sup>128</sup>	<i>noon</i> <sup>129</sup>	<i>noken / nonen</i>
<i>yoo</i> <sup>130</sup>		<i>yoon</i>	
<i>doo</i> <sup>131</sup>	<i>jook / joon</i> <sup>132</sup>	<i>zoon</i> <sup>133</sup>	<i>joken</i> <sup>134</sup> / <i>jonen</i> <sup>135</sup>
<i>gee</i> <sup>136</sup>	<i>geek / geen</i> <sup>137</sup>	<i>genden</i> <sup>138</sup>	<i>genduken / gendunen</i>
<i>zee</i>		<i>zenden</i>	
<i>zai</i> <sup>139</sup>		<i>zendein</i>	
<i>dee</i> <sup>140</sup>	<i>jeek</i> <sup>141</sup> / <i>jeen</i> <sup>142</sup>	<i>zeen</i> <sup>143</sup>	<i>jeken / jenen</i>



Ageda Zelaia Iriarte

Hauexek dira adizki hauen batuko formak:

(nago)	(nagok / nagon)	(nengoen)	(nengoan / nengonan)
(hago)		(hengoen)	
(dago)	(zagok / zagon)	(zegoen)	(zegoan / zegonan)
(gaude)	(gaudek / gauden)	(geunden)	(geundean / geundenan)
(zaude)		(zeunden)	
(zaudete)		(zeundetean)	
(daude)	(zaudek / zauden)	(zeuden)	(zeudean / zeundenan)



Polonia Iriarte Zelaia

134. *zegoban / zeguban* adizkiak ere erabili zituen Izagirrek (1867, 88-89): “*Eta nonbait kantidan San Pedro zegoban (-Atariyan da - azipak)...*” eta “*...(-Pedro zeguban atariyan da Pedro subertan berotzen; ...*”

135. Izagirrek (1967, 64) zonen erabili zuen: “*garesti zonen*”.

136. Autore berak (1967, 59) horrela erabili zuen: “*Eguldii beira gee taetzau eze-reiten*”.

137. Horrela erabili zuen Ageda Zelaia altsasuarrak (SAT, 127) adizki hau: “*Neska, emen gen danok?*”

138. Izagirre (1967, 58): “*Txikitxotako ezgenden gu, e?*”

139. Izagirrek (1967, 73) diptongoa itxirik duela erabili zuen adizki hau: “*lotsatuik ze*.”

140. Izagirrek (1967, 54) bi modu ezberdinetan erabili zuen adizki hau: “*auznar-tzen dee*”, alde batetik eta “*..., soka daen guziyeiri puru maten dae*”.

141. Izagirrek horrela dakar (1967, 73): “*Maizak sekatuik jeek*.”

142. Izagirre (1967, 53): “*...; an jeen porrubeik eta beste gaineako berdurak itxurabee*”.

143. Izagirre (1867, 89): “*Ta gu penatuik eta guondun zeen erritarrak, bi, ta: ...*”

144. Izagirrek (1967, 67) ho-  
rela dakar: “*ili moztea niyu.*”

145. Denborazko esaldia-  
ren menderagailuarekin  
ageri da Izagirrerren (1967,  
66) ondorengo pasartean:  
“*Gu txikiya(g) ginala guaita  
asaratu zan amakin eta iyēs in  
zeen, Ameriketaa ziyula bai, ...*”

146. Izagirrek (1967, 52) ho-  
rela dakar: “*arrantzaa gazi.*”

147. Berriz ere denborazko  
esaldiaren menderagailua-  
rekin ageri zaigu Izagirrerren  
(1967, 90) ondorengo pa-  
sartean: “*Ta Santatria gendu-  
zila da ola tunelan moduko este-  
estuba dana aitza, ee?*”

148. Izagirre (1967, 62) : “*zazi  
ezkerrera.*”

149. Moduzko esaldi baten  
barruan, horrela erabili  
zuen adizki hau Izagirrek  
(1967, 63): “*Bazendei klinikan  
aldioko bat jendi poztu inen li-  
tzake, baya nolabait gora zazein  
lan iten dezubeita, jendiak eztau  
gora diyunik ikus nai.*” Auto-  
re berak 49. orrialdean ho-  
rela dakar: “*...: zazei Eibarrea  
ofiziyu ikeste; ...*”

150. Modu sistematikoan  
erortzen da bokal arteko  
kontsonante ezpaineke  
herskari ahostuna: *nabil* >  
*nail*, *abil* > *ail*, *dabil* > *dail*..

151. Izagirrek (1967, 54) *az-  
kan dail* dakar.

152. Diptongo bigarrenka-  
ria itxirik erabili zuen Izagi-  
rrek (1967, 59): *Eguaizia zei-  
len.*”

153. Izagirrek (1967, 52) *arri-  
kan dailza* dakar.



1905. Txaroldegia

#### FAN (JOAN) ADITZA

Orain	Alokutiboa	Lehen	Alokutiboa
<i>niyu</i> <sup>144</sup>	<i>niyuk / niyun</i>	<i>niyuen</i>	<i>niyueken / niyuenen</i>
<i>ua</i>		<i>iyuan</i>	
<i>diyu</i>	<i>ji(y)uk / ji(y)un</i>	<i>ziyuen</i> <sup>145</sup>	<i>jiyueken / jiyuenen</i>
<i>gazi</i> <sup>146</sup>	<i>gazik / gazin</i>	<i>genduzen</i> <sup>147</sup>	<i>genduzeken / genduzenen</i>
<i>zazi</i> <sup>148</sup>		<i>zenduzen</i>	
<i>zazei</i> <sup>149</sup>		<i>zenduzein</i>	
<i>dazi</i>	<i>jazik / jazin</i>	<i>zazein</i>	<i>jazeiken / jazeinen</i>

#### IBILI ADITZA<sup>150</sup>

Orain	Alokutiboa	Lehen	Alokutiboa
<i>nail</i>	<i>nailek / nailen</i>	<i>niilen</i>	<i>niileken / niilenen</i>
<i>ail</i>		<i>iilen</i>	
<i>dail</i> <sup>151</sup>	<i>jailek / jailen</i>	<i>zailen</i> <sup>152</sup>	<i>jiileken / jiilenen</i>
<i>gailza</i>	<i>gailzak / gailtzan</i>	<i>gailtzen</i>	<i>gailtzeiken / gailtzenen</i>
<i>zailza</i>		<i>zailtzen</i>	
<i>zailtzai</i>		<i>zailtzein</i>	
<i>dailza</i> <sup>153</sup>	<i>jailtzak / jaitltzan</i>	<i>ziiltzen</i>	<i>jiiltzeiken / jiiltzenen</i>



Eskuinean Luisa San Roman Bengoetxea

ETORRI<sup>154</sup> ADITZA

Orain	Alokutiboa	Lehen	Alokutiboa
<i>nator</i>	<i>natorrek / natorren</i>	<i>natorren</i>	<i>natorreken / natorrenen</i>
<i>ator</i>		<i>atorren</i>	
<i>dator</i> <sup>155</sup>	<i>jatok / jaton</i> <sup>156</sup>	<i>zatorren</i>	<i>jatorreken / jatorrenen</i>
<i>gatozi</i> <sup>157</sup>	<i>gatozik / gatozin</i>	<i>gatozen</i>	<i>gatozeken / gatozenen</i>
<i>zatozi</i>		<i>zatozen</i>	
<i>zatozei</i>		<i>zatozein</i>	
<i>datozi</i>	<i>jatozik</i> <sup>158</sup> / <i>jatozin</i>	<i>zatozein</i>	<i>jatozieiken / jatozieinen</i>

## UREI (EDUKI) ADITZA

Orain	Lehen		
Nor hura denean	Nor haiek denean	Nor hura denean	Nor haiek denean
<i>dukat</i> <sup>159</sup>	<i>dukazkit</i>	<i>nukan</i>	<i>nukazkin</i>
<i>dukak / dukan</i>	<i>dukazkik / dukazkin</i>	<i>yukan</i>	<i>yukazkin</i>
<i>duka</i> <sup>160</sup>	<i>dukazki</i>	<i>zukan</i> <sup>161</sup>	<i>zukazkin</i>
<i>dukau</i>	<i>dukazkigu</i> <sup>162</sup>	<i>gendukan</i> <sup>163</sup>	<i>gendukazkin</i> <sup>164</sup>
<i>dukazu</i>	<i>dukazkizu</i>	<i>zendukan</i>	<i>zendukazkin</i>
<i>dukazubei</i>	<i>dukazkizubei</i> <sup>165</sup>	<i>zendukein</i>	<i>zendukazkiyein</i>
<i>dukei</i> <sup>166</sup>	<i>dukazkiyei</i> <sup>167</sup>	<i>zukein</i> <sup>168</sup>	<i>zukazkiye(i)n</i> <sup>169</sup>

154. Bakaikun eta Sakana erdialdean ez da erabiltzen 'etorri' aditza era sintetikoan eta honen ordeztzen 'heldu' aditza ageri da: *eldu neiz/naiz* (nator), *eldu yeiz/yaiz* (hator)...

155. Izagirrek (1967, 90) *datorren urtin* dakar. Bakaikun eta Sakana erdialdean *el duen urtien* (heldu den urtean) erabiltzen da.

156. Horrela erabili du Izagirrek (1967, 80): "*Ta guai aizkene ontan eren dotena guai jaton, ...*"

157. Izagirrek (1967, 68) horrela dakar: "*Iruñeti gatozi.*"

158. Horrela dakar Izagirrek (1967, 73): "*maizak zer moduz jatozik?*"

159. *-z + j > -zt-* fonetismoa eta guzti erabili zuen Izagirrek (1967, 62) adizki honen forma alokutiboa: "*eztxukat nik, neguako bildurrik etziukat.*"

160. Izagirrek (1967, 62) aldaketa fonetikoa buruturik erabili zuen horrela: "*eztuka fameliyaiken.*"

161. Bere forma alokutiboa Izagirrek (1967, 64) horrela erabili zuen: "*...: gazin arboliarrengana, arboliarrek jukan ostoz zabala tarbolaundiarrrengana gazin.*"

162. Izagirrek (1967, 49) horrela erabili zuen: "... eta nai deenak egosi etxien dukazkiau gutanok." *Jukazkiyau / jukazkinau* adizki honen bi forma alokutiboak erabili zituen Izagirrek hurrenez hurren ondoren aipatutako lan eta orrialdeetan (1967, 70 eta 55): "*jukazkiyau* (ika) 'los tenemos'." "*batza eskasak jukazkinau*." Bigarren adizkia lan bereko 68. orrialdean horrela dator: "*Baya urtik jukazkinau guai...*"

163 Izagirrek (1967, 73) horrela dakar: "...; animeliyeindako suerte eskasa gendukan eta eskatzea ...". Eta bere forma alokutiboa horrela erabili zuen autore berak 80. orrialdean: "*Porrubarek ezin inderrik artzen eta aurten gendukanen batzan patatia franko ereinik ...*"

164 *gendukazkiela* forma erabili zuen Izagirrek (1967, 58): "*Gaure burubak ezgendukazkiela txikitako*." Autore berak, 48. orrialdean, baldinkeran erabili zuen adizki hauxe: "*ai sagar gozuoiyek, bagendukazki sagaroiyek*."

165 Izagirrek (1967, 55) *baulkazkizubei, ee?* '¿los tenéis, verdad?' dakar.

166 Horrela jaso diogu Izagirrerri (1967, 49): "..., 'fábrica de planchas' *dukei eta butano eta kazauk ...*"

167 Adizki honen forma alokutiboa, gaizki jasoa seguru asko (*jukazkinaierri* ageri da eta gure ustean *jukazkinei* beharoko litzateke), autoreak berak (sic) marka erabili baitzuen bere ondoan, horrela ageri da Izagirrerren (1967, 53) lanean: "*Gualdekuk jukazkinaierri* (sic) *porrubak onnak; ...*"



Polonia Iriarte

## JAKIN ADITZA

Orain		Lehen	
Nor hura denean	Nor haiek denean	Nor hura denean	Nor haiek denean
<i>dakit</i> <sup>170</sup>	<i>dakizkit</i>	<i>nakiyen</i>	<i>nakizkiyen</i>
<i>dakik / dakin</i>	<i>dakizkik / dakizkin</i>	<i>yakiyen</i>	<i>yakizkiyen</i>
<i>daki</i> <sup>171</sup>	<i>dakizki</i>	<i>zakiyen</i> <sup>172</sup>	<i>zakizkiyen</i>
<i>dakiau</i> <sup>173</sup>	<i>dakizki(a)u</i>	<i>gendekien</i>	<i>gendekizkien</i>
<i>dakizu</i>	<i>dakizkizu</i>	<i>zendekien</i>	<i>zendekizkien</i>
<i>dakizubei</i>	<i>dakizkizubei</i>	<i>zendekiyein</i>	<i>zendekizkiyein</i>
<i>dakiei</i>	<i>dakizkiyei</i>	<i>zakiyein</i> <sup>174</sup>	<i>zekizkiyein</i>

## YAN (EROAN) ADITZA

Orain		Lehen	
Nor-nork era.			
Nor hura denean	Nor haiek denean	Nor hura denean	Nor haiek denean
<i>derut</i>	<i>deruzkit</i>	<i>nerun</i>	<i>nerutzien</i>
<i>deruk / derun</i>	<i>deruzkik / deruzkin</i>	<i>erun</i>	<i>erutzien</i>
<i>deru</i>	<i>deruzki</i>	<i>zerun</i>	<i>zerutzien</i> <sup>175</sup>
<i>deruau</i>	<i>deruzkiu</i>	<i>generun</i>	<i>generutzien</i>
<i>deruzu</i>	<i>deruzkizu</i>	<i>zenerun</i>	<i>zenerutzien</i>
<i>deruzubei</i>	<i>deruzkizubei</i>	<i>zenerubein</i>	<i>zenerutzibein</i>
<i>deru(b)ei</i>	<i>deruzkibein</i>	<i>zerubein</i>	<i>zerutzibein</i>

## EKARRI ADITZA

Orain		Lehen	
Nor-nork era.			
Nor hura denean	Nor haiek denean	Nor hura denean	Nor haiek denean
<i>dekat</i>	<i>dekazkit</i>	<i>nekan</i>	<i>nekazkin</i>
<i>dekak / dekan</i>	<i>dekazkik / dekazkin</i>	<i>yekan</i>	<i>yekazkin</i>
<i>deka</i>	<i>dekazki</i>	<i>zekan</i> <sup>176</sup>	<i>zekazkin</i>
<i>dekau</i>	<i>dekazkigu</i>	<i>gendekan</i>	<i>gendekazkin</i>
<i>dekazu</i>	<i>dekazkizu</i>	<i>zendekan</i>	<i>zendekazkin</i>
<i>dekazubei</i>	<i>dekazkizubei</i>	<i>zendekiyein</i>	<i>zendekizkiyein</i>
<i>dekai</i>	<i>dekazkiai</i>	<i>zekain</i>	<i>zekazkiain</i>

168 Horrela erabili zuen Izagirrek (1967, 86): “Danok barrek eta elizeti ata zuen jendiek etzukein zine berrik.”

169 Izagirrek (1967, 72) horrela erabili zuen: “Len etzoon ba gualko trilladoraik eta in ber zan ganauz eta biyorrakiin zukazkiye-nak biyorrak; ...”

170 Lehenago aipatu fone-tismo bera (-z + j- > -tx-) ageri zaigu Izagirreran (1967, 55) lanean: “Ikus niken suiya taetxekiat besti zan Jose, ie semi.” Ageda Zelaia altsasuarrak (SAT, 128) horrela erabili zuen adizki honen forma alokutiboa: “... eta bajakinet zekin sendatukon.”

171 Jakik forma alokutiboa erabili zuen Izagirrek (1967, 55): “bajakik (ika) eskuez ee.”

172 Horrela erabili zuen Izagirrek (1967, 84) aditz forma hau: “ondo zakiyen me-zia kantatzen, nipezelaxe.”

173 Horrela dakar Izagirrek (1967, 51): “Aizimaten zeen; guai eztukau gariya garbitzeko eta eztakiau guai; ...”

174 Izagirrek (1967, 51) horrela erabili zuen: “Eta bazkaitan asi gindan da etzakkiyein nola eskatu ardua, ...”

175 Izagirrek (1967, 68) horrela erabili zuen: “Iru egun itz bee bazerutzien da guai medikuba ikusta itza etor zaiyo.”

176 Izagirrek (1967, 89) zakarren erabili zuen ondo-rengo pasartean: *Ta auri pixkat zakarren da kendu genduzen zerak, ezpartinak eta galtzak ...*

### 4.3. Altsasuko aditzaren ezaugarriak

Asko dira Burundako aditzak, Altsasukoak ere bai orduan, erakusten dituen berezitasunak, bertakoak horietako batzuk, eta baita euskalki eremu ezberdinetako burutzapenak gogoratzen dituztenak ere. Hona hemen, jarraian, jasotakoak.

- Pluralgileak. Pluralgile ezberdinak erabiltzen dira altsasuerako aditzetan eta, gehienetan, aditz eraren araberakoak dira, baina zenbaitetan nahasirik ageri zaizkigu bi pluralgile aditz era berean:

Aditz laguntzaileari dagokionez,  $NN_1$  eta  $NN_1N_k$  erako adizkietan, ia kasu guztietan, *-zki-* pluralgilea erabiltzen da. Dena dela,  $NN_1N_k$  erako zenbait kasutan, *nori* hirugarren pertsona denean, *-tzi*<sup>177</sup> pluralgilea jaso dugu guk:

*zaizkiyo*, *zaizkizubei* (zaizkizue), *zaizkiyen* (zitzaizkien), *duazkit* (dizkiot, dizkiet), *duazkizubei* (dizkiozue, dizkiezue)... baina *duatzi* (dizkio, dizkie), *duatziei* (dizkiote, dizkiete).

$NN_k$  erako aditz laguntzaileak, ohikoa den moduan, *-it-* pluralgilea baliatzen du, orain aldiko burutzapenetan itxura aldatuz ageri bada ere aferesia dela eta. Bestalde, lehen aldiko pluraleko lehen eta bigarren pertsonetako adizkiek *-z-* dute pluralgiletzat, mendebaldeko euskalki multzoko zenbait hizkeren antzera:

*tut* (ditut), *tubei* (dituzte, Izag, 69), *nituen*, *zituen*, ... baina *genduzen* (genituen, Izag, 70, 86, 92), *zenduzen* (zenituen), *zenduzein* (zenituzten).

*Urei* (eduki) eta *Yan* (eroan) aditzen kasuan,  $NN_k$  eran jakina, egoera nahasia ageri da pluralgilearen inguruan. Lehenaren bi adizki jaso ditugu pertsona bera adierazteko: *dukazkiyei* / *dukatzie* (dauzkate). Eta bigarrenaren kasuan, aldiz, orain aldian *-zki-* eta lehen aldian *-tzi-* pluralgileak jaso ditugu: *deruzkit* (daramatzat), *nerutzien* (neramatzan).

*Etorri* eta *joan* aditzek *-zi*<sup>178</sup> pluralgilea erabiltzen dute, ekialdeko hizkeren antzera: *gatozi* (gatoz, Izag, 68), *zatozi* (zatoz), *datozi* (datoz), *zatozin* (zetozen), *gazi* (goaz), *gazin* (goazen, Izag, 69), *zazi* (zoaz), *dazi* (doaz).

- Sinkretismoa. Ugari dira, adizkiak aztertzerakoan ikusi ahal izan dugunez, aditz forma sinkretikoak altsasueran, Sakana osoko hizkeretan

177. Olaztin lehen eta Ur-diainen gaur egun ere, pluralgile hau erabiltzen dute.

178. Bakaikun ere pluralgile berbera jaso genuen: *gozi* (goaz), *zazi* (zoaz), *dozi* (doaz).



gertatzen den moduan. Eta gehienak, NN<sub>k</sub> eta NN<sub>i</sub>NN<sub>k</sub> eren nahasketa erakusten dutenak ditugu:

*dua* (nau, dit), *duai* (naute, didate), *gerubei* (gaituzte, digute), *zegubein* (gintuzten, ziguten), *zuein* (ninduten, zidaten), *nauken* / *naunen* (ninduan / nindunan, nian / ninan)...

- Pluraleko bigarren pertsonaren morfema<sup>179</sup> *-zubei* da, bai ergatiboan nola datiboan. Hirugarren pertsonaren morfemak *-(b)ei* NN<sub>k</sub> eran eta *-ai* NN<sub>i</sub>NN<sub>k</sub> eran dira:

*dezubei* (duzue, Izag, 58), *dei* (dute), *zendubein* (zenuten), *tuzubei* (dituzue), *tubei* (dituzte), *jitubei* / *jitunei* (ditiatzen / ditinatzen), *zitubein* (zituzten), *duai* (naute, didate), *zuain* (zioten, zieten), *dukazkizubei* (dauzkazue, Izag, 55), *dai* (dute, Izag, 57), *zezubein* (zizuen, Izag, 58), *(d)ukai* (daukate, (Izag, 58), *zai* (zarete, Izag, 60), *zein* (zuten, Izag, 60)...

- Altsasuko hizkeran, modu sistematikoan, partizipioaren bukaerako *-i* bokalaren sinkopa<sup>180</sup> suertatzen da eta burutzapen hauxe Sakana osoan suertatzen da eta baita hizkera nafar eta mendebaldekoen<sup>181</sup> zenbait eremutan ere:

*etor zan* (SAT, 119), *ibilko zan* (SAT, 133), *etorko zanen* (SAT, 133), *egos tut* (erosi ditut, Izag, 52), *yakus zegun* (Izag, 58), *ikus genduzen* (Izag, 86, 92), *ikus gendubenin* (Izag, 88), *ikus dot* (Izag, 89), *ikusko zenduen* (Izag, 90), *eto(r)gindan* (Izag, 91), *ibil zan* (Izag, 91), *ikuskoiyau* (Izag, 91), *yakus zeguzkiyen* (Izag, 92)...

- NN<sub>i</sub> eran beti *-zai-* moduko erroa erabiltzen du altsasuerak, ez duelarik baliatzen ondoko Sakana erdialde osoan eta baita Bakaikun eta Iturmendin lehen aldian erabiltzen den *-ki-*<sup>182</sup> erroa. Guk *-zai-* jaso dugu kasu guztietan eta Izagirrek ere horrelaxe egin zuen:

*zait* (Izag, 59, 64, 67), *zizaiten* (zitzaidan), *zaigu* (Izag, 65), *zazubei* (zaizue), *zizayen* (zitzaien), *zaiye* (Izag, 59), *zizaiyon* (Izag, 61, 76), *zizaiyon* (SAT, 94, Urdiain), *zayo* (SAT, 127), *zaiyo* (Izag, 61, 68), *zaizu* (Izag, 67)...

- NN<sub>k</sub> erako adizkien erroak nahasketa erakusten du altsasueran eta Burunda osoan, singularrean mendebaldekoa, *-o-*, eta pluralean erdialdekoa, *-e-*, baliatzen duelarik. Bestalde, objektu plurala daramanean *-u-* erroa gailentzen da kasu guztietan:

179. Sakana erdialdean *-zub(i)e* morfema erabiltzen da eta Ergoienen *-zie*.

180. Koldo Zuazok (1995, 332) Izagirreraren lanabesetik banan-banan jaso ditu ondorengo aditzen burutzapen sinkopatuak: *etorri*, *ekarri*, *ikusi*, *ikasi*, 'yakusi', 'egosi', *irabazi*, *ibili* eta 'yail'.

181. Esate baterako, Juan Bautista Gamizen olerkietan, XVIII. mendean, ondorengo burutzapenak ageri dira: *ycuzco deugu*, *icuzcodut* eta *ibilco gara*.

182. Guk *zakiten* (zitzaidan), *zakium* (zitzaiyon), *zakiyon* (zitzaiyon)... jaso genuen Bakaikun. Bestalde Sakana erdialde osoan ohikoak dira ondorengoak: *dakit* (zait), *zakiten* (zitzaidan), *daki(y)ob(i)e* (zaie)...

*dot* (dut, Izag, 72), *Ni(k) beindo geio jakin nai dok* (SAT, 130), *sendatuko on* (SAT, 128), *sendati emen don* (SAT, 128), *dezu* (Izag, 63), *dezubei* (duzue, Izag, 58), *dei* (dute, Izag, 63), *zein* (zuten, Izag, 63), *tu* (ditu, Izag, 69), *tuzu*, *tuzubei* (dituzue), *genduben* (Izag, 63), *tuun* (dugun, Izag, 63)...

•  $NN_iN_k$  erako adizkiek erabiltzen duten erroak Nafarroako eta ekialdeko euskalki multzoetako *-erau-* erroa dakarkigu gogora, honen eratorria dirudielarik *-ua* Altsasukoak. Bakaikun *-a-* soila erabiltzen da eta Etxarri Arantzen eta Ergoienen, aldiz, *-oo-*, baina guztiak erro berdinetik eratorriak dirrela dirudite. Ondorengo burutzapenak esandakoaren adibide garbia ditugu:

*duau* (diogu, Izag, 58), *duazu* (Izag, 58), *dua* (Izag, 59), *zuaken* (zidaan, Izag, 60), *zuan* (zien, Izag, 61), *duala* (Izag, 61), *duozu* (didazu, Izag, 63), *juak* (zidak, Izag, 69), *duei* (diete, Izag, 72)...

• Partizipio analogikorik ez da modu sistematikoan agertzen altsasueran. Ez zaizkigu ageri Altsasuko hizkeran ondoko Sakana erdialdean<sup>183</sup>, eta orokorrean Euskal Herriko erdialdeko hizkeretan, ohikoak diren partizipio analogikoak. Guk, Bakaikun soilik *biyeldu* jaso genuen, Izagirre-  
ren lanean *bieldu* (61), *estaldu* (61) eta *itzuldu* (76) baino ez ditugu jaso eta K. Zuazok (1995, 332), Izagirre-  
ren lanean ere, bakarra jaso du, *eroitu*. Horrela beraz, ohiko formak dira ezagunak altsasueran:

*ibili*<sup>184</sup>, *izan*, *jakin*, *yon*, *gorde*...

• Partizipioetan, *-ta*<sup>185</sup> zein *-(r)ik* morfemak ohikoak ditugu altsasueran, Burundan eta Sakana osoan. Ondorengoak Zuazok (1995, 339) jasotako arteko batzuk ditugu:

*artuta*, *asita*, *aspertuta*, *erregauta*, *fanda* (joanda), *pasauta*, *afilatuik*, *aztuik*, *ilik*, *konfesatuik*, *lokartuik* (Izag, 55), *ausiik* (Izag, 57), *sinistatuik* (Izag, 58), *lotsatuik* (Izag, 73), *moskortuik* (Izag, 74), *jaiuik* (Izag, 75), *abeastuta* / *abeastuik*, *inda* / *inik* (Izag, 67)...

• Kontsonante herskari belare ahostuna (*-gr*<sup>186</sup> bukaera beraz) ohikoagoa den ahoskabearen (*-ki* hauek) ordeztarama altsasuerak partizipioan zenbait aditzen kasuan, Sakana osoan<sup>187</sup> daraman moduan:

*ebaiyak* (< ebagiak, Izag, 58), *irei* (< iregi, Izag, 68), *urei* (< uregi < udegi < edugi, Izag, 83), *isegi*, *jagi* (Izag, 55), *kutxilloatekin ebei in zionen besu* (SAT, 131)...

183. Ohikoak ditugu Sakana erdialdean *bieldu*, *gorde-tu*, *ibildu*, *jakindu*, *yondu*, *izen-du*... eta antzeko burutzapenak.

184. Gogoratu azken bokalaren sinkopa jasaten duela maiz.

185. Zuazoren arabera (1995, 339) mendebaldeko hizkeretan nagusitu dena izango genuke hau.

186. XVII. mendearen hasierako Martin Portalen erromantzean ere badator honen antzeko burutzapena: *yregui digus*.

187. Oso erabiliak dira Sakana osoan *ebai* (ebagi), *jai* (jagi), *erabai* (erabagi), *irai* / *irei* (iregi)...

- Erabat sistematikoa ez bada ere, oso maiz gertatzen da *-atu* > *-au* bilakabidea altsasueran. Eta bilakaera hauxe mailegu berrien kasuan nola bes-telakoetan suertatzen da, ondorengo adibideotan ikusten den moduan:

*juntauta* (SAT, 122), *bajau* (SAT, 123), *trangau* (SAT, 127), *untau* (SAT, 130), *erreparau* (SAT, 131), *enterau* (SAT, 131), *bulkau* (Izag, 55), *kobrau* (Izag, 61), *faltau* (Izag, 63), *askau* (Izag, 64), *enbarkau* (Izag, 66), *goldau* (Izag, 66), *izerrautu* (Izag, 69), *jorrau* (Izag, 70), *moldau* (Izag, 81), *ailau* (Izag, 88), *kostau* (Izag, 89), *pasau* (Izag, 90), *enkontrau* (Izag, 91), *ingurau* (Izag, 91), *bilau* (Izag, 92), *juntau* (Izag, 92), ... baina *txokatu* (Izag, 89), *alegeatu* (Izag, 90), *pasatu* (Izag, 90)...

Bilakabide hau ez da erabiltzen Bakaikuko hizkeran: *gustatu*, *gastatu*, *paatu*, *errepatu*...

- Aditz-izenak direla eta, Altsasuko hizkeran ohikoa den *-t(z)en* morfema erabiltzeaz gain, behin edo beste behintzat bai, *-itan* jaso dugu. Honen bilakabide berbera erakusten duen *-etan* ageri da Lazarragaren lanean (2004) eta horrela jaso dugu Arabako ekialdeko eta Nafarroako mendebaldeko hizkeren azterketa diakronikoa egiterakoan:

“Lazarragak, bestalde, *-etan* morfema baliatu zuen behin baino gehiagotan aspektu burutugabea gauzatzeko: ... *eta utra boz amorosoaz asi çan manera onetan cantaetan* (1140), ... *arpa bat eta asi çan bere mina Sil / ... declaraetan manera onetan* (1141), ... *jaiten asi çan manera onetan cantaetan ebela* (1142), ... *arturic biguela bat asi çan cantaetan manera onetan* (1143), ... *utra concierto andiaz manera onetan cantaetan* (1144), ... *jarri çan non bere ganadua goardaetan eben* (1146).“

Eta ia modu berean, disimilaturik honek, erabili zuen Kandido Izagirrek Altsasuko euskara aztertzerakoan (1967, 90): “*An fraile txikiyak asi zian kantaitan kantu poolibatzuk ...*”. “*Geo asi zian aundiyoguk indar aundiyogukin kantaitan bi al-detaa ta boza: ...*”

Honetaz gain, Zuazoren (1995, 336) arabera Landuchioren hiztegian eta egungo oñatieran aurki daitezke era honetako burutzapenak eta baita *-ketan* morfemaz burutuak:

*albajaiketan* (Izag, 50), *errendaketan* (Izag, 60), *lanbroketan* (Izag, 71), *ardazketan*, *plantxaketako* (Izag, 70)...

- Etorkizuneko aspektua burutzeko aukera bikoitza, *-ko* eta *-en*<sup>188</sup> du altsasuerak eta berarekin batera horrelaxe egiten dute Sakanako hizkera guztiek. Dena den, bigarrena ohikoagoa da Etxarri Aranaztik ekialdera.

188. Hauxe nafarrera eta Iparraldeko hizkeretako ezaugarria dugu.

*izein*<sup>189</sup> *yitzan* (izanen hintzen, Izag, 65), *inen genduzen* (eginen genituen, Izag, 51), *ezton erraz izein* (ez dun erraz izanen, Izag, 53), *enezuke esain* (ez nizuke esanen, Izag, 54), *fain gaa* (joango gara, Izag, 64), *ezta izein* (ez da izanen, Izag, 66), *esain dot* (esanen dut, Izag, 68), *fain gindela* (Izag, 89)...baina *jakingo* (SAT, 119), *ibilko* (SAT, 133), *etorko* (SAT, 133), *ilko* (Izag, 67)...

- Ez da *ari izan* aditz perifrasi normalean erabiltzen altsasueran, eta bere ordeztu ibili eta egon aditzak erabiltzen dira. Hala ere, behin gutxienez erabili du Izagirrek 75. orrialdean (*eroitzen ai tuk*). Ohikoak ondorengo burutzapenak ditugu:

*albajaketan doo* (Izag, 50), *aizkan dailtza* (Izag, 52), *atsantzen doo* (Izag, 53), *auritan doo* (Izag, 53), *azkan dail* (54), *azterrikan dail* (Izag, 54), *errendaketan doo* (Izag, 60), *ibaikan dail* (Izag, 66), *jamaz doo* (Izag, 70), *kantakan doo* (Izag, 70), *lanbroke-tan doo* (Izag, 71), *orruz doo* (Izag, 78)...

- Altsasuko hizkerak eutsi egiten dio lehen aldiko *-e-* markari, mende-baldeko eta erdialdeko hizkera gehienetan gertatzen den moduan. Burunda osoan ez da horrela suertatzen eta badirudi Iturmendin (Zuazo, 1995, 337) hasten direla *-i-* morfema duten burutzapenak agertzen. Guk Bakaikun<sup>190</sup> ere *-i-*dun adibideak jaso genituen eta hortik ekialdera ere, Sakana erdialde osoan<sup>191</sup>, horrelakoak jaso ditugu hizkera guztietan. Ondorengoak altsasuerako adibideak ditugu:

*genduben* (genuen), *zenduben* (zenuen), *zendubein* (zenuten), *zein* (zuten), *genduzen* (genituen), *zenduzen* (zenituen), *zenduzein* (zenituzten), *zitubein* (zituzten).

- Aditz sintetikoen lehen aldian, Sakana erdialde osoan eta nafarreran gertatzen den moduan, *-a-* ageri da Altsasun ia beti<sup>192</sup>:

*zailen* (zebilen), *gailzen* (genbiltzan), *zailzen* (zenbiltzan), *zailtzein* (zenbiltzaten), *natorren* (nentorren), *nakiyen* (nekien), *zakiyen* (zekien), *zatozin* (zetozen), *etzakien* (ez zekien, Izag, 59), *zagon* (zegoen, Izag, 61)...

Baina Zuazok (1995, 337-8) dioen moduan, hiru baino ez badira ere ageri dira Izagirreran lanean *-e-*dun burutzapenak: *zeguban* (zegoen), *zekiela* eta *zeilen* (zebilen).

- Aditzaren bigarren pertsonaren *y-* marka ageri da Altsasun, Sakanako gainerako hizkeretan eta hizkera nafarretan orokorrean gertatzen den bezala:

189. Ondorengoaz izango litzateke bere bilakabidea: *izanen* > *izaen* (bokal arteko sudurkariaren galera) > *izain* (disimilazioa) > *izein* (diptongo itxiera).

190. Ondorengo burutzapenak jaso genituen: *ginduben* (genuen), *zinduben* (zenuen), *zindubein* (zenuten), *ginduzen* (genituen), *zinduzen* (zenituen), *zinduzein* (zenituzten), *zitubein* (zituzten).

191. *Giñuben* (genuen), *ziñuben* (zenuen), *ziñubien* (zenuten), *giñuzkiyen* (genituen), *ziñuzkiyen* (zenituen)...

192. Bakaikun, aldiz, ondorengo burutzapenak jaso genituen guk: *nekan* (neukan), *yekan* (heukan), *zekan* (zeukan), *nekiyen* (nekien), *yekiyen* (hekien), *zekiyein* (zekien), *negon* (nengoan)...

*yaiz*<sup>193</sup> (haiz, Izag, 84), *yitzan* (hintzen, Izag, 65), *yen* (huen), *yuan* (hion, hien), *yuazkian* (hizkion, hizkien), *yitzake* (hintzateke), *yuake* (hoake), *yoo* (hago, Izag, 84), *yoon* (hengoen), *yukan* (heukan)...

- Hitano alokutiboetako *j*- marka. Mendebaldeko hizkera multzoarekin bat egiten du altsasuerak, eta Burundako<sup>194</sup> hizkerak orokorrean, aipatu ezaugarri hau dela eta. Aldameneko Sakana erdialdean ez dira horrelako burutzapenak ageri. Altsasun barra-barra jaso ditugu *j*-dun burutzapenak eta Izagirrek ere horrelaxe jaso zituen:

*jitubet* / *jitunet* (ditiat / ditinat, Izag, 57), *jituk* / *jitun* (ditik / ditin), *jukazkinau* (zauzkanagu, Izag, 55), *jukan* (zeukanan, Izag, 64), *jon* (zagon, Izag, 68), *juak* (zidak, Izag, 69), *jukazkiyau* (zauzkaagu, Izag, 70), *jok* (zagok, Izag, 73), *jatozik* (zatozek, Izag, 73)...

193. Izagirrek *eyiz* (ez haiz) forma ere erabili zuen 61. orrialdean.

194. Bakaikun onodrengo burutzapenak jaso genituen: *jak* / *jan* (naik / nain), *jai* / *janai* naitek / naiten), *jau* / *janau* (diagu / dinagu), *jituai* / *jitunai* (ditiztek / ditizten)...



.. 5 ..  
Sintaxia



1940. Pilotajoko





**D**ialektologiaren ikuspegitik, egitura sintaktikoak gainerakoak (fonetiko-fonologikoak, morfologikoak, lexikoak) baino era homogeenagoan burutzen dira. Hala ere, gure asmo nagusia altsasuera deskribatzea denez, atal honetan hizkera honetako esaldi mota edo egitura sintaktiko ezberdinak jasoko ditugu.

## 5.1. Esaldi bakunak

- Galderazko esaldietan ez da *al* partikula erabiltzen ez altsasueran, ez Sakana osoan ere. Guk bi kasutan aurkitu dugu horrelaxe idatzirik, baina bi kasuetan ez da partikula hauxe, *ahal* aditzaren burutzapena baizik. Lehen adibidearen kasuan, zerbaitetarako irrika edo gogo bizia<sup>195</sup> adierazteko erabiltzen da:

*Barkatuko al dauzkik Jangoikuk nik barkatzen dauzkiten bezala.* (Izag, 65) (Barkatuko ahal zizkidak Jaungoikoak nik barkatzen dizkiedan bezala)

*Bueno al dan bezala, eta andi gartzela iru urte...* (SAT, 118) (Bueno ahal den bezala, eta handik kartzelara hiru urte, ...)

195. Horrela azaldu genuen *Sakana erdialdeko euskara* liburuan: "Hurrengoak, *al* (ahal), desio handia (besteren bati kalteren bat opatuz, askotan) eta zerbait komenigarria dela adierazten du eta, hortaz, ezin dugu nahasi potentzialetan agertzen denarekin, are gutxiago gure azterketaren esparruan, ez baita horrela erabiltzen. Aipatu komenigarritasuna adierazteko, *-t(i)en al* (ahal), erabiltzen da, eta desio handia adierazteko berri, *-ko al*."

• Harridurazko esaldiak modu ezberdinetan burutzen dira Altsasuko hizkeran: interjekzioen bidez, erakusleak, galdetzailak, konparaziozko morfema eta beste zenbait partikula erabiliz:

*Ze okelak dukatzien!* (Izag, 77) (Ze(r) okelak zeuzkaten!)

*Zintzubo bazan!* (Izag, 85) (Zintzoago bazen!)

*Ai ene!* (Izag, 86)

*Ura gossia!* (Izag, 79) (Hura gosea!)

*Ura poza!* (Izag, 86)

*Ai! Ori-ori-ori lastima pasuoi undatzen sutan!* (Izag, 89) (Ai! Hori-hori-hori lastima paso hori hondatzen sutan!)

*..., eta bazoon gozuo indiyaba zuriyura!* (Izag, 89) (... eta bazegoen gozoago indaba zuri hura!)

*Zein poolitak zian!* (Izag, 91) (Zein politak ziren!)

## 5.2. Esaldi konposatuak. Koordinazioa

Emendiozko perpausak.

Gehien erabiltzen den juntagailuak aferesia jasaten du maiz, *ta (da)* burutzen delarik altsasueran eta Sakana osoan. Herskari ahostunaz buruturikoa /n/ edo /l/ kontsonantez bukatutako hitzen ondoren ageri da. Bestalde, 'ere' juntagailuak dardarkariaren galera jasaten du eta ondoren, batzuetan, bokal murriztapena (*e*)e burutzen da. Eta, horrela, 'ere bai' juntagailua (*r*)*ebai* burutzen da:

*... kanpora atetzen zen, intxaur bat bota ta arren kontra jartzen zen da ...* (SAT, 117) (... kanpora ateratzen zen, intxaur bat bota eta haren kontra jartzen zen eta ...)

*..., mezako ordu izeten zan ta semin atzeti arrek ...* (SAT, 118) (... mezako ordua izaten zen eta semeen atzetik hark ...)

*Guai ... geo galdu zan ura danporikin da jota soinubakin fuego dantzan ezkaatze-tan.* (SAT, 122) (Orain ... gero galdu zen hura denborarekin eta jota soinua-rekin fuego dantzan ezkaratze-tan.)

*... azia kendu ta gio makila atzugin jo, ...* (SAT, 127) (... hazia kendu eta gero makila batzuekin jo, ...)

*Zaldi zuri bat ordu bat korrikan fan da etorri, ta geo arren pitxa artu ...* (SAT, 128) (Zaldi zuri bat ordu bat korrika joan eta etorri, eta gero haren pitsa hartu ...)

*Prezosiui ikusi eta bidiortan e afaldu eta bendatu ...* (Izag, 92) (Prozesio hori ikusi eta bide horretan ere afaldu eta merendatu ...)

*San Pedro falso samarra, ta arek ee ura eskatzen zenin, ...* (Izag, 91) (San Pedro faltsu samarra, eta hark ere ura eskatzen zuenean, ...)

*... eta an arkumak eta arzaiyek ee alegere ...* (Izag, 90) (... eta han arkumeak eta artzainak ere alegre ...)

*Trenien sartu, sagar batzuk ee artu genduzen an bidien, an ee bazen sobare, ...* (Izag, 86) (Trenean sartu, sagar batzuk ere hartu genituen han bidean, han ere ba-zeuden sobera ere, ...)

*Ori e guamak etzen ba nai ori, ....* (Izag, 78) (Hori ere gure amak ez zuen bada nahi hori, ...)

*Bestaatek eebai, emakume Zaragozako emakume batek ee izketa ein zeen ondo.* (Izag, 93) (Beste batek ere bai, emakume Zaragozako emakuma batek ere hizketa egin zuen ondo.)

*Nik ori esan dot, ta zuk ebai.* (Nik hori esan dut, eta zuk ere bai.)

Beste juntagailuren bat edo beste ere ageri zaigu altsasueran, hala nola ... *(e)ta biyok* (izena + emendiozko juntagailua + zenbatzailea plural hurbileko morfemarekin):

*... eta len faten gindan aita ta biyok basoa ...* (Izag, 72) (... eta lehen joaten ginen aita eta biok basora ...)

Perpauš hautakariak.

Juntagailu hautakari bakarra, *(e)ro*, erabiltzen da altsasueran, gainerako Burundan eta Sakana osoan bezala. Bakaikun eta aldameneko Sakana erdialdean *(o)ŕ*<sup>196</sup> bilakaturik erabiltzen da. Beraz, *ala* juntagailua ez da erabiltzen Sakana osoan.

196. Ondorengoa da jasan duen bilakabidea: *edo > ero > eo > oo*.

*Konfiantzazkuak ero uriko zituen da* (Izag, 71) (Konfidantzazkoa edo edukiko zituen eta)

*... bazian bostak ero ailau gindanin, ee?* (Izag, 90) (... baziren bostak edo ailegatu ginenean, e?)

*Eta geo bi lagun geatu zian Estellan fruta egosten ero ola.* (Izag, 92) (Eta gero bi lagun geratu ziren Estellan fruta erosten edo horrela)

Aurkaritzako perpausak.

Gehien jaso dugun juntagailua *baya* (baina) izan da eta Sakana erdialdean ere antzeko burutzapena erabiltzen da, *beye/beya*. Hala ere, ondorengo juntagailuak ere erabiltzen dira altsasueran: *ala (e)re, berriz, ordia, espada...*

*Guai beste bizi modu batoo, baya olaxe ibiltzen gindan* (Izag, 66) (Orain beste bizimodu bat dago, baina horrelaxe ibiltzen ginen)

*... nor lukake jaiye pasatzeko durotxuet: Baya ura etzon* (Izag, 72) (... nork leuka-ke jaia pasatzeko durotxo bat; baina hura ez zegoen)

*... onek itzik ez tin iten, baya onek kontubak artu iten jitun ...* (Izag, 76) (... honek hitzik ez din egiten, baina honek kontuak hartu egiten ditin ...)

*Da guai kejatzen gaa biziya gaiztu doola, baya obetoxo bizitzen da* (Izag, 77) (Eta orain kecatzen gara bizia gaizto dagoela, baina hobetoxeago bizitzen da)

*Alare ez zeen bakian autzi.* (Hala ere ez zuen bakean utzi)

*Jatea ondo eman baya yanak eztuka ordi gauzonik* (Izag, 79) (Jatera ondo eman baina edanak ez dauka ordea gauza onik)

*Ik ordia eztok batee gogoik laniako.* (Hik, ordea, ez duk batere gogorik lanerako)

*Izketan ezpada ez dok ezer inko.* (Hizketan ez bada, ez duk ezer egingo)

Distributiboak.

Bakaikun jaso genuen moduan erabiltzen dira Altsasuko hizkeran juntagailu banatzaile edo distributiboak, hauexek ondorengoak direlarik: *bai ... bai ..., ez ... ez ..., nola ... nola ..., aldiateti ... ta besteti ...*

## 5.3. Esaldi konposotauak. Mendekoak

Mendeko esaldi guztiak ez ditugu hemen aztertuko, ataltxo honen hasieran esan dugun moduan ez baitute sintaxi mailako ezaugarriek era zehatzean bereizten hizkerak. Guk informatzaileek erabili dituztenak eta kontuan izan ditugun lanabesetan agertzen direnak baino ez ditugu hemen jasoko.

Perpau konpletiboak. Nominalizazioak.

Gehien ageri zaizkigun menderagailuak *-(e)la*, *-(e)nik*, *-t(z)ia* (*-t(z)ea*), *-t(z)eik* (*-t(z)erik*), *-tea* (*-tera*) *eman ...* dira, espero zitekeen bezala:

*... gari saltzia nai dot, mezia atatzeko* (SAT, 133) (... garia saltzea nahi dut, meza ateratzeko)

*... ta esan zuala ez, etzala gaur joan ber lo itia oira ...* (SAT, 130) (... eta esan zuela ez, ez zela gaur joan behar lo egitera ohera ...)

*..., ta ama oyan zola, etzola ondo ta oyan zola* (SAT, 131) (... eta ama ohean zegoela, ez zegoela ondo eta ohean zegoela)

*..., eta arrek esan zuan niri zala alemana* (Izag, 77) (... eta hark esan zidaan niri zela alemana)

*Jatea ondo eman baya yanak eztuka ordi gauzonik* (Izag, 79) (Jatera ondo eman baina edanak ez dauka ordea gauza onik)

*Baietz fan ber gendubela San Mielaa.* (Izag, 89) (Baietz joan behar genuela San Migelera)

*... eta urrengo goizien fain gindela bostetako trenien ...* (Izag, 89) (... eta hurrengo goizean joanen ginela bostetako trenean)

*Eta an etzoon lorik iteik* (Izag, 90) (Eta han ez zegoen lorik egiterik)

*... etzon diruik gastatzeik* (Izag, 91) (... ez zegoen dirurik gastatzerik)

*Eta nola naizu egunoo kartakaa faten dan emakumiarrek ureitzi etxien txerri gizenak eta beiyek esenieki?* (Izag, 55) (Eta nola nahi duzu egunero kartakara joaten den emakume hark edukitzea txerri gizenak eta behiak esnearekin?)

*Ezton konbeni aizken patzi* (Izag, 62) (Ez dun komeni azken pagatzea)

Zehar galderak.

Guk jaso dugun menderagailu bakarra, *-(e)n*, zehar galderak burutzeko erabiltzen den ohikoena da, batzuetan *iya* partikula daramalarik.

*Neska, bakin ze pasatzen dan?* (SAT, 127) (Neska, badakin zer pasatzen den?)

*..., esan zuala iya ez zan fan ber oiya lo itia, ...* (SAT, 130) (...; esan zuala ea ez zen joan behar ohera lo egitera)

*..., sartu omen zuanen jostorratza aundi bat iya lo zon.* (SAT, 130) (...; sartu omen zionan jostorratza handi bat ea lo zegoen.)

*Eta goiz in esan zola alabai iya ama nun zon* (SAT, 131) (Eta goizean esan zio-la alabari ea ama non zegoen)

*Ezait akordatzen guai izena nola dan.* (Izag, 50) (Ez zait akordatzen orain izena nola den)

*...; aztuik noo nola zaiyon izena.* (Izag, 51) (...; ahazturik nago nola zaion izena)

*Enezukesain zenbat puro dian.* (Izag, 54) (Ez nizuke esanen zenbat puro diren)

*...; eztait guaindo briska zer dan ee; ...* (Izag, 55) (...; ez dakit oraindik briska zer den ere; ...)

*Nik enakin nun yon zan ee* (Izag, 76) (Nik ez nekien non egon zen ere)

*Eta esan zuan ia nungu naizen ...* (Izag, 76-77) (Eta esan zidaan ea nongoa naizen)

*... eta atsuarrek iya konfesatuik genden da bayetz* (Izag, 77) (... eta atso hark ea konfesaturik geunden eta baietz)

*... erreza zazubei iya milagru iten den Ama Berjinik naure semiandako* (Izag, 78-79) (... erreza ezazue ea milagroa egiten duen Ama Birjinak neure semearendako)

*Eztakit zenbat kilometro izein dian ...* (Izag, 86) (Ez dakit zenbat kilometro izanen diren ...)

*Iya nor lenoo faten dan, zek trenin ...* (Izag, 91) (Ea nor lehenago joaten den, zuek trenean ...)

*Ia zenbat denbora pasau genduben Panplonortan* (Izag, 92) (Ea zenbat denbora pasatu genuen Panplona horretan)

## Erlatibozkoak.

Berriz ere ohikoak diren menderagailuak balitzen dituzte altsasueran. Beraz, *-(e)n* eta *-tako (-dako)* dira menderagailu erabilienak:

*... ferrokarrila pasatzen dan lekuti euskeraz asko galdu da* (SAT, 119) (... ferrokarrila pastasen den lekutik euskaraz asko galdu da)

*Guri kontubak e ... aitzen gendubena* (SAT, 129) (Guri kontuak e ... aditzen genuena)

*Ok tuk gue etxin gaizki iten dainek bai, ...* (SAT, 130) (Hauek dituk gure etxean gaizki egiten dutenak bai, ...)

*..., eta ok tuk gue etxin iten dein e ... galti* (SAT, 130) (... eta hauek dituk gure etxean egiten duten e ... kalte)

*Ta, nor ote on ba guri in dubeina besue ebei?* (SAT, 131) (Eta, nor ote dun ba guri egin diguna besoa ebagi?)

*Gitarri ta bandurria jotzen zakiyenak, eta ...* (Izag, 134) (Gitarra eta bandurria jotzen zekienak, eta ...)

*An zoon Alsasun yondako apaiza. – Alsasun yonitako apaiza.* (Izag, 50) (Han zegoen Altsasun egondako apaiza – Altsasun egondako apaiza)

*..., soka daen guziyeiri puru maten daue* (Izag, 54) (... soka dauden guztiei purua ematen diete)

*... kartakaa faten dan emakumiarrek ...* (Izag, 55) (... kartakara joaten den emakume hark ...)

*moskortuik zon batek* (Izag, 74) (mozkurturik zegoen batek)

*Muberra da menditi ekartzen dan arri fin bet, ...* (Izag, 75) (Muberra da menditik ekartzen den harri fin bat, ...)

*Ta guai aizkene ontan erein dotena guai jaton, ...* (Izag, 80) (Eta orain azken honetan erein dudana orain zatorren, ...)

## Helburuzkoak.

Gehien erabiltzen diren menderagailuak *-t(z)eko*, *-t(z)ia* (-t(z)era) eta *-t(z)ieti* (-t(z)eagatik) ditugu altsasueran Sakanako gainerako hizkeretan gertatzen den moduan:

*..., ta an aitu niñen nik e erregien alabien erremeyo iteko bai, ...* (SAT, 128) (... eta han aditu ninan nik, e, erregearen alabaren erremedio egiteko bai, ...)

*Fan omen zen gizon oi, bee buelta itia ...* (SAT, 129) (Joan omen zen gizon hori, bere buelta egitera ...)

*Ez, gaur enaun fan ber oya lo itia, yon bi naun sukeldin.* (SAT, 130) (Ez, gaur ez naun joan behar ohera lo egitera, egon behar naun sukaldean.)

*... beak nai zeela fati ama don lekua kontuba patzeko.* (SAT, 131) (... berak nahi zuela joatea ama dagoen lekura kontuba pagatzeko.)

*Ta esaten zonen arrek, e, atatzeko eskuba, ...* (SAT, 131) (Eta esaten zionan hark, e, ateratzeko eskua, ...)

*...: zazei Eibarrea ofiziyu ikestea* (Izag, 49) (...: zoazte Eibarrera ofizioa ikastera)

*... eta gu amak ein zeen mi gaiztuek ixiltzeko ta onera emateko mezat ata zeen.* (Izag, 63) (... eta gu amak egin zuen mihi gaiztoak ixiltzeko eta onera emateko meza bat atera zuen.)

*..., zeinti bideti ata in zan gurdiya be buruba salbatzaiti eta ...* (Izag, 66) (... zeirengatik bidetik atera egin zen gurdia bere burua salbatzeagatik eta ...)

*... etautzi zeen guetxin soineku etortzeaiti festetan.* (Izag, 74) (... eta utzi zuen gure etxean soinekoa etortzeagatik festetan.)

*... eta bizimodubure ez ikusteiti alabio serbitzea fan zan.* (Izag, 76) (... eta bizimodu hura ez ikusteagatik alaba serbitzera joan zen.)

*..., eta jendi diyu diruba iyeztea ...* (Izag, 76) (... eta jendea doa dirua irabaztera ...)

*Jaitxi in ber dau emeti sagarrak artzeko.* (Izag, 81) (Jaitxi egin behar du hemendik sagarrak hartzeko.)



*Geo etorri gindan bideberriz, pideberriz geo, oinez aik eta Oñatiaindo, ee? Misteiyuk ikustaiti; ...* (Izag, 91) (Gero etorri ginen bideberriz, bideberriz gero, oinez harik eta Oinatiraino, e? Misterioak ikusteagatik; ...)

## Kausazkoak.

Altsasuko hizkeran maiz erabiltzen zen kausazko menderagailu gisa *zengaiti ... -en* (zerengatik ... -en), *zeinti ... da* (zerengatik ... eta) edo galdetzailea soilik, eta Izagirreraren lanabesetik horrela jaso zituen Zuazok (1995, 339) hemen paratuko ditugun lehen zazpi adibideak. Ikertzaile berak *nolabait ... -en* menderagailua ere beste zazpi alditan antzeman dio Izagirreri, eta guk bes-teen segidan jarri ditugu. Bestalde, ohikoa da altsasueran *eta* menderagai-lua aditzaren ondoren erabiltzea kausa adierazteko. Eta, azkenik, kausazko perpausari dagokionez, Altsasun aldameneko Sakana erdialdean ohikoak diren *bait-* eta *-lakos* menderagailuak ez direla erabiltzen aipatu behar dugu, bai ordea arruntagoa den *-lako*.

*..., zeinti gelditu dien txikiyak,* (Izag, 53) (...; zerengatik gelditu diren txikiak,)

*...; zengiti ber dein Jangoikuk botatzen deen auri gozura ...* (Izag, 53) (...; zerengatik behar duten Jaungoikoak botatzen duen euri gozo hura ...)

*..., zengaiti fraileik praperakin yaten dei txitxiya.* (Izag, 63) (...; zerengatik fraile haiek paperarekin jaten dute txitxia.)

*...; zengaiti guk eskuez Jesukriston kantak dakizkiu lagundubez liburuti.* (Izag, 63) (...; zerengatik guk euskaraz Jesukristoren kantak dakizkigu lagunduaz liburutik.)

*Baya zengaiti? Zengeiti guai, zengiti guaiko lan klasik ematen den diru geiyo.* (Izag, 76) (Baina zerengatik) Zerengatik orain, zerengatik oraingo lan klaseak ematen duen diru gehiago)

*..., zengaiti diruba ekatzen den arek.* (Izag, 76) (...; zerengatik dirua ekartzen duen hark)

*..., zeinti etxe aundiya zan da, ...* (Izag, 76) (...; zerengatik etxe handia zen eta, ...)

*..., baya nolabait oitu in naun lanien fuerte, ni ezinaiz geldi yoon.* (Izag, 49) (...; baina nolabait ohitu egin naiz lanean fuerte, ni ezin naiz geldi egon.)

... *eta nolabait egun ona izeten dan ...* (Izag, 56) (... eta nolabait egun ona izaten den ...)

*Eta erdealduna nolabai zan, ezin itzik ein an eskuez.* (Izag, 60) (Eta erdalduna nolabait zen, ezin hitzik egin han eusakaraz.)

..., *baya nolabait gora zazein lan iten dezubeita, ...* (Izag, 63) (... baina nolabait gora zoazten lan egiten duzue eta, ...)

*Kantaitan nolabai tugu dakizkiaun Jesukriston kantak ...* (Izag, 63) (Kantatzen nolabait guk dakizkigun Jesukristoren kantak ...)

... *ta nolabaizan karreteruu uzterriai autsinber.* (Izag, 84) (... eta nolabait zen karreteroa uztarriari eutsi behar.)

*Eta geo, bijiliya nola baizan, antxuk.* (Izag, 89) (Eta gero, vigilia nolabait zen, antxoak.)

...; *eztait guaindo briska zer dan ee; eztot ikesi-ta.* (Izag, 55) (...; ez dakit oraindik briska zer den ere; ez dut ikasi eta.)

..., *zortziko gutxi zeen da, diru gutxi zoon da ezin jan.* (Izag, 63) (...; zortziko gutxi zeuden eta, diru gutxi zegoen eta ezin jan.)

...; *pozez, indiyabaik etzanen izen urtiartan-da.* (Izag, 65) (...; pozez, indibabarik ez zunan izan urte hartan eta.)

*konfiantzazkuak ero uriko zituen-da* (Izag, 71) (konfiantzazkoak edo edukiko zituen eta)

*Zengaiti eztago ... eztago euskeraz egin, ta orrengaiti eztakieu.* (SAT, 119) (Zerengatik ez dago ... ez dago euskaraz egin, eta horrengatik ez dakigu.)

*Eta, bakizu, erdaldunak eztei nai euskeraz aitzia, nola eztein entenditzen ...* (SAT, 119) (Eta badakizu, erdaldunak ez dute nahi euskaraz aditzea, nola ez duten entenditzen ...)

*Geo iru lauко kobratzen genduan, sueldo asko zala ta ...* (SAT, 123) (Gero hiru lauко kobratzen genian, sueldoa asko zela eta ...)

... *eta nola arrek esan zinen ordu erdi bat ... in biaji iteko* (SAT, 131) (... eta nola hark esan zinan ordu erdi bat ... egin bidaia egiteko)

..., *zenti emeko anratek, Maluxak, esan zegun: ...* (Izag, 50) (...; zerengatik hemengo andre batek, Maria Luisak, esan zigun: ...)

..., *zengaiti irristau iten zan zapatakin*. (Izag, 50) (...; zerengatik irristatu egiten zen zapatekin)

..., *zeinti asko gustau zaigun Lourdesgo bieji*. (Izag, 68) (...; zerengatik asko gustatu zaigun Lourdesko bidaia.)

..., *zengaiti militar orrek zukan anriakin ...* (Izag, 76) (...; zerengatik militar horrek zeukan andrearekin ...)

*Nola guai diruba aumentatu an asko, eztok guai basoberriken ...* (Izag, 76) (Nola orain dirua aumentatu den asko, ez duk orain baso beharrik ...)

..., *zeinti gu bizimoduba ata dau bai, ...* (Izag, 78) (...; zerengatik gure bizimodua atera dugu bai, ...)

..., *zengaiti rejimen doon jendi ...* (Izag, 80) (...; zerengatik erregimenean dagoen jendea ...)

..., *etzait ain polita bidiura ereitzi, zengaiti orduban sekula ata ez etxeti ta ...* (Izag, 86) (...; ez zait hain polita bide hura iritzi, zerengatik orduan sekula atera ez etxetik eta ...)

... *da muturreko majuk ee bai artu, eman zuzen ez niulako*. (Izag, 69) (... eta muturreko majoak ere bai hartu, eman zuzen ez nihoalako.)

...: *ura poztu in zan erretzen zoolako*. (Izag, 89) (...: hura poztu egin zen erretzen zegoelako.)

..., *zengiti pasau genduben an estusamar, ...* (Izag, 90) (...; zerengatik pasatu genuen han estu samar, ...)

... *aguro fateko makinistak prisa zoola-ta*. (Izag, 92) (... agudo joateko makinistak prisa zegoela eta.)

## Denborazkoak

Ugari dira denborazko esaldiak burutzeko euskarak baliatzen dituen menderagailuak eta ez ditugu hemen horiek guztiak kontuan izango. Esku artean izan ditugun lanabesetan ageri izan zaizkigunak jasoko ditugu bertan, altsasueran erabili direlako hain zuzen ere. Adibideetan ageri diren menderagailuak ondorengoak dira: *-(e)ni(e)n* (-enean), partizipioa + *eta geo* (eta gero), *-(e)la, -ezkeo* (-ez gero), partizipioa + *baindo ...-o* (baino ...-ago)...

*Abuztuan atatzen da liyu, eta atatzen danin liyu ura, kentzen zayo azia, ...* (SAT, 127) (Abuztuan ateratzen da lihoa, eta ateratzen denean liho hura, kentzen zaio hazia, ...)

*..., ba ura ailatzen tzanen, aillatu zanian, bestik baindo leno, ordu erdi bat leno.* (SAT, 131) (... , bada hura ailegatu zunan, ailegatu zenean, besteak baino lehenago, ordu erdi bat lehenago.)

*Ta arrek aiek il ta geo erriya guziya aik ama alabak artu, ...* (SAT, 131) (Eta hark haiek hil eta gero herria guztia haiek ama-alabak hartu, ...)

*Ni txikia nitzala, ...* (SAT, 133) (Ni txikia nintzela ...)

*Gu(r)i amak eman zegun ezkondu gindanien mezaik ez auzteko ...* (Izag, 48) (Hurí amak eman zigun ezkondu ginenean mezarik ez uzteko ...)

*Semiek aunditu zienien nee gizonak: ...* (Izag, 49) (Semeak handitu zirenean nire gizonak: ...)

*Erainezkeoz eztau aurik ein* (Izag, 60) (Ereinez gero ez du euririk egin)

*... ikusten gendubenin pasu ura pasioko kankak kantatzen ...* (Izag, 63) (... ikusten genuenean paso hura pasioko kankak kantatzen ...)

*Eta auriye iten zenin ...* (Izag, 72) (Eta euria egiten zuenean ...)

*...; trangau baindo leno berriz joo.* (Izag, 73) (...; trangatu baino lehenago berriz jo.)

*Ta pozik gurdi dana erre bee gelditutzen zanin.* (Izag, 74) (Eta pozik gurdi dena erre gabe gelditzen zenean.)

*Nik ogei urte nukezkiyen fan nitzanin.* (Izag, 76) (Nik hogeia urte neuzkan joan nintzenean.)

*... bein edade bat ezkeo ...* (Izag, 80) (... behin edade batez gero ...)

*Trena ikus gendubenin, ura poza!* (Izag, 86) (Trena ikusi genuenean, hura poza!)

*... eta gu aillau gindenin estaziotti Pamplona, ...* (Izag, 88) (... eta gu ailegatu ginenean estaziotik Panplonara, ...)

*Ta aikin etorri gindan gu etxzaa, dannak ikusita geo.* (Izag, 89) (Eta haiekin etorri ginen gu estera, denak ikusi eta gero)

*Ta Santatria genduzila ...* (Izag, 90) (Eta San Adrianera gindoazela ...)

... *bazian ba bostak ero ailau gindanin, ee?* (Izag, 90) (... baziren bada bostak edo ailegatu ginenean, e?)

..., *argitu zeen noizbeit eta argitu zenin, ala, ...* (Izag, 91) (... argitu zuen noiz-bait eta argitu zuenean, hala, ...)

## Moduzkoak.

Sakanako esparru osoan erabiltzen diren menderagailuak baliatzen dira altsasueran moduzko perpausak burutzerakoan, baina horien artean aipagarria da *bekela* (bezala) partikula, Burundan eta Ergoiengo Lizarragan besterik ez baita ezaguna Sakanan. Bestalde, guk ondorengo adibideak jaso ditugu Altsasuko hizkeran:

... *ta gue etxin bezela beste aldamenekuk iguel, ...* (SAT, 119) (... eta gure etxean bezala beste aldamenkoak igual, ...)

... *errotan maiz fina bekela txikitu in ber dinau e ...* (SAT, 129) (... errotan arto fina bezala txikitu behar dinagu e ...)

*Erregien alabi sendatu on, guri norbaitek e kontubak aituta.* (SAT, 129) (Erregearen alaba sendatu dun, guri norbaitek e kontubak adituta.)

... *fan omen zanen betiko bekela etxe batia, ...* (SAT, 129) (... joan omen zunan betiko bezala etxe batera, ...)

*ber dan bekela* (Izag, 56) (behar den bezala)

... *kasketaku burubekin artuta odola daiyola.* (Izag, 61) (... kasketakoa buruarekin hartuta odola dariola.)

*Ala eztakiau izketan ee batzuk bekela, egiya esateko.* (Izag, 62) (Hala ez dakigu hizketan ere batzuk bezala, egia esateko.)

...; *zengaiti guk eskuez Jesukriston kantak dakizkiu lagundubez liburuti.* (Izag, 63) (...; zerengtik guk euskaraz Jesukristoren kantak dakizkigu lagunduaz liburutik.)

*Gona luze-luze batzuk aztalez josiik.* (Izag, 66) (Gona luze-luze batzuk aztalez josirik)

*Barkatuko al dauzkik Jangoikuk nik barkatzen dauzkiten bezela.* (Izag, 65) (Barkatuko ahal zizkidak Jaungoikoak nik barkatzen dizkiedan bezala.)

*..., txumairi oilla kuzkurtuta zoon bat, txumairi austen.* (Izag, 77) (... txumei horrela uzkurtuta zegoen bat, txumei eusten.)

*... jendik mezati atazten eta guu jituek bekela saldo aundi bat, ...* (Izag, 86) (... jendeak meztatik ateratzen eta gu ijitoak bezala saldo handi bat, ...)

*Eta geo bi lagun geatu zian Estellan fruta egosten ero ola.* (Izag, 92) (Eta gero bi lagun geratu ziren Estellan fruta erosten edo horrela.)

*...: iru gizekume ta sei neska gazte, zuriz jantziken lenoko legea; ...* (Izag, 93) (...: hiru gizakume eta sei neska gazte, zuriz jantzirikan lehenagoko legera; ...)

### Konparaziozkoak.

Maila edo kantitatea konparatzen direlarik, berdintasuna zein desberdintasuna, oraingoan ere, antzeko menderagailuak erabiltzen dira Sakana osoan. Dena dela, altsasueran eta Burunda osoan ere bai, despalatalizazioa ageri da *baindo ... -o(o)* menderagailuaren kasuan, (Sakana erdialdean *baño/beño*). Bestalde, ondorengo menderagailuak ageri zaizkigu altsasueran: *din(a)*, *ainbat*, *bezain*, *bezela(koik)*.

*Ta geo, gu baindo gaio dakiela arrek.* (SAT, 127) (Eta gero, gu baino gehiago dakiela hark.)

*Nik baindo geio jakin nai dok?* (SAT, 130) (Nik baino gehiago jakin nahi duk?)

*Ta ura fan zanen bea baindo leno bee etxea, ...* (SAT, 130) (Eta hura joan zunan bera baino lehenago bere etxera, ...)

*Aita dina in da semi.* (Izag, 48) (Aita adina egin da semea)

*Aundi bezain on bazaa gu etxeako ainbat baza. Aundi bezain on banitz zen etxeako geiyei neiz.* (Izag, 53) (Handi bezain on bazara gure etxerako hainbat bazara. Handi bezain on banintz zuen etxerako gehiegi naiz.)

*Bai, baya aurtengo udi bezelako udaik ee eztinau ezautu, ...* (Izag, 65) (Bai, baina aurtengo uda bezalako udarik ere ez dinagu ezagutu, ...)

*Nai denak diru pixkat ein, geore ezin jan nai den din bat; ...* (Izag, 75) (Nahi due-nak diru piska bat egin, gero ere ezin jan nahi duen adin bat; ...)

*Nekazantzi da gogorro artzantzi baindo.* (Izag, 76) (Nekazaintza da gogorragoa artzaintza baino.)

*Eta nekazantza ona dukana baindo, eztukana errazo bizi a, ...* (Izag, 76) (Eta nekazaintza ona daukna baino, ez daukana errazago bizi da, ...)

*... eta Jesukristo Maria Santisimak malien urein zen bezela an ureineen aita gizajua ...* (Izag, 76) (... eta Jesukristo Maria Santisimak magalean eduki zuen bezala han eduki nuen aita gizajoa ...)

*... eta deabrubeik patu zein bezelakoiken josita kurutzan ...* (Izag, 77) (... eta deabru haiek paratu zuten bezalakorikan josita gurutzean ...)

*Eta gutako baindo geiyo umieindako, ...* (Izag, 78) (eta guretako baino gehiago umeendako ...)

*...; bea lepiziyen geiyo txokatu zuan bigarren aldiyan baidore.* (Izag, 89) (...; baina lehenbizian gahiago txokatu zuan bigarren aldiyan baino ere.)

Bestalde, Zuazok (1995, 341) perpaus konparatiboetan aukera bikoitza nabari dela esaten du: “Orokorrean den *-ago* atzizkia ageri da gehienetan, baina baita batik bat Nafarroako beste hizkera batzuetan (Imotz, Ultzama, Baztan, ... cf. Ibarra 1994: 576) ezaguna den *-agoko* ere noizbehinka. Izagirreraren lanabesetan *-ago* aurkitu dugu beti, baina *aundiyokue* ‘haundiagokoa’, *txikiyokue* ‘txikiagokoa’, *pobriokue* ‘pobreagokoa’, *polittokue* ‘politagokoa’, *lodiokua* ‘lodiagokoa’, *meokua* ‘meheagokoa’, *zarrookue* ‘zaharragokoa’ ... bezalakoak ere jaso ditugu aztergai genuen eremu gehienez eta baita ekialderago ere Sakanan barrena”.

Guk Bakaikun (2002, 299) ondorengo jaso genuen, esate baterako:

*Aundiyokuek re erori tuk!* (Handiagokoa ere erori dituk!)

Kontzesiboak.

Gure informatzaileek esan digutenez, esaldi kontzesiboak burutzeko gehien erabiltzen diren menderagailuak *naiz ta* (nahiz eta), *-ta (-da) re* (-ta ere), *baya* (baina) esaldiaren bukaeran eta *-i(g)aiti* (-agatik) dira. Guk, hala ere, azkenekoaren adibideak baino ez ditugu jaso aztertu ditugun lanabesetan.

*Atai txikiya izenigeitire kaituko gaa gu.* (Izag, 68) (Atari txikia izanagatik ere kabituko gara gu)

*Baya geore bakizu momentubartan pena ureinieti atzea alegeatu ginden andi ata gindanin, ...* (izag, 83) (Baina gero ere badakizu momentu hartan pena edukiatatik atzera alegratu ginen handik atera ginenean, ...)

Bakaikun, aldiz, ondorengoak jaso genituen (2002, 300):

*Ura zaken gizon isisila bea, ba, asten zanien ola ...* (Hura zuan gizon isil-isila baina, bada, hasten zenean horrela ...)

*Zuk ola esaniyagaitik ezan ola gertatu.* (Zuk horrela esanagatik ez zen horrela gertatu)

*Beandu fanda re lanak iten zituben!* (Berandu joanda ere lanak egiten zituen!)

*Naiz ta beandu etorri lanak iten zituben.* (Nahiz eta berandu etorri lanak egiten zituen)

Baldintzazkoak.

Baldintzazko esaldi gutxi antzeman ditugu aztertu ditugun lanabesetan, baina, hala ere, bakaikuera aztertu genuenean aipaturiko menderagailu berberak ageri zaizkigu altsasueran ere: *-ez keo(z)* (-ez gero), (*balin*) *ba-* (baldin *ba-*).

*Ola, galde inez keoz, ...* (SAT, 119) (Horrela galde eginez gero, ...)

*..., balin bajon norbait emen, errotan ...* (SAT, 129) (... baldin bazagon norbait hemen, errotan ...)

*... ilbeltza izaten bada il txuri, ardiyek aziko dau axuri. Ilbeltza bada il beltz, ez ardi ez axuri.* (SAT, 134) (... ilbeltza izaten bada hil txuri, ardiak haziko du axuri. Ilbeltza bada hil beltz, ez ardi ez axuri.)

*..., patzen boon porruba, umedadi franko ailetzen zaiyon; baiya patzen boon abuztuban ...* (Izag, 62) (... paratzen badun porrua, umedade franko ailegatzen zaion; baina paratzen badun abuztuan ...)



*...; izera zuri betin bildu eta ogi zimel-zimela jaten genduben; ez lizunduezteo pozik jan, olaxe gue biziya.* (Izag, 73) (...; izara zuri batean bildu eta ogi zimel-zimela jaten genuen; ez lizunduz gero pozik jan, horrelaxe gure bizia.)

*Aziyuo i enen inen peligruba ikus banau.* (Izag, 76) (Akzio hori ez nuen eginen peligrua ikusi banu.)

*Arutza jetxiezkeo, yasta.* (Izag, 90) (Haruntz jaitsiz gero, yasta.)



.. 6 ..  
Lexikoa



Tren geltokiko langileak



**A**tal honetan, lehenik, Kandido Izagirrearen “Altsasuko euskeraren gai batzuk” artikuluko lexikoa aztertuko dugu, bertan ageri diren ia hitz guztiak hemen jasoko ditugula; eta, jarraian, altsasuera-ko lexikoak zein kidesunak ageri dituen aztertuko dugu, isoglosa lexiko zenbait bereiziko dugularik, bereziki Burundaren aldamenean ekialdetik dagoen Sakana erdialdearekin.

## 6.1. Izagirrek jasotako lexikoa

<i>abandoso</i>	Ugari.
<i>abar</i>	Sua egiteko arrama txikia.
<i>abeats, abeastu</i>	Aberats, aberastu.
<i>abi, abidi</i>	Ahabia, ahabiadi.
<i>adar</i>	Adar.
<i>adin</i>	Adin.
<i>afai, afaldu</i>	Afari, afaldu.
<i>afolabaiko</i>	Axolagabe(ko).

<i>aga</i>	Haga. Gaztainak zuhaitzetik botatzeko makila luzea.
<i>agertu</i>	Agertu.
<i>agín</i>	1. Hagin (ahokoa). 2. Hagin (zuhaitza).
<i>aguardi</i>	Eguerdi.
<i>agudo</i>	Izagirrek trebea adieraziz erabili zuen. Bestalde Sakana osoan 'laster' esanahiarekin erabiltzen da.
<i>ai</i>	Txerritokia.
<i>ailau</i>	Ailegatu, iritsi.
<i>ainbeste</i>	Hainbeste.
<i>aino</i>	Gariari eta artoari ateratzen zaion onddoa. Izagirrek 'tizón' itzuli zuen.
<i>aintzineko</i>	Arbaso.
<i>aita</i>	Aita.
<i>aitagiarreba</i>	Aitaginarreba.
<i>aitajaun</i>	Aitona. Izagirrek aurreraxeago <i>attun</i> jaso zuen.
<i>aitapuntako</i>	Aita ponteko.
<i>aitu</i>	Aditu.
<i>aitxur</i>	Aitzur.
<i>aitz, aitz-arri</i>	Haitz. Kareharri.
<i>aixkire</i>	Adiskide.
<i>aize</i>	1. Ehiza. 2. Haize.
<i>aizebildu</i>	Bisuts, haize-zurrunbilo.
<i>aizegorri</i>	Frantziatik datorren haizea, hotzena.
<i>aizkan</i>	Harrika.
<i>aizkora</i>	Aizkora.
<i>aiztai</i>	Ehiztari.
<i>aker</i>	Aker.

<i>akestu</i>	Kamustu.
<i>akulu</i>	Akuilua.
<i>alaba</i>	Alaba.
<i>alargun</i>	Alargun.
<i>albajaiketan</i>	Hatsanditu.
<i>aldapa</i>	Aldapa, malda.
<i>alegere</i>	Pozik, bokal protetikoa darama.
<i>alkar</i>	Elkar.
<i>alkate</i>	Alkate.
<i>alki</i>	Aulki, jezarleku.
<i>alfer</i>	Alfer.
<i>altz</i>	Haltz, zuhaitz mota.
<i>amagiarreba</i>	Amaginarreba.
<i>amapuntaku</i>	Ama ponteko.
<i>amaun</i>	Amaraun.
<i>ames</i>	Amets.
<i>amin</i>	Amona.
<i>amurrai</i>	Amuarrain.
<i>anai</i>	Anaia.
<i>andaitz</i>	Gurdiaren lema.
<i>andragei</i>	Andregai.
<i>anka-giltza</i>	Orkatila.
<i>anka-orrazi</i>	Hankaren goiko aldea. Izagirrek “el empeine” itzuli zuen.
<i>ankatako</i>	Oinetako.
<i>ankutsin</i>	Hanka hutsean, oinutsik.
<i>anra</i>	Andre.
<i>antux</i>	Doministiku.

<i>antxuma</i>	Antxume.
<i>apaiz, apaizetxe</i>	Apaiz. Apaizetxe. Sakana erdialdean <i>apez</i> .
<i>apatxo</i>	Musua. Haur hizkuntzan <i>pa</i> erabiltzen da Sakana osoan.
<i>apo</i>	Ordots, aketz. Sakana erdialdean <i>apote</i> erabiltzen da txerri emeak estaltzeko txerri arra adierazteko, eta <i>apotesai</i> (apotesari) txerri emearen jabeak ordaindu beharrekoa.
<i>apustu</i>	Apustu.
<i>ar</i>	1. Arra, emearen antonimoa. 2. Harra.
<i>aragi</i>	Haragia. <i>Okela</i> ere jaso zuen Izagirrek. Sakana erdialdean <i>aragi</i> erabiltzen da soilik.
<i>arainaun, ereinun</i>	Herenegun. Bi burutzapenak jaso zituen Izagirrek.
<i>arainaun-etziti</i>	Herenegun-etzitik. Herenegun aurreko eguna adierazten du. Etxarri Aranatzen <i>yaniauntzitti</i> .
<i>araitz</i>	Haritz.
<i>arazdi</i>	Hariztia. Sakana erdialdean <i>-de(g)i</i> atzizkiarekin erabiltzen da: <i>arizdei</i> .
<i>aran</i>	Basarana. Urdiainen kontsonante dardarkaria galtzen du: <i>(a)an</i> .
<i>arantza</i>	Aranak edo basaranak ematen dituen zuhaixka. Urdiainen <i>ansasia</i> .
<i>araro</i>	Egurrezko para, eultzia egiterakoan garia jasotzeko erabiltzen zena. Etxarri Aranatzen, <i>adaro</i> , labea garbitzeko ilargi erdiaren itxura duen tresnari esaten zaio.
<i>arasa</i>	Apala. Urdiainen eta Sakana erdialdean kontsonante dardarkaria galdurik duela burutzen da, <i>(a)asa</i> .
<i>ardai</i>	Ardagai. Sakana erdialdean diptongo itxiera jasan duelarik: <i>ardei</i> .
<i>ardi</i>	1. Ahardia, txerri emea. 2. Ardia.
<i>ardo</i>	Ardoa.
<i>argitu</i>	Argitu, eguzkia atera.



<i>argiya il</i>	Argia itzali.
<i>argizai</i>	Argizari, ezko. Diptongo bigarrenkaria itxirik ere erabili zuen Izagirrek: <i>argizei</i> .
<i>ariko</i>	Ahariko, ahari gaztea.
<i>arima</i>	Arima.
<i>arin</i>	Arin, pisu gutxikoa.
<i>arkakuso</i>	Arkakuso, kukuso. Sakana erdialdean <i>arkakoso</i> eta Lakuntzan <i>alkakoso</i> .
<i>arkea</i>	Arkera, ardiaren araldia. Izagirrek <i>arke(r)a doo</i> 'está en celo la oveja' jaso zuen.
<i>ariya irun</i>	Irun, ardaztu.
<i>armimau</i>	Armiarma. Sakanan, zenbat herri hainbeste burutzapen ditugu ia kasu honetan: <i>amarratza</i> (Olazti), <i>imirrimau</i> (Urdiain), <i>mirrimarrau</i> (Bakaiku), <i>amimoro</i> (Etxarri Aranatz), <i>amimora</i> (Arbizu, Lizarragabengo), <i>armimosa</i> (Lakuntza), <i>imermau</i> (Arruazu), <i>irmiarmario</i> (Uharte), <i>irmimau</i> (Irañeta).
<i>arrailau</i>	Arraildu.
<i>arrai</i>	Arraina. Sakana erdialdean diptongoa itxirik: <i>arrei</i> .
<i>arrama</i>	Zuhaitzen adarra.
<i>arramaiyo</i>	Armairua. Bokal protetikoa du altsasueran eta Burundan.
<i>arrano</i>	Saia, putre. Horrela erabiltzen da Sakana osoan.
<i>arranzale</i>	Arrantzalea.
<i>arrasto</i>	Arrasto, marra.
<i>arriba</i>	Arriba.
<i>arrija</i>	Arreo, ezkongaiak ezkontzara eramaten zuena.
<i>arri</i>	1. Harria. 2. Kazkabarra.
<i>arrantza</i>	Arrautza. Izagirrek <i>arrantza</i> ere jaso zuen.
<i>artai</i> <sup>197</sup>	Arditegia. Ardien ukuilua.

197. Hauxe izango litzatekembere bilakabidea: *arditegi* > *artegi* > *artei* > *artai*.

<i>artalde</i>	Ardi taldea. Izagirrek <i>arxaldo</i> ere jaso zuen eta azken burutzapen hau, <i>arsaldo</i> , erabiltzen da Sakana erdialdean.
<i>artz</i>	Hartza.
<i>arutza</i>	Hara, haruntza. Sakana erdialdean dardarkaria galdurik erabiltzen da, <i>autza</i> .
<i>asarrau</i>	Haserretu. <i>Asarratu</i> ere erabili zuen Izagirrek.
<i>astiarte</i>	Asteartea.
<i>astiaizkena</i>	Asteazkena.
<i>astitu</i>	Ogia jaso labean sartuta dagoela. Sakana osoan erabiltzen da burutzapen hau.
<i>astimin</i>	Labean sartu gabe denbora gehiegi edukitzeagatik ogiak hartzen duen zaporea.
<i>asun</i>	Asuna. Sakana erdialdean burutzapen palatalizatua erabiltzen da: <i>axuña/e</i> .
<i>ata, atazi</i>	Atera, aterarazi.
<i>atai</i>	Atea. Sakana osoan erabiltzen da horrela eta ez <i>ate</i> burutzapena. <i>Atari</i> erabiltzen da beraz, ate adieraziz.
<i>atalaga</i>	Etxeko atari handiari eusteko erabiltzen den haga. Horrela erabiltzen da Sakana gehienez.
<i>atorra</i>	Atorra, alkandora. <i>Atorra</i> baino ez da erabiltzen da Sakana osoan.
<i>atsa</i>	Hatsa, arnasa.
<i>atsalde</i>	Arratsalde. Sakana osoan horrelaxe.
<i>atsandu</i>	Atsedean hartu. Hats hartu.
<i>attuna</i>	Aitona. <i>Aitajauna</i> ere jaso zuen Izagirrek. Sakana gehienez <i>aittun</i> entzun daiteke.
<i>atxi, atxikueza</i>	Haur joko batean erabiltzen den makila. Makila honekin ( <i>atxikueza</i> ) beste makila bat ( <i>atxiya</i> ) jo eta airean dagoela, beste kolpe bat emanez, ahalik eta urrutien bota behar da.
<i>atzapar</i>	Atzaparra.

<i>auli</i>	Eulia. Sakana osoan <i>eu</i> > <i>au</i> diptongo txandaketa buruturik ageri da.
<i>aulubi</i>	Marrubia. Burundako burutzapena dugu hau. Sakana erdialdean <i>marrubi</i> .
<i>auntzu(tu)</i>	Antzu, antzutu. Umerik izan ezin duen ardia Izagirrenen arabera. Sakana osoan erabiltzen da edozein animaliari egokitua. Aditzak, bestalde, Burundan nola Sakana erdialdean, animalia bati esnea moztea adierazten du.
<i>auri</i>	Euria. Sakana osoan.
<i>auritintina</i>	Euri tanta.
<i>aurpegi</i>	Aurpegia. Sakana erdialdean kontsonante herskari ahos-tunaren galera jasaten du: <i>aurpei</i> .
<i>autsi</i>	1. Eutsi. 2. Zuhurra, zekena, zikoitza.
<i>autsuiyel</i>	Lixiba egiterakoan erabiltzen den oihal edo trapua.
<i>autzi</i> <sup>198</sup>	Utzi. Horrela erabiltzen da Sakana osoan.
<i>auznartu</i>	Hausnartu. Bereziki behiei egokitzen zaie.
<i>axai</i>	Azeria. Diptongoa itxirik ere, <i>axei</i> , erabili zuen Izagirrek.
<i>axui</i>	Axuria, arkumea.
<i>azkan ibili</i>	Hazka egin.
<i>azkazal</i>	Azazkal. Sakana erdialdean <i>azkazal</i> .
<i>azkonar</i>	Azkonarra.
<i>azpijan</i>	Azpijokoa. Zerbait estalian egin.
<i>aztal</i>	1. Orpoa, Izagirrenen arabera. Sakana erdialdean zangoa edo bernaren atzeko alde izango genuke. 2. Arropako orbana, lohiz egindakoa.
<i>azterrikan ibili</i>	Muturrarekin lurra irauli. Induska ibili.
<i>azundu</i>	Izagirrek txerria ordotsarekin gurutzatzea dela adierazten du. Sakana erdialdean, bestalde, edozein animalia umedun gelditzea da.
<i>bai</i>	1. Behia. Diptongoa itxirik ere jaso zuen. 2. Bahea.

198. *u* > *au* diptongazioa Sakana osoan suertatzen da, burutzapen honen kasuan.

<i>bara</i>	Barea. Mendebaldeko hizkeren antzera, bukaerako bokalaren irekiera eta guzti.
<i>barga</i>	Malda, aldapa, amildegia.
<i>barratu</i>	Zabaldu, sakabanatu. Sakana osoan erabiltzen da.
<i>barre</i>	Barre. Sakana erdialdean <i>farra</i> eta <i>irri</i> .
<i>barride</i>	Auzoa. Barrioa.
<i>barru</i>	Barrua, barnea. Sakana erdialdean gehiago erabiltzen da bigarrena.
<i>basokatu</i>	Basakatua.
<i>basoziar</i>	Basozeharra, basoko malda.
<i>basurda</i>	Basurdea. Mendebaldeko hizkeren antzera bukaerako bokala irekia.
<i>bat-batin</i>	Bat-batean.
<i>bateonbatek</i>	Baten batek, norbaitek, bakarren batek. Sakana osoan erabiltzen da.
<i>batza</i>	Baratze. Kontsonante dardarkaria galdu egin da. Berriz ere, mendebaldeko hizkeren antzera, bukaerako bokala irekirik.
<i>batzui</i>	Baratxuri, berakatz. Birritan erori zaio kontsonante dardarkaria. Sakana erdialdean <i>batxui</i> .
<i>bear</i> <sup>199</sup> , <i>bearsoro</i>	Belar. Sakana erdialdean ez du kontsonante albokaria galtzen.
<i>begimakur</i>	Begi-okker, betoker. Horrela erabiltzen da Sakana osoan.
<i>beginini</i>	Begiko ninia.
<i>begitila</i>	Betilea. Izagirrek 'bekaina' ere badela dio.
<i>bekain</i>	Bekokia, <i>kopeta</i> Sakana erdialdean.
<i>bekela</i>	Bezala. Burundan eta Lizarragan erabiltzen da.
<i>belarri, belarritako</i>	Belarria, belarritakoa. Sakana erdialdean burutzapen sinkopatua erabiltzen da, <i>belartako</i> .
<i>belaun</i>	Belauna. Sakana osoan.

199. Mendebaldeko joera ageri du jatorrian, hots, bokal artean kontsonante herskari hortzetako ahos-tuna dardarkariarekin txandakatu ondoren, azken honen galera jasan du: *bedar* > *berar* > *bear*.<sup>9</sup>

<i>bela</i>	Bele. Bukaerako bokala irekirik, mendebaldean bezala.
<i>bendu</i>	Askaria. Hasierako kontsonantea txandakaturik ( <i>b / m</i> ) Sakana osoan. 'Mer(i)enda'tik dator.
<i>besalai</i>	Ganadua, uztarran dela, elkarri bultzaka ari dela adierazteko erabiltzen da Sakana osoan.
<i>besotako</i>	Besoetakoa.
<i>bideberri</i>	Errepideari esaten zaio horrela Sakana osoan.
<i>biets, biestu</i>	Bakan. Sakana erdialdean ere <i>bakan</i> eta <i>bakandu</i> .
<i>bietz</i>	Behatza.
<i>bigai</i>	Bigantxa, behikume emea. Sakana erdialdean <i>bigentxa</i> .
<i>bigun</i>	Biguna, beratza.
<i>biki</i>	Bikia. Urdiainen, Bakaikun eta Sakana erdialdean <i>biboro/ biber</i> .
<i>bilau</i>	Bilatu, <i>atu &gt; au</i> bilakabidea buruturik.
<i>bildotx</i>	Bildots, urtea bete ez duen arkumea.
<i>biliskorrian</i>	Biluzik, larru gorritan. Horrela erabiltzen da Sakana osoan.
<i>biotzun</i>	Behazuna. Sakana erdialdean <i>biezein</i> .
<i>birika</i>	1. Birika, arnasketa-organoa. 2. Biriki, txistorra modukoa.
<i>biturri</i>	Sarde edo beste zenbait nekazal tresnen hortza. Izagirrek "la púa (de la horca)" jaso zuen.
<i>bixi-bixi ein</i>	Kilimatu, kilikatu. Sakana erdialdean <i>atxikorak ein</i> .
<i>bizargile, bizartai</i>	Bizargilea. Bizartegia.
<i>bizersu</i>	Bizartsua.
<i>bizkor</i>	Azkarra, arina.
<i>borobil</i>	Biribila. Sakana erdialdean kontsonante dardarkaria galdurik.
<i>borrosto</i>	Artaburuan arto bikorrak gordetzen dituen hosto multzoa. Sakana erdialdean <i>kapazo</i> .
<i>bostortza</i>	Bost hortz dituen nekazal tresna.

<i>bota</i>	1. Bota, jaurti. 2. Erori.
<i>buexak</i>	Artaziak, guraizeak.
<i>bulkau</i>	Bultzatu.
<i>bultzurrun</i>	Giltzurruna. Sakana erdialdean <i>gultzurrun</i> .
<i>buluntzarr</i> <sup>200</sup>	Zalia, burruntzalia. Sakana erdialdean <i>zali</i> .
<i>burni</i>	Burdina.
<i>burnindai</i>	Budinezko para, ogia labean sartzeko erabiltzen dena. Ur-diainen eta Bakaikun <i>labendai</i> (egurrezkoa) eta Sakana erdialdean <i>endai</i> .
<i>burnisarda</i>	Burdinazko sardea. Bukaerako bokala irekirik.
<i>burutsin</i>	Burua hutsik, agerian.
<i>burzil</i>	Gurdiaren ardatza. Sakana erdialdean <i>zil</i> .
<i>buzten</i>	Buztana.
<i>danbora</i>	Panderoa, danbor txikia.
<i>diabru</i>	Deabrua.
<i>diemunin</i>	Biharamunean.
<i>dirdirra</i>	Dirdira.
<i>domeka</i>	Igandea. Burunda osoan.
<i>dunba</i>	Joarea, gorputz handia eta aho estua duena.
<i>ebai, ebei</i>	Ebaki, moztu. Ebakia, zauria.
<i>edar</i>	Likidoetarako neurria. Horrela jaso zuen Izagirrek: <i>Bi edarra-ur agan ekarri</i> “trae dos herradas de agua”. Burutzapen metatesiduna da, beraz.
<i>edozein</i>	Edozein.
<i>egosi</i>	1. Egosi. 2. Erosi.
<i>egutera</i>	Egutera, eguzki-begia.
<i>egueldi</i>	Eguraldi.
<i>egundu, eguna in</i>	Ehundu, ehuna egin.

200. Burutzapen metatesiduna dugu.

<i>elatzu</i>	Laratz. Sakana erdialdean <i>laatza</i> .
<i>elizako</i>	Oliadura, oleazioa. Sakana erdialdean <i>oliyodure</i> .
<i>elkor</i>	Elkor. Gogorra eta lehorra adierazi zuen Izagirrek. Sakana erdialdean <i>kelkor</i> .
<i>eloki</i>	Elorri edo arantza zuriaren fruitu gorria. Etxarri Aranatzen <i>elotxi</i> eta Bakaikun <i>elortxa</i> .
<i>elorri</i>	Elorria.
<i>eltxo</i>	Eltxoa. Sakana erdialdean jatorrizko diptongoa txandakaturik: <i>aultxo</i> .
<i>eltze</i>	Eltzea, lapikoa. Horrela erabiltzen da Sakana osoan.
<i>elur, elurte</i>	Elurra, elurtea.
<i>eraitzi</i>	Iritzi, iruditu. <i>Irautu</i> burutzapena ere jaso zuen Izagirrek.
<i>erakai</i>	Erokeria. Sakana erdialdean ez da diptongo bigarrenkaria irekitzen: <i>erakei</i> .
<i>erdealduna</i>	Erdalduna.
<i>erde, erdetsu</i>	Lerde, adurra. Lerdetsua. Sakanako burutzapena dugu.
<i>erdibanako</i>	Erdizka edukitzen dena dela adierazi zuen Izagirrek.
<i>erdoi</i>	Herdoila. Arbizun eta Lakuntzan burutzapen metatesiduna: <i>ordei</i> .
<i>ergunera</i>	Erbinudea. Sakana erdialdean <i>ergueniri</i> .
<i>ereinun</i>	Herenegun. Sakana erdialdean <i>yaniaun</i> / <i>aaniun</i> .
<i>eriyotza</i>	Heriotza.
<i>erkin</i>	Ahula eta txikia (“raqúitico”) adierazteko erabili zuen Izagirrek.
<i>erlatei, erlontzi</i>	Erlategia.
<i>erleino, erlaino</i>	Behe-lainoa. Sakana osoan erabiltzen da.
<i>erleju</i>	Erlojua. Sakana osoan erabiltzen da horrela.
<i>ernai yon</i>	Ernai egon. Haurdun.
<i>errain</i>	Erraina. Sakana erdialdean diptongoa itxirik: <i>errein</i> .

<i>errai</i>	Gizakiaren gerriko atzealdea. Izagirrek “los riñones” itzuli zuen. Sakana erdialdean diptongoa txandakaturik: <i>errei</i> .
<i>errape</i>	Errapea, titia. Gehienbat abereekin erabiltzen da.
<i>erreka</i>	Erreka, ibaitxo.
<i>erren</i>	Arantza. Horrela erabiltzen da Sakana osoan.
<i>errendaketan yon</i>	Botaka egin. Sakana erdialdean <i>botaketan yon</i> .
<i>erreten</i>	Ibaietako presa. Burunda osoan erabiltzen da.
<i>erriko etxe</i>	Udaletxea. Etxarri Aranatzen <i>etxe aundi</i> .
<i>errixori</i>	Txori arrunta, “gorrión”. Unanun ere horrela erabiltzen dute. Sakana erdialdean <i>galartxori</i> eta <i>paatetxoi</i> . Urdiainen <i>erlizxori</i> .
<i>erro</i>	Abereen titia.
<i>errotazai</i>	Errotazaina.
<i>errueda</i>	Arrabioa. Izagirrek “la salamandra” itzuli zuen.
<i>esenatu</i>	Esnatu, itzerri. Burunda osoan erabiltzen da bokal protetikoa eta guzti.
<i>esene</i>	Esne. Burundan eta Lizarragan erabiltzen da horrela.
<i>eskualduna</i>	Euskalduna.
<i>eskueaz</i>	Euskaraz.
<i>eskubera</i>	Eskuaira, nekazal tresna.
<i>eskueldi</i>	Sorta. Izagirrek “el manojo” itzuli zuen.
<i>eskukara</i>	Eskukada.
<i>eskutur</i>	Eskumuturra. Horrela erabiltzen da Sakana osoan.
<i>eskutxi</i>	Esku itxi, ukabila.
<i>espil</i>	Hesia. Izagirrek “el cerrado” itzuli zuen.
<i>estaldu</i>	Estali. Partizipio analogikoa izango genuke hau.
<i>estutasun</i>	Larrialdia.



<i>etseiki</i>	Zikirioz egindako soka garia lotzeko. Sakana erdialdean <i>eseki</i> .
<i>etxafua</i>	Suziria, txapligua. “Echafuego”tik dator.
<i>etxain</i>	Teilatua. Etxe gaina, seguru asko.
<i>etzidamu</i>	Etzidamu. Horrela erabiltzen da Sakana osoan.
<i>etzi</i>	Etzi.
<i>ezaiyen-ezaiyen</i>	Poliki-poliki, ezari-ezarian.
<i>ezkaatz</i>	Ezkaratz. Kaleko atletik sukaldera bitarteko eremua etxean.
<i>ezkila</i>	Ezkila, kanpaia.
<i>ezkiluso</i>	‘Garrulus glandarius’ hegaztia. Bakaikun <i>eskuxo</i> eta Etxarri Aranatzen <i>exkabuxo</i> .
<i>ezkurbikor</i>	Ezkurra.
<i>ezpain</i>	Ezpain.
<i>ezpal</i>	1. Ezpala, aizkoraz moztutako egur zatia. 2. Gari multzoa, sorta. Sakana erdialdean <i>espal</i> .
<i>ezpartin</i>	Espartina.
<i>eztai</i>	Ezteia, ezkontza. Horrela erabiltzen da Burundan eta Dorraon. Etxarri Aranatzen, <i>ai</i> > <i>ei</i> diptongo txadaketa buruturik, gertakaria adierazi nahi du.
<i>eztainu</i>	Eskutoki bakarreko ontzia ura edateko.
<i>eztarri</i>	Eztarria, zintzurra.
<i>ezten-zulo</i>	Belarrian egindako zuloa ardiak markatzeko.
<i>ezti</i>	Eztia.
<i>eztul</i>	Eztula.
<i>ezur</i>	Hezurra.
<i>fan</i>	Joan. Sakana osoan erabiltzen da.
<i>fara</i>	Joarea. Kontsonante eta bokal txandaketak jasan ditu.
<i>fara-fara</i>	Mara-mara.

<i>farami</i>	Joare mihia, soinua ateratzen duen zintzilikaria.
<i>ferrazaile</i>	Ferratzailea.
<i>fistuotsa</i>	Txistua. Kasu honetan trenaren txistu soinua.
<i>fraile</i>	Fraidea.
<i>gaildur</i>	Gailurra. Izagirrek teilatukoa dela aipatu zuen.
<i>gaitzetsi</i>	Utzi, abandonatu. Izagirrek amak alde batera utzitako arkumeari egokitu zion.
<i>gaixo</i>	Gaixoa.
<i>gaizki aziya</i>	Gaizki hezia.
<i>gaizkiesana</i>	Zurumurrua. Izagirrek “la maledicencia” itzuli zuen.
<i>galbai</i>	Galbahea, gariarendako bahea.
<i>galbaiyo</i>	Kalbarioa.
<i>galdu</i>	Galdu.
<i>galtzarpe</i>	Besapea, galtzarbea.
<i>ganbela</i>	Ganbela, aska. Abereei jana emateko tokia.
<i>gar</i>	Garra.
<i>garagar</i>	Garagarra.
<i>garesti</i>	Garestia.
<i>gargandila</i>	Ardiek eztarrian zintzilik dituzten haragizko bolatxoetako bakoitza.
<i>garitxo</i>	Garatxo. Sakana erdialdean <i>gantxo</i> eta <i>krantxo</i> .
<i>garizizpi</i>	Gari izpia.
<i>gate</i>	Katea. Sakana erdialdean herskari ahoskabearekin.
<i>gatza eman</i>	Gatzatu, gatza bota.
<i>gatzai</i>	Gatzagia.
<i>gatzontzi</i>	Gatzontzia.
<i>gazi</i>	Gazia, gezaren kontrakoa.

<i>gaztai</i>	Gazta.
<i>gaztain</i>	Gaztaina.
<i>gazanbera</i>	Mamia. Sakana osoan erabiltzen da horrela.
<i>gazura</i>	Gazura.
<i>gerba</i>	Barga.
<i>gerriko</i>	Gerrikoa.
<i>gertau</i>	Gertatu.
<i>gertu</i>	Gertu, hurbil.
<i>geza</i>	Geza, gaziaren kontrakoa.
<i>gezurti</i>	Gezurtia.
<i>gibel</i>	Gibela.
<i>gilbor</i>	Gilborra, gantza. Izagirrek “el sebo” itzuli zuen.
<i>gilda</i>	Gerezia, gila.
<i>giltza</i>	1. Giltza. 2. Iltzea.
<i>giltzazulo</i>	Atea giltzatzeko zuloa. Izagirrek “el cerrojo” itzuli zuen.
<i>giro</i>	Giroa, aroa.
<i>girtena</i>	Kirtena, giderra.
<i>giza(ra)jo</i>	Gizarajoa.
<i>giyer</i>	Giharra, gizen gutxi daukana.
<i>gizenki</i>	Giharraren aurkakoa, haragi gizena.
<i>goiko ganbara</i>	Goiko ganbara, etxearen erdiko solairua.
<i>goinata, goinatu</i>	Koinata, koinatua. Sakana erdialdean <i>goñeta</i> / <i>goñedo</i> .
<i>goiztar</i>	Goiztiarra.
<i>golda, goldau</i>	Golda, goldatu.
<i>gona</i>	Gona. Izagirrek “sayas” itzuli zuen.
<i>gori</i>	Goria.
<i>gosai</i>	Gosaria.

<i>gosetu</i>	Gosetu.
<i>guai</i>	Orain. Sakana osoan erabiltzen da.
<i>guaindokun</i>	Oraindik(an).
<i>guatu</i>	Goratu, jaso.
<i>guaurren</i>	Hurrengo aldi iragana. “La vez próxima pasada” itzuli zuen Izagirrek.
<i>guesuk</i>	Gurasoak.
<i>gurtera</i>	Gurdiaren lema uztarrarian sartzeko larruzko tresna. Etxarri Aranatzek <i>bartubela</i> .
<i>gurtol</i>	Gurdiaren aldeetako ohola. Horrela erabiltzen da Sakana osoan.
<i>gurziri</i>	Gurdi ziria, gurdiaren lema uztarrarian behar bezala lotzeko erabiltzen da. Sakana erdialdean <i>gurtzi(r)i</i> .
<i>ibaikalai</i>	Igerilaria. Etxarri Aranatzek <i>iyekalai</i> .
<i>ibai</i>	Ibaia. Arbizutik ekialdera <i>ubelde</i> .
<i>ibintza</i>	Uzta jaso ondorengo soroaren aprobetxamendua. Izagirrek “rastrojo” itzuli zuen.
<i>idergi</i> <sup>201</sup>	Ilargia.
<i>ifernuko etsai</i>	Pertsona oso gaiztoa.
<i>igitai</i>	Igitaia.
<i>igitaidun, igitalai</i>	Segalaria.
<i>iguntzi</i>	Erratz handia.
<i>igurai</i>	Soroak zaintzen dituenak. ‘Inguru’ eta ‘zain’ dira bere osa gaiak. Sakana osoan erabiltzen da.
<i>ikes</i> <sup>202</sup>	Ikasi.
<i>iketx</i>	Ikatza.
<i>ikezkin</i>	Ikazkina.
<i>ila</i>	Ilea. Bukaerako bokala txandakatu.
<i>ilarre</i>	Ilarra.

201. d / l txandaketa suertatu da, Sakana osoan bezala.

202. Burutzaen honetan eta hurrengoan asimilazio aurrerakaria suertatu da.

<i>ilerriguntzi</i>	Ilarrezko erratz handia. Sakana erdialdean <i>isetsa</i> .
<i>ilberri</i>	Ilberria. Izagirrek “el novilunio” itzuli zuen.
<i>ileti</i>	Ilintxa, ilintia.
<i>inbuluskan bota</i>	Itzulipurdika erori.
<i>indiyaba</i>	Babarruna.
<i>inguatu</i>	Inguratu, hurbildu.
<i>intxordi</i> <sup>203</sup>	Intxaurdia.
<i>intxosa</i>	Intsusa, zuhaitza. Etxarri Aranatzek <i>luxintxe</i> .
<i>intza</i>	Ihintza.
<i>iorrutsi</i>	Hautsa kendu. Izagirrek “sacudir el polvo” itzuli zuen.
<i>ipurmasail</i>	Ipurmamia. Izagirrek “la nalga” itzuli zuen.
<i>ipurteste</i>	Ipurdiko hestea.
<i>ipuruko</i>	Idi burukoa, behi edo idien buruan jartzen den larruzko elementua uztarria lotzeko.
<i>ira</i>	Ira, iratzea. Sakana erdialdean <i>ixtor</i> (iraztor).
<i>iraun</i>	Iraun.
<i>irausi</i>	Txerria, ahardia arreske.
<i>irautu</i>	Iruditu.
<i>irei</i>	Ireki. Sakana erdialdean diptongo bigarrenkaria irekirik: <i>irai</i> .
<i>irinbai</i>	Irinetarako bahea.
<i>irinyalki</i>	Baheari eusteko erabiltzen den egurra.
<i>irrintza</i>	Zaldien soinu edo garrasia.
<i>irristara</i>	Irristada.
<i>irruiti</i>	Urrun, urruti. Sakana osoan erabiltzen da.
<i>irun</i>	Irun.
<i>iruzki</i>	Eguzkia. Sakana osoan erabiltzen da.
<i>isus-zuin</i>	Soroan, eskuz ereiteko jartzen diren seinaleak.

203. *au > o* monoptaongazioa suertatu da burutzapen honetan, Sakana osoan bezala.

<i>isutsi</i>	Hazia eskuz bota soroan.
<i>itauli</i>	Euli handia, abereen inguruan dabilena. <i>Idi</i> eta <i>euli</i> dira bere osagaiak. Etxarri Aranatzan <i>mandauli</i> .
<i>itaurriko</i>	Behi edo idien aurrean doan pertsona. <i>Idi</i> eta <i>aurreko</i> dira bere osagaiak. Etxarri Aranatzan <i>itturriko</i> .
<i>itein</i>	1. Akaina. Etxarri Aranatzan <i>ikeñe</i> . 2. Izaina. Etxarri Aranatzan <i>izeñe</i> .
<i>itojin</i>	Itogina.
<i>itsetsi</i>	Itsatsi.
<i>itsu</i>	1. Itsua. 2. Zaldarra.
<i>itzai</i>	Itzaina. <i>Idi</i> eta <i>zain</i> dira bere osagaiak. Izagirrek “el carreterero” itzuli zuen.
<i>itzel</i>	Itzala.
<i>iyabiur</i>	Babak edo beste edozein leka ale jotzeko makilak. Sakana osoan erabiltzen da.
<i>iyasi</i>	lhesi.
<i>iya</i>	lha.
<i>iyo</i>	Eho.
<i>iyortzi</i>	Igurtzi.
<i>izaitu</i>	Irazegi, belardietan egiten da belarra daukan goiko zatia kenduz. Sakana erdialdean <i>izerai</i> .
<i>iyotsi</i>	Irentsi.
<i>izeko</i>	Izeba. Burunda osoan erabiltzen da.
<i>izera</i>	Izara, maindirea. Burunda osoan erabiltzen da.
<i>izerdi</i>	Izerdia.
<i>izerrau</i>	Izarratu.
<i>izkunde</i>	Hizkuntza.
<i>izotz</i>	Izotza, horma, jela. Izagirrek “la escarcha” itzuli zuen.

<i>izotz-garranga</i>	Teilatutik, esaterako, zintzilik dagoen izotz zatia. Etxarri Aranatzan <i>txintxirrin</i> .
<i>izter</i>	Izterra.
<i>izurratu</i>	Izorratu.
<i>izutu</i>	Izutu, beldurtu.
<i>jabebeiko</i> <sup>204</sup>	Jabe gabekoa.
<i>jai</i>	Jaia.
<i>jaiski</i>	Saskia, biribila eta irekia.
<i>jaitxi</i>	Jaitsi, behiak edo ardiak esaterako.
<i>jalki</i>	Bikortu. Sakana erdialdean <i>urbeldu, urkaldu, bikortu...</i>
<i>jamaz yon</i>	Ardia bere soinua egiten aritu.
<i>Jangeiko</i>	Jaungoikoa.
<i>jantzi</i>	Jantzi.
<i>jarri</i>	Jarri, paratu.
<i>jaso</i>	Jaso
<i>jaunka</i>	Zaunka.
<i>jito</i>	Ijitoa.
<i>joku</i>	Jokoa.
<i>jolasin ibili</i>	Jolasean aritu. Lakuntzatik ekialdera <i>olgotu</i> .
<i>jorraitxo</i>	Aitzur txikia.
<i>jorrau</i> <sup>205</sup>	Jorratu.
<i>josi</i>	Josi.
<i>joskin</i>	Josten duen pertsona.
<i>jostorratz</i>	Josteko orratza. Sakana osoan erabiltzen da.
<i>kafi</i>	Habia. Horrela erabiltzen da Sakana osoan.
<i>kaiku</i>	Kaikua, ontzia.

204. 'Jabe' eta 'bageko' dira bere osagaiak.

205. *atu* > *au* bilakabidea buruturik ageri da.

<i>kainu</i>	Iturria. Sakana erdialdean <i>ai</i> > <i>ei</i> txandaketa eta bustidura buruturik: <i>keñu</i> .
<i>kantaita</i>	Kantua, abestia.
<i>kantakan yon</i>	Abestu, kantuan aritu.
<i>kapasta</i>	Zomorroa. Izagirrek “caparra de oveja o de campo” itzuli zuen.
<i>kasko</i>	Kaskoa, buruko hezurra.
<i>katagorri</i>	Urtxintxa. Horrela erabiltzen da Sakana osoan.
<i>katilu</i>	Katilua, kikara.
<i>katu</i>	Katua.
<i>kazka(g)ar</i>	Kazkabarra. Sakana erdialdean <i>kaxkaar</i> .
<i>kazola</i>	Kazola, lapikoa. Sakana erdialdean <i>kazule</i> .
<i>ke</i>	Kea.
<i>kear</i>	Kedarra. Sakana erdialdean <i>kiar</i> .
<i>kimuka</i>	Hezur muina.
<i>kipula</i>	Tipula.
<i>koilera</i>	Koilara.
<i>koipe</i>	Koipea, gurina.
<i>kolarre</i> <sup>206</sup>	Artegia. Mendian ganadua biltzeko tokia.
<i>kolko</i>	Kolkoa, jantziaren eta bularraren arteko hutsunea.
<i>komun</i>	Komuna, gorputza libratzeko tokia.
<i>korosti</i>	Gorostia.
<i>koroztu</i>	Ongarritu.
<i>koskor</i>	Mokorra. Sakana erdialdean <i>sokor</i> .
<i>krisilu</i>	Kriseilua. Izagirrek “el candil de aceite” itzuli zuen.
<i>kukul</i>	Kaskar, balio gutxikoa, seguru asko.
<i>kuleka</i>	Loka. Arrautzak zaindu eta txitoak egiteko garaian dagoen oiloa.

206. Burutzapen metatesiduna dugu hauxe.



<i>kurrillo</i>	Kurriloa, hegazia.
<i>kurutza</i>	Gurutzea.
<i>labaina</i>	Aiztoa, labana. Izagirrek “la navaja de afeitár” itzuli zuen.
<i>labe</i>	Labea.
<i>laino</i>	Lainoa.
<i>laiyo</i> <sup>207</sup>	Leihoa.
<i>laiyotila</i>	1. Leihatila. 2. Leihoko ohola.
<i>laka</i>	Izagirrek “maquila” itzuli zuen, eta badirudi horixe zela errotariak zerbait ehotzeagatik jasotzen zuen irin zatia.
<i>lanbro</i>	Lanbroa, langarra.
<i>lanbroketan yon</i>	Lanbrotan aritu.
<i>langar</i>	Langarra, lanbroa.
<i>langila</i> <sup>208</sup>	Langilea.
<i>lantxurda</i>	Ihintza modukoa, baina izoztua. Sakana osoan erabiltzen da. Izagirrek “escarcha” itzuli zuen.
<i>lapur</i>	Lapurra.
<i>lar</i>	Laharra.
<i>larre(soro)</i>	Belardia, larrea.
<i>lasatu</i> <sup>209</sup>	Lasaitu, askatu. Izagirrek “aflojar” itzuli zuen. Sakana osoan erabiltzen da.
<i>laso</i>	Lasaitua, askatua.
<i>lastatei</i>	Lastategia, ahotzaren gordelekua.
<i>latz</i>	Latza.
<i>legun</i>	Leuna.
<i>leitu</i>	Irakurri.
<i>leka</i>	Leka.
<i>lenbailen</i>	Lehenbailehen.
<i>lengusu</i>	Lehengusua.

207. *ei* > *ai* diptongo irekiera buruturik.

208. Burutzapen honetan eta hurrengoan, bukaerako -e bokalaren irekiera suertatu da.

209. Latineko ‘lascare’ aditzetik dator. Sakana erdialdean *laskatu* burutzapena ere erabiltzen da.

<i>lenoo</i>	Lehenago.
<i>lepiziko</i>	Lehenbiziko.
<i>lepo</i>	Lepoa.
<i>lertu</i>	Lehertu.
<i>lixiba</i>	Lixiba.
<i>lixiberri</i>	Lixiba egiteko harrizko ontzia.
<i>liyo</i>	Lihoa.
<i>lizer</i>	Lizarra, zuhaitza.
<i>lizundu</i>	Lizundu. Sakana erdialdean burutzapen metatesiduna erabiltzen da: <i>luzind(d)u</i> .
<i>lodi</i>	Lodia.
<i>lokartu</i>	Loak hartu.
<i>lokatz</i>	Lokatza, lohia. Burundan erabiltzen da.
<i>lotsatu</i>	Lotsatu.
<i>lotu</i>	Lotu.
<i>lubak artu</i>	Loak hartu.
<i>luberritu</i>	Lurra lantzeko prestatu. Izagirrek “roturar” itzuli zuen.
<i>lukaika</i>	Lukainka.
<i>luma</i>	Luma.
<i>lurnarratu</i>	Lur mugitua.
<i>lur</i>	1. Lurra. 2. Zorua.
<i>lurra eman</i>	Lurperatu, lurra eman.
<i>maiku</i>	Medikua.
<i>maila</i>	Eskailerako zati bakoitza.
<i>mai</i>	Mahaia.
<i>maiza</i>	Artoa.
<i>maizporka</i>	Arto sorta, artaburuak lastoarekin elkarloturik.

<i>maiztar</i>	Maizterra.
<i>makar</i>	Makar, begian pilatzen malko lehortua.
<i>maki</i>	Maingua, herrera. Sakana osoan erabiltzen da.
<i>makila</i>	Makila. Sakana erdialdean -a organikorik gabe erabiltzen da.
<i>makur</i>	Okerra.
<i>makurtu</i>	1. Okertu. 2. Uzurtu.
<i>maldade</i>	Gaiztakeria.
<i>malera</i>	Igeltseroek masa egiteko ontzia garbitzeko burdinazko tresna.
<i>mardul</i>	Mardula.
<i>maritxogorritxo</i>	Pinpilinpauxa. Izagirrek “coccinela” itzuli zuen.
<i>martinsaltalai</i>	Matxinsaltoa. Arbizun, Unanun eta Irañetan ere horrela erabiltzen da. Etxarri Aranatzen <i>matiesaltakalai</i> .
<i>masdi</i>	Mahastia.
<i>masurta</i>	Masusta.
<i>maskui</i>	Maskuria. Sakana erdialdean <i>maskubi</i> .
<i>matagin</i>	Letagina. Sakana osoan erabiltzen da horrela.
<i>mats</i>	Mahatsa.
<i>mear</i>	Meharra, mehea.
<i>mendi zelai</i>	Mendi zelaia, zuhaitzik gabeko unea.
<i>mentzai</i>	Legamia, orantza. Sakana erdialdean <i>bentzai</i> .
<i>metatu</i>	Kimatu, Izagirreraren arabera. Sakana erdialdean ‘pilatu’ adierazten du.
<i>mintz</i>	Mintza.
<i>mirabuzten</i>	Ardiei belarrian zati bat kenduz egiten zaien seinalea. Miruaren buztanaren itxura izaten du.
<i>mi</i>	Mihia, mingaina.
<i>moldatau</i>	Prestatu, egokitu

<i>moskortu</i>	Mozkortu, horditu.
<i>motel</i>	Motela, gatzik gabea.
<i>motx</i>	Motza.
<i>muber</i>	Harri berezia, tximistarria.
<i>muberratu</i>	Eultzian harri zatiak, tximistarriak, jarri edo txertatu.
<i>muberri</i>	Mugarria.
<i>mun</i>	Muina. Izagirrek <i>buruko munak</i> “los sesos” itzuli zuen.
<i>musker</i>	Muskerra.
<i>musti</i>	Busti.
<i>musu-masail</i>	Masaila.
<i>mutil</i>	1. Mutila. 2. Morroia, zerbitzaria.
<i>mutiki</i>	14 urte bitarteko gizona, mutikoa.
<i>mutilzar</i>	Mutilzaharra.
<i>mutu</i>	Mutua.
<i>mutur</i>	Muturra.
<i>nafarrei</i>	Nafarrerria, gaixotasuna.
<i>nagitiekan</i>	Nagiak ateratzen. ‘Nagi’ eta ‘tiraka’ dira bere osagaiak.
<i>narru</i>	Larrua.
<i>nastu</i>	Nahastu, nahasi.
<i>naurritu</i>	Neurtu. Sakana erdialdean <i>laurritu</i> .
<i>negartintin</i>	Malkoa.
<i>nekatu</i>	Nekatu, unatu.
<i>nekazantza</i>	Nekazaritza, nekazalgora.
<i>nesaki</i>	14 urte bitarteko emakumezkoa, neskatoa.
<i>neskako</i>	Neska.
<i>neskazar</i>	Neskazaharra.
<i>neska</i>	1. Neska. 2. Neskamea.

<i>nun</i>	Non.
<i>nunai</i>	Nonahi.
<i>obeto</i>	Hobeki. Burunda osoan erabiltzen da horrela.
<i>odai</i>	Ekaitza. Sakana erdialdean euria dakarren laino beltzari esaten zaio horrela.
<i>odolki</i>	Odolkia. Burundan erabiltzen da horrela.
<i>oe</i>	Ohea. Sakana erdialdean <i>guatze</i> .
<i>ogi</i>	Ogia.
<i>oilanda</i>	Oilanda. Burundan palatalizatu gabe.
<i>oilar</i>	Oilarra. Burundan palatalizatu gabe.
<i>oilesko</i>	Oilaskoa. Burundan palatalizatu gabe.
<i>oineztura</i>	Tximista, oinaztura. Sakana osoan erabiltzen da, baina erdialdean palatalizaturik.
<i>okan</i>	Okarana.
<i>okela</i>	Okela, haragia.
<i>oker</i>	Begi-okerra, betokerra.
<i>okolu</i>	Ukuilua.
<i>oliazio</i>	Oleazioa, kristauen sakramentua, hiltzeko zorian dagoenari ematen zaiona.
<i>olo</i>	Oloa, zekalea.
<i>ondar</i>	Ondarra, soberan dagoena.
<i>ondasun</i>	Ondasuna.
<i>ondo-ondoti</i>	Barru-barrutik, sustraietatik.
<i>ondu</i>	Ondu, heldu.
<i>ongarri</i>	Ongarria, simaurra.
<i>ontzi</i>	Eultzia.
<i>opilki</i>	Ogi mehea.
<i>opo</i>	Orpoa.

<i>oraitz</i>	Oritz, esne murgila.
<i>orbel</i>	Orbela.
<i>ordots</i>	Ordotsa, txerri arra.
<i>oremai</i>	Oremahaia, orea egiteko egurrezko ontzia.
<i>orepazulo</i>	Teilatuan, paretatik kanpo irteten den zatian, dagoen zu- loa. Izagirrek “los huecos del alero” itzuli zuen.
<i>ori</i>	1. Hori, kolorea. 2. Hori, erakuslea.
<i>orratz</i>	Orratza.
<i>orrazi</i>	Orrazia.
<i>orru</i>	Orroa, behiaren garrasia.
<i>orz</i>	Hortza.
<i>osaba</i>	Osaba.
<i>osasun</i>	Osasuna.
<i>ostatu</i>	Ostatua.
<i>ostiele</i>	Ostirala.
<i>ostu</i>	Lapurtu, ostu.
<i>osun</i>	Osin, putzu sakona.
<i>ota</i>	Ota, landarea.
<i>otasa</i>	Ogi mota. Izagirrek “pan con bastante salvado” itzuli zuen.
<i>ote</i>	Ote, aditz partikula.
<i>otol</i>	Ogia labean sartzeko egurrezko para luzea.
<i>ots</i>	Hotsa.
<i>ots ein</i>	Deitu, hots egin.
<i>otso</i>	Otsoa.
<i>oyukan</i>	Oihuka.
<i>ozka in</i>	Hozka egin, kosk egin.
<i>ozpin</i>	Ozpina.

<i>pagadi</i>	Pagadia. Sakana erdialdean <i>fagadei</i> .
<i>pagaxibikor</i>	Pagatxa. Sakana erdialdean <i>fagatxi</i> .
<i>partz</i>	Partza. Izagirrek “liendre” itzuli zuen.
<i>pastarrotz</i>	Zakuak josteko orratza. Burutzapen metatesiduna dugu.
<i>patera</i>	Platera.
<i>paterkara</i>	Platerkada.
<i>patu</i>	1. Paratu, ezarri. 2. Pagatu, ordaindu.
<i>per(r)ejila</i>	Perrexila, sukaldaritzan erabiltzen den belar.
<i>pertika</i>	Pertika, abereak akuilatzeko makila.
<i>pertz</i>	Pertza, abereen janariak egosteko ontzia.
<i>pila</i>	Pila.
<i>pion</i>	Peoia.
<i>piperr</i>	Piperra.
<i>pipi</i>	Pipia. Izagirrek “la polilla de la madera” itzuli zuen.
<i>pits</i>	Bitsa, aparra. Sakana erdialdean <i>apar</i> :
<i>pitxer</i>	Pitxerra, likidoetarako ontzia.
<i>pixu</i>	Pisua.
<i>pizkor</i>	Bizkorra, bizia.
<i>premiatu</i>	Premiatu, behar izan. Sakana osoan erabiltzen da.
<i>prointzeno</i>	Probintzianoa, gipuzkoarra. Sakana osoan erabiltzen da.
<i>pulsu</i>	Lokia. Sakana erdialdean <i>lue</i> .
<i>safai</i>	Sabaia, ganbara. Izagirrek “el local más alto de la casa” itzuli zuen.
<i>sagar</i>	Sagarra.
<i>sagarmin</i>	Sagarmina. Berez sortutako sagarrondo.
<i>saiets</i>	Saihetsa.
<i>sakan</i>	Sakana, leku sakona.

<i>sagona</i>	Xaboia. Sakana erdialdean <i>jabon</i> .
<i>salda</i>	Salda.
<i>saldu</i>	Saldu.
<i>samur</i>	Samurra.
<i>sare</i>	Ardiei ukuiluan, ganbelaren gainaldean gehienetan, belarra jartzekoa, eskailera baten itxura izaten du, baina etzanda jartzen da. Izagirrek “un pesebre (en forma de reja para poner la hierba a las ovejas)” itzuli zuen.
<i>sarri</i>	Sarri. Landareei egokiturik, horiek ugari ageri direnean, itxi-itxirik eta estu-esturik, erabiltzen da.
<i>sartu</i>	Sartu.
<i>sasi, sasidi</i>	Sasia. Sasitokia. Sakana erdialdean <i>sasidei</i> .
<i>sataga</i>	Ikazkinek txondorreen erabiltzen duten haga luzea, txondorreko su-etxeko egurrak mugitzeko. Sakana osoan erabiltzen da.
<i>sator</i>	Satorra.
<i>satar</i>	Labea garbitzeko erratza.
<i>sega(la)i</i>	Segalaria.
<i>sega-poto</i>	Sega zorrozteko harria gordetzeko ontzia.
<i>sekura</i>	Lehortea.
<i>senargei</i>	Senargaia.
<i>senarramaztik</i>	Senar-emazteak.
<i>sendatu</i>	Sendatu, osatu.
<i>sendo</i>	Sendoa.
<i>senide</i>	Senidea, familiakoa.
<i>sereno</i>	Ihintza. <i>Intza</i> burutzapena ere ageri da.
<i>siets</i>	Leku urtsua, hezetasun handikoa. Sakana erdialdean <i>siyets</i> erabiltzen da.
<i>sinistatu</i>	Sinistu.



<i>sits</i>	Sitsa. Izagirrek “la polilla de la tela” itzuli zuen.
<i>soin</i>	1. Gorputza. 2. Pisu unitatea. Izagirrek “una carga” itzuli zuen.
<i>soingain</i>	Bizkarra.
<i>sorgin</i>	Sorgina.
<i>sorginaize</i>	Haize-zurrumbiloa.
<i>sorginkei</i>	Sorginkeria.
<i>soro</i>	Soroa, alorra. Ereiteko erabiltzen den lur zatia.
<i>sor</i>	Gorra. Horrela erabiltzen da Sakana osoan.
<i>subandar</i>	Zuhandorra, zuhaitza. Sakana erdialdean <i>sugendur</i> .
<i>subandilla</i>	Sugandila. Sakana erdialdean <i>sugendille</i> .
<i>sube</i>	Sugea.
<i>subestu</i>	Ohol bat beste baten gainean josi.
<i>suegal</i>	Suaren albo.
<i>sugur</i>	Sudurra.
<i>sugurzulo</i>	Sudurzuloa.
<i>sui</i>	Suhia.
<i>sukalde</i>	Sukaldea.
<i>surtako auts</i>	Errautsa. Sakana erdialdean <i>sukauts</i> .
<i>susea</i>	Behiaren araldia.
<i>sutaila</i>	Errementaria.
<i>sutei</i>	Sutegia. Izagirrek “el crisol” itzuli zuen.
<i>talaburni</i>	Taloea egiteko para.
<i>taltalkan</i>	Dardarati.
<i>taltalkara</i>	Dardara.
<i>talo</i>	Taloea.
<i>tapilo</i>	Korapiloea. Sakana erdialdean <i>topillo</i> .

<i>teila</i>	Teila.
<i>tiatu</i>	Tiratu, bota, jaurtiki.
<i>titera</i>	Titarea.
<i>titi</i>	Titia.
<i>tokan</i>	Toka, alokutiboa.
<i>triku</i>	Trikua, kirikinoa, sagarroia.
<i>tu</i>	Tua, listua.
<i>txal</i>	Txahala.
<i>txalbearra</i>	Belar mota. <i>Txahal</i> eta <i>belarra</i> izan daitezke bere osagaiak.
<i>txanbolin</i>	Danbolina, danbor txikia.
<i>txapiskol</i>	Zapaburua.
<i>txarrantxa</i>	Burdinazko puntak dituen ohola, lihoa orrazteko. Horrela erabiltzen da Lakuntzan eta Iturmendin ere.
<i>txastar</i>	Txikia eta nahi ez dena. Balio gutxikoa.
<i>txibita</i>	Lakio mota.
<i>tximinia</i>	Tximinia.
<i>txindurri</i>	Inurria. Sakana erdialdean <i>txingurri</i> .
<i>txinger</i>	Behatz txikia.
<i>txingura</i>	Ingudea.
<i>txintxu</i>	Zintzoa.
<i>txingortu</i>	Txigortu.
<i>txipu</i>	Makala, zuhaitza.
<i>txirrika</i>	Gurpila.
<i>txistera</i>	Zizarea.
<i>txisterazi</i>	Eultzia, tresna.
<i>txofraki</i>	Habia. <i>Txori</i> eta <i>kafi</i> dira bere osagaiak.
<i>txoko</i>	Kaskoa. Izagirrek “el occipucio” itzuli zuen.

<i>txondor</i>	Txondorra.
<i>txorikaka</i>	Txorikaka.
<i>txorikuma</i>	Txorikumea.
<i>txotxomar</i>	Zotza.
<i>txuma</i>	Kopeta gaineko ile adatsa.
<i>ubela</i>	Uhala. Gerrikoa. Horrela erabiltzen da Sakana osoan.
<i>ubelde</i>	Uraren hazkundera. Arbizutik ekialdera ibaia adierazteko erabiltzen da.
<i>uberaxa</i>	Igela.
<i>ubez-, ubezaita</i>	Ordea. Aitaordea.
<i>udaberi</i>	Udaberria.
<i>udaizken</i>	Udazkena.
<i>udara</i>	Udarea, madaria.
<i>ukatu</i>	Ukatu.
<i>ukulondo</i>	Ukondoa. Horrela erabiltzen da Sakana osoan.
<i>umezurz</i>	Umezurtza.
<i>ume</i>	Umea.
<i>unide</i>	Inudea. Burutzapen metatesiduna.
<i>untza</i>	Huntza.
<i>urei</i>	Eduki. Etxarri Aranatzen <i>urai</i> .
<i>urrena</i>	Jarraian, ondoren, hurren(go)a.
<i>urritz</i>	Urritza.
<i>ursagu</i>	Ur-sagua. Izagirrek “la rata de río que come plantas” itzuli zuen.
<i>urtu</i>	Urtu.
<i>urtxistin</i>	Ur zipriztina.
<i>usai</i>	Usaina.

<i>ustai</i>	Joarea eusteko egur biribila.
<i>ustel</i>	Ustela.
<i>uso</i>	Usoa.
<i>uxerratu</i>	Txerriak muturrarekin lurra irauli edo mugitu.
<i>uzterri</i>	Uztarria.
<i>xakar</i>	Zakarra.
<i>yaili</i>	Eralgi, mugitu.
<i>yakusi</i>	Erakutsi.
<i>yalki</i> <sup>210</sup>	Eralki, bahetu.
<i>yan</i>	1. Eroan, eraman. 2. Edan.
<i>yantzi</i>	Erantzi. Izagirrek kontrako esanahia jaso zuen. Sakana erdialdean ere horrela erabiltzen da, <i>jantzi</i> eta <i>yantzi</i> bereizten direlarik.
<i>yazain</i> <sup>211</sup>	Irazeki, piztu.
<i>yaztun</i>	Eraztuna.
<i>yikurri</i>	Bikortu. Etxarri Aranatzen <i>urbeldu</i> .
<i>yon</i>	Egon
<i>zagi</i>	Zahagia. Ardoa gordetzeko larruzko ontzia.
<i>zail</i>	Zaila.
<i>zain</i>	Zaina.
<i>zai</i>	Laboreen azal xehatua.
<i>zaldiki</i>	Zaldikia, zaldiaren haragia.
<i>zanko</i>	Zangoa.
<i>zaparrada</i>	Euri jasa.
<i>zapatain</i>	Zapatagina.
<i>zapatu</i>	Zapaldu.
<i>zartai</i>	Zartagina.

210. Aurrekoen kasuan bezala, ondorengo da bere bilakabidea: *eralki* > (darkariaren galera) *ealki* > (hasierako e- bokalaren itxiera) *ialki* > (i bokalaren kontsonantizazioa) *yalki*.

211. Ondorengo da bere bilakabidea: *irazegi* > (darkariaren galera) *iazegi* > (herskariaren galera) *iazei* > (i bokalaren kontsonantizazioa) *yazei* > (ei > ai diptongo irekiera) *yazai* > (bukae-rako sudurkariaren protesia) *yazain*.

<i>zarzaro</i>	Zahartzaroa.
<i>zata</i>	Gomazko oinetakoa.
<i>zekor</i>	Zekorra.
<i>zelai</i>	Zelaia, eremu laua.
<i>zerrauts</i>	Egurraren hautsa.
<i>zezen</i>	Zezena.
<i>zi</i>	1. Ihia. 2. Erretokia.
<i>zierra-zapo</i>	Ibai eta erreketako oskoldun txikia. 'Gammarus pulex'. Izagirrek <i>urzorri</i> esaten diola berak jaso zuen.
<i>zikiyo</i>	Zikirioa, zekalea.
<i>zil</i>	Zila.
<i>zimurguna</i>	Zimurra.
<i>zior</i>	Zigorra, makila malgua.
<i>zirin</i>	Zirauna.
<i>zirritu</i>	Zirrikitua.
<i>zize</i>	Ziza, perretxikoa.
<i>zizilu</i>	Aulki luzea, jende asko esertzeko.
<i>zoiti</i>	Zohia, aitzurrez ateratzen den lur zatia, belarra eta guzti, eta txaboletako teilatua egiteko erabiltzen zen.
<i>zorri</i>	Zorria.
<i>zorro</i>	Behatzetako zauriak estaltzekoa, gehienetan larruzkoa edo oihalezkoa.
<i>zotola</i>	Txerrien txabola basoan.
<i>zulanguna</i>	Zoruko gorabeherak. Izagirrek "altibajo" itzuli zuen.
<i>zuldur</i>	Abereei larru azpian sortzen zaien arra.
<i>zuma</i>	Zumea, zuhaixka.
<i>zurgin</i>	Zurgina.
<i>zuti</i>	Zutik.

## 6.2. Altsasu (Burunda) eta Sakana erdialdearen arteko isoglosa lexikoak

ALTSASU	SAKANA ERDIALDEA	BATUA
<i>antux</i>	<i>atije</i>	doministiku
<i>apaiz</i>	<i>apez</i>	apaiz
<i>aulubi</i>	<i>marrubi</i>	marrubi
<i>autsi</i>	<i>auskin, autsin</i>	eutsi
<i>barre</i>	<i>farra, parra, irri</i>	barre
<i>barru</i>	<i>barne</i>	barru, barne
<i>bear</i>	<i>belar</i>	belar
<i>biki</i>	<i>biboro, bibero, bixki</i>	biki
<i>bultzurrun</i>	<i>gultzurrin, giltzurrin</i>	giltzurrun
<i>domeka</i>	<i>iyende</i>	igande
<i>eroan</i>	<i>yaman, eaman</i>	eraman
<i>errapatu</i>	<i>guartu</i>	ohartu
<i>eztai</i>	<i>ezkontza</i>	ezkontza, eztei
<i>gabinara</i>	<i>iñerexagu, gauxirrin</i>	saguzar
<i>galte</i>	<i>kalte</i>	kalte
<i>garagarrila</i>	<i>garagarzaro</i>	ekain
<i>gate</i>	<i>kate</i>	kate
<i>gaztaia</i>	<i>gazta</i>	gazta
<i>ilarriguntzi</i>	<i>isets</i>	erratz
<i>ira</i>	<i>ixtorra</i>	garo
<i>itein</i>	<i>izein</i>	izain
<i>iyo</i>	<i>itzo(o)</i>	igo
<i>izara</i>	<i>menddere</i>	izara, maindire
<i>izeko</i>	<i>izeba</i>	izeba
<i>jorratu</i>	<i>forratu</i>	jorratu
<i>jostai</i>	<i>ostots, ortots</i>	trumoi

<i>kare</i>	<i>galtziñe</i>	<i>kare</i>
<i>kipula</i>	<i>tipula</i>	<i>tipula</i>
<i>korrika</i>	<i>laisterkan</i>	<i>korrika</i>
<i>masurta</i>	<i>masusta</i>	<i>masusta</i>
<i>mentzai</i>	<i>bentzai</i>	<i>legamia</i>
<i>musti</i>	<i>busti</i>	<i>busti</i>
<i>mutiki</i>	<i>mutiko</i>	<i>mutiltxo</i>
<i>nesaki</i>	<i>neskato</i>	<i>neskatxa</i>
<i>oe</i>	<i>guatze</i>	<i>ohe</i>
<i>okolu</i>	<i>estarbi, estrabi</i>	<i>ukuilu</i>
<i>orri</i>	<i>osto</i>	<i>hosto</i>
<i>pagaxi</i>	<i>fagatxi</i>	<i>pagatxa</i>
<i>pago</i>	<i>fago</i>	<i>pago</i>
<i>pitsa</i>	<i>apar</i>	<i>bits</i>
<i>txal</i>	<i>a(a)txe</i>	<i>txahal</i>
<i>txindurri</i>	<i>txingurri</i>	<i>inurri</i>
<i>txixa</i>	<i>pixe</i>	<i>txiza</i>
<i>uberaxa</i>	<i>zapoziyel, zapittel</i>	<i>igel</i>





.. 7 ..  
Ondorioak



Inazio eta Santiago Zelaia Lezea



**A**ltsasuko hizkera, Burundakoa den heinean, zubi-hizkera da. Mendebaldeko eta Erdialdeko euskalki-multzoetako zein Nafarrerako ezaugarriak antzeman daitezke bertan, arlo fonetiko-fonologikoan, morfologikoan, sintaktikoan eta lexikoarenean hain zuzen ere. Horrela, bertakotzat har daitezkeenak alde batera utzirik, badirudi, ezaugarrien kopurua kontuan hartzen badugu behintzat (Erdialdekoa ageriko zaigu nabarmen ezaugarri komun gutxienekin), hego Euskal Herriko euskalki-multzo guztietako ezaugarriak ageri direla altsasueran, eta multzo horietako bat bera ere ez da gailentzen jarraian ikusiko dugun bezala.

## 7.1. Altsasuko eta Burundako bertako ezaugarriak:

- Mugatzailearen asimilazioa hitz-oina bokalez amaitzen denean, nahiz eta kasu gehienetan hautazkoa izan: *etxin, sorun, besun, semi, alabi...*
- -a organikoari eutsi egiten dio altsasuerak (ez ordea aldameneko Goierrik eta Sakana erdialdeak): *gauza, makila, eliza, txapela, ganbela...*
- *ei* > *ai* diptongo irekiera sistematikoa: *laitu, bairatu, gaiyo, edozain, erlatai, bizartai...*

- *autzi* (utzi) burutzapena Burundan gertatzeaz gain, aldameneko Etxarri Aranatzan eta Ergoienetan suertatzen da.
- Ez da asimilazio-bustidurarik gertatzen Altsasun eta Burunda osoan: *erleino, larraina, arraila, oilo...* Ez da horrelakorik Burunda inguruan gutxienez.
- *nd-* kontsonante taldea burutzen dute altsasueran: *gindan, baindo, guaindo...*
- *b / m* txandaketa ageri da altsasueran: *musti, mentzai, txotxamar, pastila(n)mat* (pastilaren bat)...
- *-kan* atzizkiaren medioz sorturiko aditzondoak Burundan eta aldameneko Sakana erdialdean ageri dira: *aizkan, azterrikan, inbuluskan...*
- Erakusle intentsiboak *-b-* dunak altsasueran: *eben, ebeik, ebeindako...*
- Aditzaren 2. eta 3. pertsonetako ezaugarriak *-ei / -ai:* *dei / dai* (dute), *dezubei* (duzue), *zai* (zarete)...
- NNN saileko adizkien pluralgileak *-zki-* eta *-tzi-*: *deatzit* (dizkiot)...
- *Eduki* aditzaren pluralgilea *-zki-*: *dukazki* (dauzka), *jukazkinau* (zauzkana-gu)...
- Altsasu eta Burunda bertako burutzapenak: *afolabaiko* (axolagabe), *albajaiketan* (hatsanditurik), *araitz* (haritz), *armimau* (armiarma), *aulubi* (marubi), *bekela* (bezala), *gaildur* (gailur), *gilda* (gerezi), *guaindo* (oraindik), *irru-ti* (urruti), *iyabiur* (lanabesa), *jamaz* (beeka), *jostai* (trumoi), *kolarre* (ukuilu), *lukaika* (txistorra), *masurta* (masusta), *mentzai* (bentzagi), *musti* (busti), *mutiki* (mutil), *nesaki* (neska), *patera* (plater), *safai* (sabai), *tapilo* (korapilo), *txapiskol* (zapaburu), *txofraki* (habia), *txotxamar* (zotz), *urei* (eduki), *yikurri* (bikortu)...

## 7.2. Euskal Herriko mendebaldera begiratzen duten altsasuerako ezaugarriak:

- *-a + -a > -ea > -ia* disimilazioa: *plazia, gauzia, bueltia...*

- *-e > -a / \_\_\_*: *aguardi, eskarrik asko, maiztar, baztar...*
- Bukaerako *-e* bokalaren irekiera: *laba, bara, batza, anra, kurutza...*
- *-uin > -un* bilakabidea: *asuna, biguna, muna...*
- *l / n* txandaketa: *narru, naurri, nazka...*
- Datibo pluraleko morfema *-airi*: *gizonairi* (gizonei), *mutilairi* (mutilei)...
- N<sub>k</sub> eran lehen aldian *-z-* pluralgilea pluraleko lehen eta bigarren pertsonetako adizkiek: *genduzen, zenduzen, zenduzein*.
- N<sub>k</sub> erako aditz formek *-o-* erroa daramate singularrean: *dot, dok/don*.
- Hitano alokutiboetako *j-* kontsonantea: *jituk* (ditik), *jitubet* (ditiat)...
- ‘Egon’ eta ‘ibili’ aditzen erabilera ‘ari izan’ aditzaren ordeza: *auritan doo* (euritan dago), *aizkan dailtza* (harrika dabilta)...
- *-gi* morfemaz eratutako partizipioak: *irei, jagi, ebai...*
- *-atu > -au* bilakaera partizipioetan: *bueltau, juntau, asarrau...*
- *-ketan* eta *-itan* morfemak aditz-izenak eratzeko: *errendaketan* (botaka), *kantaitan* (kantatzen)...
- Kausazko perpausetako menderagailuak: *zengaiti ... -en, zengaiti ...*, adizkia + *eta*.
- Mendebaldeko hizkeren multzora begiratzen duten altsasuerako lexiko mailako burutzapenak: *aguardi* (eguerdi), *aitajaun* (aitona), *aizkan* (harrika), *amandre* (amona), *anra* (andre), *antxuma* (antxume), *autsi* (eutsi), *azkura* (hazgale), *bake, bara* (bare), *barre, barru, batza* (baratze), *bear* (belar), *bultzurrun* (giltzurrun), *domeka* (igande), *eroan*<sup>212</sup> (eraman), *errendaketan* (botaka), *erreten* (uharka), *eskutur* (eskumutur), *galtzarpe* (besape), *eztai* (ezkontza), *gate*<sup>213</sup> (kate), *gatzai* (gatzagi), *gaztaia* (gazta), *girten, idergi* (ilargi), *ira* (garo), *izeko* (izeba), *ize-ra* (maindire), *ijo* (eho), *kantaita* (abesti), *kipula* (tipula), *koroztu* (kakaztu), *kurutza* (gurutze), *mun* (muin), *narru* (larru), *naurri* (neurri), *nazka, obeto, oi* (ohe), *okela* (haragi), *ondo, orri, pago, subandilla* (sugandila), *sube* (suge), *txindurri* (inurri), *txixa* (txiza), *uberaxa* (igela)...

212. Landuchioren hiztegian ere ageri da.

213. Landuchioren hiztegian ere ageri da.

### 7.3. Erdialdeko hizkera-multzora begiratzen duten ezaugarriak:

- /x/ fonemaren ebakera: *jan, jator, jende...*
- *d / r* txandaketa: *amoriyuak, aixkire, aguro, ero* (edo)...
- $N_k$  erako aditz laguntzailearen pluraleko adizkien erroa *-e-*: *dezu* (duzu), *dezubei* (duzue)...
- Joan aditzaren forma sintetikoak: *diyu* (doa), *ziyula* (zihoala)...
- Lexiko mailako burutzapenak: *arkakuso, elur, ergunera* (erbinude), *eskubi, ilbeltza* (urtarrila), *irruiti, kare, korrika, lanbata* (larunbata), *otsail, putzu, soro, triku* (kirikino)...

### 7.4. Nafarrerara eta Euskal Herriko ekialdera begiratzen duten altsasuerako ezaugarriak:

- *u > au* diptongo irekiera: *auri, auli, arainaun...*
- Destinatibo kasuko *-endako* morfema: *ebeindako* (eurentzat), *bakiaindako* (bakearentzat)...
- Prolatibo kasuko *-tako* morfema: *señaletako* (seinaletzat)...
- Aditzondoak absolutibo singularrean joan daitezke: *garbi-garbiya, bakar-bakarra...*
- Erdal maileguetako *-on* morfemaren erabilera: *kamion, balon, balkon...*
- Etorkizuneko *-en* morfemaren erabilera: *esain* (esanen), *izein* (izanen)...
- Aditz sintetikoetako lehen aldiko *-a-* morfema: *nakiyen* (nekien), *zatozin* (zetozen)...
- Etorri eta joan aditzen *-zi-* pluralgilea: *gazi, gatozi...*

- Aditzetako bigarren pertsona singularreko *y-* morfemaren erabilera: *yaiz* (haiz), *yitzan* (hintzen), *yoo* (hago)...
- *-tera eman* aditz perifrasiak: *jatea ondo eman...*
- Perpaus konparatiboetako *-ooko* (-agoko) morfemaren erabilera: *aundi-yokue*, *txikiyokue...*
- Nafarrera eta ekialdeko euskalki multzora begiratzen duten altsasuerako lexiko mailako burutzapenak: *amin* (amona), *attuna* (aitona), *auli* (euli), *auntzu* (antzu), *auri* (euri), *autzi* (utzi), *bendu* (askaria), *bulka(t)u* (bulztatu), *esene* (esne), *esenatu* (esnatu), *ezkila* (kanpai), *fan*<sup>214</sup> (joan), *gabinara* (saguzar), *gendu* (kendu), *goinatu*, *igurai* (zaindari), *jito* (ijito), *kafi* (habia), *lasatu* (askatu), *oineztura* (trumoi), *pion* (peoi), *tu* (listu), *txinger* (behatz txikia), *ubela* (gerriko), *ubez-* (ugaz-), *usai* (usain), *zartai* (zartagin), *zurgin* (arotz)...

214. Mendebaldeko euskalki multzoko zenbait hizkeratan ere bai.

Eta ikusitakoak ikusirik, argi eta garbi esan behar dugu altsasuera zubi-hizkera dela, horrela lehenago Koldo Zuazok (Burundako hizkera, 1995, 361) Burundako hizkerari buruz esan zuena berresten dugularik:

“Badirudi, beraz, ez bizk., ez gip. eta ez g-naf. garbi ez den Burundako hizkera, mendebaleko eta erdialdeko euskalki-multzoen arteko “zubi-hizkera” dugula, behiala Araban mintzo zenarekin batera.”





•• Altsasuko bikarioa eta Burundako alkatearen arteko auzia 1648. urtean ••



Prozesioa



**R**afael Karasatorre Bidaurre ikertzaile etxarriarrak eman zigun duela hiruren bat urte, gutxi gorabehera, dokumentu honen berri. Rafaelek emandako datuekin ez zitzaigun batere zail izan Nafarroako Artxibo Orokorrean (NAO hemendik aurrera) dokumentu hauek bilatu eta, bertan, euskarazko testuak aurkitzea. Ondoren testu hauek guztiak aztertu eta *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian, 99. zenbakian, argitaratu genituen 2005 urtean.

## Zenbait argibide transkripzioei buruz

Berrogeita hamabost esaldi edo hitz solte ageri dira euskaraz dokumentu honetan, horietako zenbait errepikaturik. Artikulu honetan guztiak jaso dira eta esaldi edo hitzen transkripzioari dagokionez, ondorengo irizpideak izan dira kontuan:

- Dokumentuan bertan ageri den puntuazioa erabili da, bost aldiz koma eta behin baino ez gidoia. Hiru puntuak euskarazko esaldiak gaztelania-ko testuez banaturik ageri direla erakusteko erabili dira. Ez dira, beraz,

215. 1629 urtekoa dugu dokumentu hau eta ondorengo dio bere edukia eta egitura azaltzerakoan: “*El convento de San Agustín de Estella (agustinos calzados), sobre libranza de 100 ducados y 60 reales de reditos del Deposito General, entregados por Martín de Uribarri, secretario del Consejo Real, heredero de Juan de Bausillon, cerrajero, vecino de Estella, para pago de deuda.*”

216. 1630ekoa da beste hau eta ia gauza bera esaten du, ezen soilik ‘su suegro’ aposizioa gehitzen baitu ‘Juan de Bausillon’ eta ‘cerrajero’ hitzen artean.

217. 1662koa da beste hau eta zera ageri da bere edukia eta egitura azaltzerakoan: “*Martín de Uribarri, secretario del Consejo real, contra el Fiscal, sobre pago de 30 ducados anuales de salario.*”

218. Juan de Ucar izan zen auzi honetan akusatuaren prokuradorea eta horrela aurkeztu zuen 293. omialdean: “... *que el disculpante es hijo del Bachiller Don Mig fernandez de garayalde y Lazcano arcipreste del Valle de araquil y Maria Garcia de Rekalde que abra veinte años que murió y así ella como el dho D Mig heran hijos de algo conocidos personas principales y por tales fueron tenidos havidos y commente reputados como lo diran los tesgos...*”

219. 95. omiaren atzealdean, Miguel Ochoa de Galarza lekukoak horrela dio: “... *es tenido y lo asido en todo su tiempo deste testigo por hijo del bachiller D. Miguel Fernandez de Garayalde y Lazcano abbad del lugar de Urdiain y de Maria Garzia y save y a visto que el dho Miguel Fernandez hera perssona principal tenido y reputado por hijo dalgo...*”

hiru puntuak dokumentuan agertzen. Bestalde, bi aldiz besterik ez bada ere, lerroz aldatzean hitza zatiturik geratu denean marratxoa erabili da.

- Silabak edo hitzak ez dira banandu jatorrizko testua jasotzerakoan, dokumentuan agertzen diren moduan jaso baitira.

- Kasu batean soilik parentesiak erabili dira, dokumentuko orriari zatia falta zaiolako, ertza hautsirik baitu, eta zentzuaren araberrako aditz formaren bigarren silaba parentesi barnean paratu da.

- Testuingurua jasotzerakoan, kasuren batean edo, galdera ikurra erabili da zalantzazkoa delako transkripzioa.

Laburdurak dokumentuan ageri diren moduan jaso dira.

DOKUMENTUAREN SIGNATURA NAO: 102812

IZENBURUA: Fiskala eta Miguel de Aramendia Miguel Fernández de Garayalde y Lazcanoren aurka.

DOKUMENTUAREN ORRI KOPURUA: 505

AUZIAREN HASIERAKO DATA: 1645eko uztailaren 13a.

AUZIAREN AMAIERAKO DATA: 1648ko maiatzaren 30a.

DOKUMENTUAREN EGILEA: Martín de Uribarri. Martín de Uribarri Errege Kontseiluko idazkaria izan zen 1629 eta 1662 urteak bitartean, ondorengo signatura zenbakia duten NAOko dokumentuek adierazten duten moduan: 042617<sup>215</sup>, 042632<sup>216</sup>, 042643, 042679, 074548, 102429, 134937, 104169<sup>217</sup>.

GAIA: Fiskala eta Altsasuko Inkisizioko Ofizio Santuko komisarioa eta abadea den Miguel de Aramendia, Burundako haraneko alkatea den Miguel Fernandez de Garaialde y Lazcano altsasuarraren aurka, irainengatik ezarri beharreko 200 libratako isuna dela eta. Aipatu irainak 1645eko ekainaren 5ean gertatu omen ziren Mendekoste bigarren egunean Altsasuko plazan, elizaren aurrean, goizeko zazpiak edo zortziak aldera.

PROTAGONISTAK: Miguel Fernández de Garaialde y Lazcano<sup>218</sup>, Burunda haraneko alkatea eta auzian akusatua. Bere aita Miguel Fernandez de Garaialde zen, batxilerra eta Arakil haraneko arzipretea (lehenago Urdiaingo bikario<sup>219</sup> ere bai) eta bere ama Maria Garzia de Rekalde, arabarra, lekukoek era berezian deskribatzen dutena<sup>220</sup> eta abadeak putatzat zeukana<sup>221</sup>. Alkatteak ospe nahiko txarra zuen, ezen lekuko batzuk diotenez Altsasuko Joanes

de Elizalde, behin batean, eta Iturmendiko Pedro de Anso, beste behin, jipoitu baitzuten<sup>222</sup>.

Migel de Arramendia, Altsasuko abadea eta Inkisiozoko Ofizio Santuko komisarioa. Honek eraman zuen auzitara aurreko protagonista eta bera irain-tzeagatik isuna jar ziezaiotela eskatu. Hau ere ez da oso ongi ageri lekukoen esanetan, liskar bat baino gehiago izan baitzuen hauen testigantzen arabera<sup>223</sup>. Akusatuak behin baino gehiagotan esandakoaren arabera abadearen jatorria ez zen berak zioena<sup>224</sup>.

LABURPENA: 1645eko ekainaren 4ko iluntzean, Burunda haraneko alkateak (Miguel Fernandez de Garaialde y Lazkano), Martin de Mazkiarane<sup>225</sup> eta haraneko diputatu batek (Juanes de Gastaminza) lehorte handia zegoe-la ikusirik<sup>226</sup>, hurrengo goizean San Juan ermitaraino prozesioa eta hara iritsitakoan meza egitea erabaki zuten. Berandu zenez, ez ziren abadearengana joan honen guztiaren berri ematera, goizeko lehen orduan prozesiorako ezkilak joko zituztela herria jakinaren gainean jartzeko erabakirik. Eta hala egin bazuten ere, ezkilak jo eta jo ari zirelarik, goizeko zazpiak edo zortziak aldera, abadeak ezkiljoleari bere lana bertan behera uzteko esan zion, Urdiaingo apaizak etortzerik ez zuelako bera laguntzera prozesioan<sup>227</sup>. Hau guztia zela eta, Miguel Fernandez de Garaialde y Lazkanori Martin de Mazkiarane<sup>228</sup> jakinarazi zionean abadearen erabakia, honen aurka hasi zen gaizkiesaka gora-gora, Miguel de Arramendia abadeak entzuteko moduan. Alkateak gehien erabilitako iraina 'oker' ('tuerto' ageri da behin eta berriz lekukoen testigantzetan) da eta abadeak erantzunez erabilitakoa, berriz, 'putaseme'<sup>228</sup>. Horiek entzun bezain laster, alkateak abadearengana jo eta atxilotu nahi izan zuen erregearen izenean ("apellidando al rey") tartean sotanatik eutsi zuelarik, baina ondoan zeuden pertsonen eraginez elizan sartzen utzi zuen atxilotu gabe. Irainka eta gaizkiesaka jarraitu zuen eta Pedro de Goikoetxea, abadearen koinatua, atxilotzen saiatu zen geroago erregearen izenean abadea atxilotzeko deia egin zuenean lagundu ez ziolako. Honetan zebilelarik, Maria Ramos de Arramendia (Juan de Gainzaren emaztea) abadearen ilobaren keak eta irainak<sup>229</sup> entzun zituen eta atxiloturik eraman zuen kartzelaraino, bertan hanketatik lotuz<sup>230</sup>.

Gero, alkateak eliza ondotik alde egin zuenean, abadea atera zen berriz plazara eta bertan zeudenei esan zien auzitara eramango zuela hura eta haien lekukotza behar zuela, bereziki esanez sotanako mahukak apurtu zizkiola bera atxilotu nahian ibili zenean alkatea. Auzian ageri diren lekukoek, hala ere,

220. 13. orria: "... lo que mas puede decir es que el acusado es tenido y reputado por hijo de Maria Garcia la qual fue havida por mujer liviana y facil aunque no puede declarar de las demas calidades..."; 17. orria: "... y que save la madre del accusado fue muger de leve opinion aunque no puede declarar de calidad y limpieza fuese ..."

221. 29. orria, atzealdean: "...por lo qual el dho quexante se mostró muy sentido y colérico y dixo al acusado que si el hijo de una puta havia de rancar las dichas estacas y que si sabia cuyo hijo fuese ...")

222. 22. orria: "... en el camino le maltrato de golpes al dho su marido... ". "... le respondio que el acusado le havia dado de palos ..."

223. 7. orria, atzealdean. Honela dio Pedro de San Roman lekukoak: "... le a tenido y tiene por sacerdote muy exemplar y virtuoso y que a cumplido y cumple con la obligaciones de su oficio dando exemplo a todos sus parrochianos excepto que save a tenido diferentes pleitos y con diferentes personas del dho lugar y Valle de Burunda ..."

224. 20. orria: "... oyo que dezia no es este arramendia, sino yaurtia, ... ". 74. orria, atzealdean: "... elacusado y con voz alta dijo ese es hijo de Joan de Yaortia sin nombrar persona por quien lo decia, ..."

225. 26. orria, atzealdean: "... Martin de Mazquiaran jurado del dho lugar ..."

226. 27. orria, atzealdean: "... se vieron el alcalde acusado este testigo y Juanes de Gastaminza jurado y por ver la necesidad tan grande que havia de agua para los campos ..."

227. 7. orria, atzealdean: “... yo soy el dueño de la Iglesia y como quieren que sin mi voluntad se haga la procesión mayormente no habiendo clerigo que asista ...”

228. 14. orria: “... a lo qual el que-xante le volvió a replicar y decir mentís hijo de una puta ...”

229. 10. orria: “... y que la prision echa en Maria Ramos de Arramendia muger de Juan de Gainza sobrina del dho abbad precedio de hauer dicho al acussado le saltassen los dos ojos ...”

230. 27. lerroa, atzean: “... le puso en el cepo de la carceleria ...”

231. 29. orria, atzealdean: “...por lo qual el dho que-xante se mostró muy sentido y colérico y dixo al acusado que sí el hijo de una puta havia de rancar las dichas estacas y que si sabia cuyo hijo fuese ...”

guztiek esan zuten ez zituztela sotanaren mahukak apurturik ikusi abadea eliza barrura sartu zenean edo gutxienez ez ziotela horrelakoari erreparatu.

Auzian, bestalde, lekukoei hainbat galdera egin zizkieten abadea eta alkatearen arteko harremanak nolakoak ziren argitzeko eta erantzunetan ageri zaizkigu harreman horiek lehendik ere txarrak zirela frogatzen duten bi pasarte: abadearen soroko hesiarena eta eliza barruan meza garaian hika-mika sortu zutenekoa. Lehenengoan, abadeak bere soroan hesolak jarri eta bertan zegoen iturrirako bidea itxi egin zuenez, alkateak berak kendu zizkion aipatu hesolak, orduan ere eztabaida sutsua izan zutelarik<sup>231</sup>. Bigarrenean, abadea meza ematen ari zen bitartean, alkateak Juan de Arzari esan zion Pedro de Goikoetxearen lekuan esertzeko eta eztabaidan hasi zirenez meza garaian abadeak bi alditan eskatu behar izan zien isiltzeko eta elizatik ateratzeko. Pentsa daitekeenez, oraingoan ere liskar ederra bien artekoa! Eta gainera, pasarte honetako zenbait aipu euskaraz jasoak daude auzian zehar.



Dokumentuko 225. orrialdearen zatia

## Euskarazko testuak

Auzian agertzen den euskarazko testu bakoitza (esaldi zein hitz solte) dokumentuko orrialdeen ordenaren arabera, hurrenez hurren, bildu dugu eta bertan, orrialde zenbakia, testuingurua eta batuko eta burunderako egungo ordaina jasotzeaz gain, merezi zuela iruditu zaigunean, testu bakoitzaren iruzkin laburra ere egin dugu.

Begi-bistakoa da egungo burundera eta dokumentuko euskara ez datozela bat, baina hori ulergarria da kontuan izaten badugu, dokumentuaren egilea Iruñeko Errege Kontseiluko idazkaria zela, eta, horrek, seguru asko,

gaztelaniaz bereziki, eta euskaraz ere bai seguruenik, forma nahiko estandarizatuak erabiliko zituen dokumentuak ekoizterakoan. Ikus daitekeenez, ez dira ageri dokumentu guztian asimilazioak, disimilazioak, kontsonante galera... eta bai, aldiz, Euskal Herriko erdialde-ekialdeko hizkera multzora hurbiltzen duten beste hainbeste hizkuntza gertaera: sozietiboko morfema sudurkaririk gabekoa, sinkopak, aditz formak...

9. orria      Testua:            *çurequi*  
Testuingurua:    “... y en lengua bascongada y con el mismo estilo le respondió con vos que en bascuenze se dize çurequi ...”  
Batuko ordaina:    Zurekin  
Burunderaz:        *zuukin*  
Iruzkina:            Sozietibo kasuko atzikiak ez darama bukaeran kontsonante sudurkaririk. Egun, berriz, Burundan *-kin* da erabiltzen den morfema, kontsonante sudurkaria bukaeran duela, eta soilik Baikaikun ageri dira zenbait hiztunen kasuan hemengoak bezalakoak<sup>232</sup>.
14. orria      Testua:            *çurequí*  
Testuingurua:    “... y que el acusado respondió por el mismo tono que ay, no hablo con vos que en lengua bascongada le dixo çurequí ...”  
Batuko ordaina:    Zurekin  
Burunderaz:        *zuukin*  
Iruzkina:            Orrialde honetako burutzapenak tildea du azken bokalean.
18. orria      Testua:            *y baño guizon prestuagoaren semea*  
(atzealdean) Testuingurua:    “... y el dho acussado le respondió de padre mas honrrado que tu que en bascuence le llamaua = y baño guizon prestuagoaren semea = ...”  
Batuko ordaina:    hi baino gizon prestuagoaren semea  
Burunderaz:        *i baindo gizon prestuboon semia*  
Iruzkina:            Izenordaina y grekoaz ageri da eta desberdintasunezko konparazioa burutzeko partikula kontsonante sudurkaria bustirik duela. Gaur egun *baindo* erabiltzen dute Burundan. Bestalde, mor-

232. *FL.V. 90*, 2002, 288 orrialdea: “Sozietiboan, nik burutzapen guztiak bukaeran sudurkaria daramatelarik jaso ditut, baina Mundiñanok esaten du noizean behin *-eki* ere agertu zaiola, eta hurrengo burutzapenak jaso ditu: *ardiyeki, barieki, Etxarriki*”.



fema konparatzailea oso-osorik ageri da, inongo fonetismorik jasan gabe. Gaur egun Burundan eta Sakana erdialdean ondorengo bilakabidea izango luke burutzapen honek: *prestu + -ago > prestubago* (kontsonante epentetikoa) > *prestubao* (bokal arteko herskariaren galera) > *prestuboo* ( $V_1V_2 > V_2V_2$ ) > *prestubo* ( $V_2V_2 > V_2$ ). Eta antzeko bilakabidea jarraitzen du edute-genitiboaren morfema eransterakoan: *prestubo + -aren > prestuboon*.

40. orria    Testua:            ***çatoz, ceurq ateranacaçu***
- (atzealdean)    Testuingurua:    “... *haciendose dueño de la razón le respondio benga sa-  
queme queen lengua bascongada ledixo çatoz, ceurq ate-  
ranacaçu ...”*
- Batuko ordaina:    *zatoz, zeuk atera nazazu*  
Burunderaz:        *atoz, zeorrek ataa nazazu*  
Iruzkina:            Izenordain intentsiboa kontsonante dardarkaria  
tartean duela ageri da<sup>233</sup>. Axularrek, *Gero* libu-  
ruaren hasieran, Irakurtzaileari atalean ere ho-  
rrela erabili zuen: “... *zeurea, zeurk egina baitzendu  
bezala ...*”. Aginterako aditz formari dagokionez,  
aldiz, badirudi idazleari ahaztu zitzaioela gakoa  
markatzea lehen kontsonante txistukarian. Bes-  
talde, aditz nagusia eta laguntzailea elkaturik  
ageri dira.
46. orria    Testua:            ***çatoz eta suc aterana çaçu***
- Testuingurua:    “... *beni vos y sacadme que en lengua bascongada le dixo  
çatoz eta suc aterana çaçu ...”*
- Batuko ordaina:    *zatoz eta zuk atera nazazu*  
Burunderaz:        *atoz ta zuk ataa nazazu*  
Iruzkina:            Oraingoan era desegokian bereizi ditu aditz na-  
gusia eta laguntzailea eta izenordaineko kon-  
tsonante txistukaria ere modu desegokian ida-  
tzi du. Egun ongi bereizten dira bi txistukariak  
Burundan eta Sakana osoan.
54. orria    Testua:            ***norq sarçen çaitu ortan***

233. Joan Perez de Lazarragak 1567an 23. orrian *cancion* izenburua duen poeman behin baino gehiagotan erabili du aipatu dardarkaria izenordain intentsiboarekin singularreko lehen petsonareen kasuan: *neurc ecusiric nola Aarean* (3., 11., 19. eta 27. lerroak).

Testuingurua: “... y al abad le respondió el dho acusado quien os mete en esso que en lengua bascongada le dixo, norq sarçen çaitu ortan; y que prosiguiesse en decir su misa que ellos se compondrían ...”

Batuko ordaina: nork sartzen zaitu horretan

Burunderaz: *nok sartzen zaitu ortan*

Iruzkina: Aditz aspektuko morfeman txistukari frikaria erabili du afrikatuaren ordeaz. Erakusleari dago-kionez, sinkopa egin du egun nafarreran ugari direlarik horrelako burutzapenak, baina ez Burundan, nahiz eta erakuslearen kasuan horrela egiten den.

66. orria Testua: *çuc engañatu bear duçu auçoa*

(atzealdean) Testuingurua: “... el dho acusado le replico que ay que haveis engañado Vos de un tuerto aun concejo como el deeste lugar y Vos le haviays de engañar de esta manera que en lengua bascongada le decia estas razones, çuc, engañatu bear duçu auçoa, y que el dho quexante ...”

Batuko ordaina: zuk engainatu behar duzu auzoa

Burundera: *zuk engainatu ber dezu auzua*

Iruzkina: Berriro ere, sudurkaria bustirik ageri zaigu eta burunderan, gaur egun behintzat, ez da palatalizatzen. Nor-nork erako aditz forma berriz garaiko estandarera<sup>234</sup> moldatua dagoela iruditzen zait, egun oraindik *dezu* erabiltzen baita.

73. orria Testua: *çuc engañatu gaituçu guztioç*

(atzealdean) Testuingurua: “... los jurados an dado abisso para que se juntasen los vecinos y Vos de un tuerto nos abeys engañadp a todos que en basquence le decia çuc engañatu gaituçu guztioç y el dho abad le dijo...”

Batuko ordaina: zuk engainatu gaituzu guztiok

Burundera: *zuk engainatu gaituzu guztioç*

Iruzkina: Atzera berriz sudurkaria bustirik eta nor-nork erako aditz forma estandarizatua. Zenbatzaile orokorrak plural hurbilaren morfema darama.

234. Axularrek argitaratua zuen urte batzuk lehenago (1643) *Gero* liburua eta segurasko, Euskal Herriko “escribiente”en eskuetara izango zen.

74. orria      Testua:            ***çatoz eta ateranaçazu çuc***  
(atzealdean) Testuingurua:    “... *y dijo saquen ese ombre de la iglesia y que el acusado aciendose dueño de la razon dijo benga y saqueme el que en lengua bascongada le dijo çatoz eta ateranaçazu çuc ...*”
- Batuko ordaina: zatoz eta atera nazazu zuk  
Burundera:        *atoz ta ataa nazazu zuk*  
Iruzkina:          Aditz nagusia eta laguntzailea batera berriro, baina oraingoan laguntzailearen bigarren txistukariaren grafia aldatu du. Bestalde, aditz nagusiak horrelako bilakabidea izan du gaur egun arte: *atera* > *atea* (bokal arteko dardarkaria erori) > *ataa* ( $V_1V_2 > V_2V_2$ ).
93. orria      Testua:            ***ni naiz cu baño guiçon honrraduagoa-ren sema***  
(atzealdean) Testuingurua:    “... *dixo el dho quexante, saveis hijo de quien soys; y queel disculpante le respondio yo soy hijo de D. Miguel Fernandez de Garayalde y Lazcano, hijo de padre mas honrrado que Vm; que en lengua bascongada dixo; ni naiz cu baño guiçon honrraduagoaren sem(e)a ...*”
- Batuko ordaina: ni naiz zu baino gizon onrraduagoaren semea  
Burundera:        *ni naiz zu baindo gizon onratuboon semia*  
Iruzkina:          Bigarren pertsonako izenordaineko txistukariaren grafia ez da egokia eta azken izenari /e/ bokala faltza zaio.
103. orria    Testua:            ***a gauza gaistoa***  
Testuingurua:    “... *Mª Ramos de arramendia muger de Juan de Gainza y sobrina del quexante dixo al disculpante a malo, ablando en defensa del dho quexante, como a este le falta un ojo te salten a tu los dos de un bellaco que en lengua bascongada le dezia, a gauza gaistoa, y oyda esta razon el dho disculpante ...*”
- Batuko ordaina: a, gauza gaiztoa  
Burundera:        *a, gauza gaiztua*  
Iruzkina:          Egun bezala Burundan, -a organikoa mantendu egin du *gauza* izenaren kasuan. Ia Sakana osoan, bestalde, ez da mantentzen aipatu -a organikoa.

221. eta Testua: *çuc ... çuc ... çure mersedea u orre mersedea ... çuc, jauna*  
(atzealdea) Testuingurua: “... *este pleyto fue en lengua bascongada y se hablaron en basquenz y con la palabra çuc y no con ... palabra çuc en este dho lugar de Alsasua y valle de Burunda la tienen por palabra cortes ... si bien para hablar con los sacerdotes y otras personan de respeto se le añade el deçir çure mersedea u orre mersedea y otras vezes juegan destapalabra çuc, jauna que según suena quiere deçir Vm ...*”
222. orriak
- Batuko ordaina: *zuk ... zuk ... zure merzedea edo horren (hori) merzedea ... zuk, jauna*
- Burundera: *zuk ... zuk ... zuu merzedia o orren merzedia ... zuk, jauna*
- Iruzkina: “Merced” hitza *-ea* morfemarekin mugatu du dokumentuaren egileak eta, egun ere, *-a* bokalaz bukatutako hitzak mugatzerakoan horrelako bilakaera suertatzen da Burundan, *-a + -a > (-ea) > -ia: euseria, gitarria, festia...*
224. orria Testua: *eman duçu herrecaytu ura*  
Testuingurua: “... *el dicho alcalde ablando en esta forma Eman duçu herrecaytu ura quen castellano quiere decir ha dado aquel recado ...*”
- Batuko ordaina: *eman duzu errekaitu hura*
- Burundera: *eman dezu mandatubura*
- Iruzkina: Errekaitu (iparraldeko hitza omen) mandaturen sinonimo izango genuke, ardura edo eginbeharrekoa adierazten duelarik. Egun Etxarri Arantzen *errekeitu* erabiltzen da izenondo moduan pertsonen izaera bihurria adierazteko.
- Testua: *çerda orr çerda orr* (225. orrian errepikatua dago)
- Testuingurua: “... *çerda orr çerda orr, que quiere decir en castellano que ay ay que ay ay ...*”
- Batuko ordaina: *zer da hor, zer da hor*
- Burundera: *zer da or, zer da or*
- Iruzkina: Oraingoan aipagarriena gatzalaniako idazkera izango genuke, aditza eta aditzondoa modu berean idatziak ageri baitira.
225. orria Testua: *onlaco egun batean dagola alsasuco auzoa procesio gaue*  
Testuingurua: “... *y con colera dijo, valgame dios onlaco egun batean*”

- dagola alsasuco auzoa procesio gaue que quiere decir en castellano, valgame dios que un lugar como es de Alsasua o concejo quede sin procesion un dia como este ...”*
- Batuko ordaina: honelako egun batean dagoela Altsasuko auzoa procesio gabe
- Burundera: *olako egun batien doola Altsasuko auzua prozesiyo bee*
- Iruzkina: Esaldia era erabat estandarizatuan ageri da gaur egungo burunderarekin konparatuz, inongo fonetismorik kontuan izan gabe: atzera berriz, erakuslearen forma sinkopatua erabiltzen du; zenbatzaileak ez du ageri disimilazioa eta ondorengo asimilazioa deklinabide atzizkia eransterakoan; aditzaren forma trinkoa ere ez da gaur egun bezala ageri, *dago > dao* (bokal arteko herskariaren galera) > *doo* ( $V_1V_2 > V_2V_2$ ); -o bokalaz bukatzen diren lexemak ere ez du disimilaziorik jasan, *auzo + -a > auzua*; *-ción* amaieradun maileguak *-ziyo* kontsonante epentetiko eta guzti burutzen dira, *prozesiyo*. Bestalde, egun Burundan ez bezala eta gainerako Sakanako herrien antzera, toponimo nagusian txistukari frikaria erabiltzen du / kontsonante albokariaren ondoren. Eta, azkenik, postposizioaren kasuan, hauxe dugu bere bilakabidea Sakana osoan gaur egun: *bage > bae* (kontsonante herskariaren galera bokal artean) > *bee* ( $V_1V_2 > V_2V_2$ ).
- Testua: *usdaçu neurebaquean Jangoycoaren amoreagatic*
- Testuingurua: “... *respondio en lengua bascongada estas palabras usdaçu neurebaquean Jangoycoaren amoreagatic que quiere decir dejemeen paz por amor de dios y la parte contr dijo ...”.*
- Batuko ordaina: utz (ieza)dazu neure bakean Ja(u)ngoikoaren amoreagatik
- Burundera: *utz nazazu neonen bakien Jangoikuan amodiyuangaiti*
- Iruzkina: Aditz nagusia eta laguntzailea elkarturik daude eta elkarketa egiterakoan sinkopaturik ageri zaigu hauxe. Izenordain intentsiboa horrela burutzan da gaur egun: *neonen*. *Bake* izena gaur egun

Burundan eta Etxarrin erabiltzen den moduan ageri da, kontsonante ezpainetako herskari ozenaz, Sakanako gainerako herrietan egoera nahasiagoa erakusten duelarik: *fake* Arbizun eta Er-goienan, eta *pake* Lakuntzatik ekialdera. Gainera, inesiboko morfema eransterakoan, disimilazioa eta ondorengo asimilazioa jasaten ditu egun. Bestalde, *au* > *a* monoptongazioaz dago *Jangoi-ko*<sup>235</sup> izena, egun Sakana osoan bezala.

Testua: *oquerr orrec onlaco auzo honrratubat uzidezala prozesiorik gaue onlaco egunbatean*  
Testuingurua: “... *que quiere decir que ese tuerto deje sin procesion aun concho tan honrrado un dia como el de oy ...*”.  
Batuko ordaina: oker horrek honelako auzo ondradu bat utz dezala prozesiorik gabe honelako egun batean  
Burundera: *oker orrek olako auzo onratu bat utzala prozesiyoi pee olako egun batien*  
Iruzkina: Erakuslearen kasuan, bi alditan, forma sinkopatua erabili du, *hon(e)lako*. Postposizioari dagokionez, orrialde honetako beste testuan esandakoaz gain, partitiboaren morfemak bukaerako kontsonante herskaria galdu eta hasierako kontsonante ezpainetako ahostuna ahoskabe bihurturik burutzen duela erantsi behar da: *prozesiorik bage* > *prozesiyorik bae* > *prozesiyoi bee* > *prozesiyoi pee*. Egungo burunderan subjuntiboan aditz izena erabiltzen da eta ez partizipioa. Bestalde laguntzailea, lehen silaba galdu eta aditz nagusiari elkarturik burutzen da.

225. orria Testua: *ayn chuzena nayz ni nola zu, eta çu noren semea zara*  
(atzealde) Testuingurua: “... *respondio el dho abbad quexante en esta forma ayn chuzena nayz ni nola zu, etta çu noren semea zara que quiere decir según suena tan drecho soy como el, y el hijo de quien es a loquel respondio el acusado*” (hurrengotan jarraitzen du).  
Batuko ordaina: hain zuzena naiz ni nola zu, eta zu noren semea zara

235. Bernat Etxeparek ere, Iudizio Generalean eta Moset Bernat Etxepareren Kantuian horrela erabili zuen: “... Jangoiokak dagiela ...”, “... Jangoikoa, zu zirade ...”, “... Jangoikoa, zuk begira ...”.

Burundera: *ni zu bezain zuzena naiz, ta zu noon semia zaa*  
 Iruzkina: Konparaziozko esaldia burutzeko *hain ... nola* menderagailua erabili du *bezain* erabili beharrean. Axularrek<sup>236</sup> ere menderagailu berbera erabili zuen urte batzuk lehenago. Izenondoa-ren hasierako kontsonante txistukaria afrikaturik idatzia ageri da.

Testua: *hayn ayta honrratuaren umea nayz nola çu ... çuc*  
 Testuingurua: “... *hayn ayta honrratuaren umea nayz nola çu que quiere decir tan hijo de padre honrrado soy como el según parece me suena la dha palabra çuc y no de vos como esta escrita ...*”.

Batuko ordaina: *hain aita ondraduaren umea naiz nola zu ... zuk*  
 Burundera: *zu bezain aita onratubaa umia naiz ... zuk*  
 Iruzkina: Menderagailuaren hasierako partikula hatzez idatzia ageri da oraingoan. Disimilazioa suertatzen da egun burunderan -e bokalaz amaituriko lexemak mugatzerakoan: *umia, semia...*

228. orria Testua: *bellaco oquerr onec engaña deçala erriau ni eta guztiok manera ontan, eta uzidadila eguiteco procesioa*  
 Testuingurua: “... *que quiere decir según su sentido lo que las palabras suenan (atzealdean) que este bellaco ttuerto engañe al lugar ami y asus vezinos desta suerte y se deje de hazer la procesion ...*”.
- Batuko ordaina: *bellako oker honek engaina dezala herri hau ni eta guztiok manera honetan, eta utzi dadila egiteko procesioa*  
 Burundera: *bellako oker onek engainazala erriyau ni ta guztiok modubontan, ta utz dayela iteko prozesiyua*  
 Iruzkina: Sudurkaria bustirik, eta erakuslea sinkopaturik, berriz ere. Bestalde, *manera* mailegua erabiltzen du ‘era’ edo ‘modu’ erabili beharrean, Joan Perez de Lazarragak<sup>237</sup> mende bat lehenago erabili zuen moduan. Aipagarria era berean *bage* postposizioa beharrean erabilitako egitura: *egiteko utzi* (egin gabe utzi, egiteke). Lehen aditzaren kasuan, elkaturik burutzen da gaur egun

236. Axular, *Gero*, Irakurtzai-leari atalean: “... ez litzateke euskara hain labur, eskas eta ez hertsia, nola munduak uste baitu, eta baitaduka, dela ...”

237. Joan Perez de Lazarraga, 1564: 5. orriaren atzealdean (“... *asi çan manera onetan cantaetan ebela ...*”), 6. orrialdearen atzealdean (“...*asi çan cantaetan manera onetan...*”), 7. orriaren aurrealdean (“... *conçiertu andiaz manera onetan ...*”)

ere, baina laguntzaileak lehen silaba galdurik. Burundan ez da palatalizaziorik gertatzen.

228. orria Testua: *çerda çerda*  
(atzealdean) Testuingurua: "... *dijo ablando con la parte contr çerda çerda que quiere decir que ay que ay*" (hurrengoan jarraitzen du)
- Batuko ordaina: zer da, zer da  
Burundera: *zer da, zer da*  
Iruzkina: Horrela erabiltzen zen duela urte gutxi arte Sakanan, herriko edozein etxera abiatu eta atarian, normalean irekita orduan, bertako etxeko andrearen izena esaterakoan, barrutik erantzuten zutena atariraino atera baino lehen. (-*Maria! - Zer da?*).
- Testua: *çurequi bellaco oquerorrequi deardu-cat*  
Testuingurua: "...: *ha que respondio çurequi bellaco oquerorrequi dearducat ...*"
- Batuko ordaina: zurekin bellako oker horrekin dihardu(ka)t (?)  
Burundera: *zuukin bellako oker orrekin ai naiz*  
Iruzkina: Burundan, aurrerago esan dudan moduan, ez da palatalizaziorik egiten. Hala ere, mailegua denez palatalizaturik ageri den hitza, gaztelanian erabiltzen den eran egingo litzateke egun ere Burundan. Azken hitzaren kasuan, bestalde, galdera ikurra jarri diot ez delako oso segurua horrela izango denik, zentzuaren aldetik horrela badirudi ere. 'Jardun' aditza ez da erabiltzen Sakanan, 'ari izan' baizik.
- Testua: *çuc ... çure mersedea*  
Testuingurua: "... *y otras personas de respeto con la palabra de çuc sin que se tenga por agravio ni descortesia sino que quando quieren hablar con mas cortesia ha algun forastero y ha sacerdotes añaden çure mersedea que quiere decir Vm ...*"
- Batuko ordaina: zuk ... zure merzedea  
Burundera: *zuk ... zuu merzedia*  
Iruzkina: Bokal arteko dardarkari samurra, normalean, galdu egiten da burunderan.



230. orria    Testua:            ***nor nayz ni***  
Testuingurua:    “... *y entrando por el coro algo alborotado y colerico dijo estas razones nor nayz ni ablando con el dho abbad que quiere decir en castellano quien soy yo*” (hurrengoan jarraitzen du).
- Batuko ordaina: *nor naiz ni*  
Burundera:        *nor naiz ni*  
Iruzkina:         Egun ‘nor’ galdetzailearen tokian ‘zein’ erabiltzen da gehiago Sakana osoan.
- Testua:            ***çu çara alcatea***  
Testuingurua:    “...*a lo qual respondio çu çara alcatea que quiere decir en lengua castellana es el alcalde*” (hurrengoan jarraitzen du).
- Batuko ordaina: *zu zara alkatea*  
Burundera:        *zu zaa alkatia*  
Iruzkina:         Lehenago esan dudana moduan, bokal arteko dardarkari samurra galdu egiten da Sakana gutian eta bereziki Burundan nor erako pluraleko aditz formen kasuan: *gaa* (gara), *zaa* (zara), *zai* (zarete), *dia* (dira).
- Testua:            ***nor da alcatea***  
Testuingurua:    “...*y la parte contr replico: nor da alcatea que quiere decir quien es el alcalde ...*”.
- Batuko ordaina: *nor da alkatea*  
Burundera:        *nor da alkatia*  
Iruzkina:         *-e + -a > -ia* burutzen da Burundan eta Sakanako beste zenbait herrietan.
232. orria    Testua:            ***çuc hoquerorreq***  
(eta atzea.)    Testuingurua:    “... *el otro acussado, con esta palabra de çuc hoquerorreq, y no con la palabra vos como esta escrito por aber-se hablado siempre en basquenz ...*”
- Batuko ordaina: *zük oker horrek*  
Burundera:        *zük oker orrek*  
Iruzkina:         Burundan eta Irañetan ‘oker’ erabiltzen da egun ere, Sakana erdialdean ‘begibakar’ esaten den bitartean.

234. orria Testua: *zatoz eta zuc atranacazu*  
(atzealdean) Testuingurua: “... *venid vos y sacadme que en lengua bascongada le dijo zatoz eta zuc atranacazu ...*”.
- Batuko ordaina: *zatoz eta zuc atera nazazu*  
Burundera: *atoz ta zuk ataa nazazu*  
Iruzkina: Lehen aditzak, sintetikoak, hasierako kontsonante txistukaria galtzen du Sakana osoan. Bigarrena, nahiz eta perifrastikoa izan, elkarturik ageri zaigu dokumentuan eta nagusi sinkopaturik. Horrelako sinkopak, egun, Lakuntzatic ekialdera burutzen dira Sakanan, baina inoiz ez Burundan. Aditz laguntzaileari dagokionez, bigarren silabako kontsonante txistukaria ez da behar bezala idatzirik ageri.
- Testua: *çure merçedea u orremerçedea*  
Testuingurua: “... *se dice y abla con ellos de la palabra çure merçedea u orre(n)merçedea ...*”
- Batuko ordaina: *zure merzedea edo horren merzedea*  
Burundera: *zuu merzedia o orren merzedia*  
Iruzkina: Lehen izenlagunaren kasuan, egun dardarkaria erori egiten da. Bestalde, juntagailu hautakariak ondorengo bilakabidea izan du gaur egun arte: *edo > ero* (d/r txandaketa) > *eo* (dardarkariaren erorketa) > *oo* ( $V_1V_2 > V_2V_2$ ) > *o* ( $V_2V_2 > V_2$ ).
237. orria Testua: *çatoz ceurq atranazazu*  
(atzealdean) Testuingurua: “... *que dicen en lengua bascongada, çatoz ceurq atranazazu no es palabra descortes ...*”
- Batuko ordaina: *zatoz zeuk atera nazazu*  
Burundera: *atoz zeok ataa nazazu*  
Iruzkina: Izenordain intentsiboari dagokionez, ikus 40. orrialdearen atzealdean agertutakoari buruz esandakoa. Aditz nagusia, aldiz, sinkopatua ageri zaigu eta, egun behintzat, ez da horrelakorik gertatzen Burunda osoan, bai ordea Lakuntzatic ekialdera dauden Sakanako herrietan

238. orria Testua: *çatoz ceurq atra nazazu ... cure mersedea*  
Testuingurua: “... y qu el aberle dho el acusado al quexante estando en el altar la palabra *çatoz ceurq atra nazazu* fue decir que fuesse y que el mismo le sacase ... decirle de mas a mas *cure mersedea* que quiere decir Vm ...”.

Batuko ordaina: zatoz zeuk atera nazazu ... zure merzedea  
Burundera: *atoz zeok ataa nazazu ... zuu merzedea*  
Iruzkina: Aurrekoan bezala.

240. orria Testua: *zatoz zu etta atra nazazu elizatiq*  
(atzealdean) Testuingurua: “... el dho quexante que callasen a lo que ablaban, *zatoz zu etta atra nazazu elizatiq* ...” (hurrengoan jarraitzen du).

Batuko ordaina: zatoz zu eta atera nazazu elizatik  
Burundera: *atoz zu ta ataa nazazu elizati*  
Iruzkina: Deklinabideko ablatibo kasuko burutzapenek ez daramate bukaeran, egungo burunderan (ezta Sakana osoan ere), kontsonante herskari belare ahoskaberik.

Testua: *atra zaçue guiçonori elizatiq*  
Testuingurua: “... diciendo estas palabras *atra zaçue guiçonori elizatiq* que quiere decir saquen esse hombre de la iglesia ...” (hurrengoan jarraitzen du).

Batuko ordaina: atera (e)zazue gizon hori elizatik  
Burundera: *ataa zazai gizon oi elizati*  
Iruzkina: -zue aditz morfema -zai burutzen da Burunda osoan. Erakusleak bokal arteko dardarkaria gal-tzen du.

Testua: *zatoz zu etta atranazazu*  
Testuingurua: “...a lo qual respondio la parte contr dandose por entendido *zatoz zu etta atranazazu* que según suena quiere decir benga Vm y saqueme ...”.

Batuko ordaina: zatoz zu eta atera nazazu  
Burundera: *atoz zu ta ataa nazazu*  
Iruzkina: Ikus orrialde honetako hasierako testua.

241. orria Testua: *vere mersedea u çure mersedea ... çu*  
Testuingurua: “... siempre se les dice *vere mersedea u çure mersedea* y alguna vez siendo amigos los sacerdotes y seculares se tratan con la palabra *çu* ...”.
- Batuko ordaina: bere merzedea edo zure merzedea ... zu  
Burundera: *bee merzedia o zuu merzedia ... zu*  
Iruzkina: Bi izenlagunen kasuan dardarkaria erori egiten da gaur egun.
246. orria Testua: *çuc aterabeardituzu*  
(atzealdean) Testuingurua: “... refiere aquellas tales palabras *çuc aterabeardituzu* en este lenguaje como esta escrito ...”.
- Batuko ordaina: zuk atera behar dituzu  
Burundera: *zuk ataa ber tuzu*  
Iruzkina: Nor-nork erako aditz laguntzaileak lehen silaba galtzen du Sakana osoan, baina Burundan ez da palatalizatzen kontsonante hortzetakoa. Bai, ordea, Sakana erdialdean: *ttuzu* (dituzu).
- Testua: *çuc ... jauna ... zuc jauna*  
Testuingurua: “... assi con los sacerdotes como con otros persnas de respeto a la otra palabra *çuc* le añaden *jauna*, que quiere decir Vm señor ... falta la parte contraria en no decirle *zuc jauna* ...”.
- Batuko ordaina: zuk ... jauna ... zuk jauna  
Burundera: (batuan bezala)  
Iruzkina: Aipagarria izenordaineko txistukariaren grafia ezberdina bi burutzapenetan.
249. orria Testua: *engañatuco gaitu biarr ere egun-bezala ... çerda çerda*  
(atzealdean) Testuingurua: “... distancia de cinco o seis pasos donde estaua paseandose el dho abbad a la puerta de su casa, *engañatuco gaitu biarr ere egun-bezala* que quiere decir mañana nos engañara como oy y abiendo oydo la dha razon el que-xante salio a decir esta palabra *çerda çerda* que quiere decir que ay que ay ...”.
- Batuko ordaina: engainatuko gaitu bihar ere egun bezala ... zer da, zer da  
Burundera: *engainatuko gaitu bier re gaur bekela ... zer da, zer da*

Iruzkina: Konparaziozko partikula gaur egun *bekela* da Lizaragan, Olaztin, Altsasun eta Urdiainen. Bestalde, *egun* ez da erabiltzen aditzondo moduan Burundan.

Testua: *ni neure atarian nago*

Testuingurua: “... y el presentante respondió *ni neure atarian nago* que quiere decir yo estoy en mi puerta ...”.

Batuko ordaina: ni neure atarian nago (dokumentuan bexalaxe)

Burundera: *ni niaure atayen nego*

Iruzkina: Izenordain intentsiboa *niaure* burutzen da gaur egun Urdiainen eta Altsasun, eta *neonen* Bakai-kun. Inesibo kasuko sintagmak, aldiz, dardarkaria galdu eta /y/ kontsonante epentetikoa dauka egungo burunderan eta aipatzekoa da *atai*, eta ez *ate* erabiltzen dela Burundan eta Sakana erdialdean gaur egun.

250. orria Testua: *oquerr orrec engaña dezela auzoau eta vezinoac*

Testuingurua: “... el dho acusado dijo estas palabras *oquer orrec engaña dezela (sic) auzoau eta vezinoac* que quiere decir este tuerto engañe este concejo y sus V<sup>os</sup> y el pretante le respondió” (hurrengoan jarraitzen du).

Batuko ordaina: oker horrek engaina desala auzo hau eta bezinoak

Burundera: *oker orrek engaina zala auzo au ta bezinuek*

Iruzkina: Burundan ez da bustidurarik eta aditz laguntzaileak forma aferesiduna darabil. Bestalde, /o/ bokalez amaituriko lexemek ondorengo bilakabidea izaten dute mugatzailea eransterakoan: -o + -a(k) > -ua(-uek).

Testua: *chucenago nayz zu bayno eta zu noren semea çara*

Testuingurua: “... que quiere decir en lengua castellana mas drecho soy que el e hijo de quien es a que respondió el dho acusado” (hurrengoan jarraitzen du).

Batuko ordaina: zuzenago naiz zu baino eta zu noren semea zara

Burundera: *zu bairdo zuzenoo naiz ta zu noon semia zaa*

Iruzkina: Konparaziozko morfemak bokal arteko kontsonante belare herskari ahostuna galtzen du beti Sakana osoan, ondorengo bilakabidea izaten due-

larik: -ago > -ao > -oo. Aipagarria da, era berean, bokal arteko dardarkari samurraren erorketa.

Testua: *ni naiz ayn ayta honrratuaren umea nola zu ... cuc ... cuc cure merçedea u bere mersedea ... jauna*

Testuingurua: “... *ni naiz ayn ayta honrratuaren umea nola zu ablando siempre el uno al otro con la palabra cuc ... cuc cure merçedea u bere mersedea y otras veces jauna ...*”.

Batuko ordaina: ni naiz hain aita ondraduaren umea nola zu ... zuk ... zuk zure merzedea edo bere merzedea ... jauna

Burundera: *ni naiz zu bezain aita onratubaa umia ... zuk ... zuk zuu merzedia o bee merzedia ... jauna*

Iruzkina: Ez da erabiltzen Sakana osoan *hain ... nola* menderagailua konparaziozko esaldietan. Gainerako burutzapenak aztertuak ditut dagoeneko.

256. orria Testua: *çu noren semea çara*

Testuingurua: “... *asi como llevo a donde estaban le respondio alla el pr-tante en semejantes palabras çu noren semea çara a que le respondia en lengua bascongada ...*”.

Batuko ordaina: zu noren semea zara

Burundera: *Zu noon semia zaa*

Iruzkina: Aditza eta izenlagunaren kasuetan bokal arteko dardarkari samurra erori egiten da gaur egungo burunderan.

259. orria Testua: *norc sarçen çaytu ortan*

Testuingurua: “... *que en lengua bascongada esta escrita norc sarçen çaytu ortan ...*”.

Batuko ordaina: norc sartzen zaitu horretan

Burundera: *nok sartzen zaitu ortan*

Iruzkina: Izenordain galdetzaileak dardarkaria galtzen du egun. Erakuslea, berriz, dokumentuan bezala, sinkopaturik.

Testua: *çu jauna norc sarçen çaytu*

Testuingurua: “... *que refiere aquella falta el acusado en no decir çu jauna*

- norc sarçen caytu para que le tratara con total atención y cortesía ...”.*
- Batuko ordaina: zu jauna nork sartzen zaitu  
Burundera: *zu jauna nok sartzen zaitu*  
Iruzkina: Batuan bezala, izenordain galdetzaileko darkariaren erorketa kontuan ez hartuz gero.
262. orria Testua: *juramento gayztoa eguinduzula eta pagatuco ytuzula*  
Testuingurua: *“... diciendo de esta forma en lengua bascongada juramento gayztoa eguinduzula eta pagatuco ytuzula que según suena quiere decir que esta que depone havia jurado mal o echo mal juramento y que los pagaria y que esto se lo havia dicho el dho alcalde al dho su cuñado ...”.*
- Batuko ordaina: juramento gaiztoa egin duzula eta pagatuko dituzula  
Burundera: *juramentu gaiztua in dezula ta paatuko tuzula*  
Iruzkina: Kontsonante belare herskari ahostuna bi aditz nagusien kasuan erori egiten da bokal artean. Honetaz gain, bi burutzapen aferesidunak ikus daitezke egungo burunderan, *in* eta *tuzula*, azken honetan palatalizaziorik gertatzen ez delarik.
266. orria Testua: *çuc oquerr orrec ... jauna*  
(atzealdean) Testuingurua: *“... todo en lengua bascongada y con esta palabra çuc oquerr orrec sin añadir la palabra jauna que es la cortesía ...”.*
- Batuko ordaina: zuk oker horrek ... jauna  
Burundera: *zuk oker orrek ... jauna*  
Iruzkina: Batuan bezala, /h/ kontsonanteari dagokion kasuan izan ezik.
270. orria Testua: *atra eçaçue guiçonori ... çeurq, atra ça(çu)*  
Testuingurua: *“... semejantes palabras en lengua bascongada atra eçaçue guiçonori sin nombrar el su(?) que según suena quiere decir saquen esse hombre de ay (...) en lengua bascongada ablando con el prtante en alta voz, çeurq. atra ça(çu) que según suena quiere decir en lengua castellana saquelo el mismo ...”.*
- Batuko ordaina: atera ezazue gizon hori ... zeuk atera eza(zu)

Burundera: *ataa zazai gizon oi ... zeok ataa zazu*  
Iruzkina: Aztertuak ditugu dagoeneko testu honetako burutzapen guztiak, baina bigarren aditz laguntzailearen kasuan, bere bigarren silaba parentesi artean agertzearen arrazoia orrialde zatia faltatzearena da, hots, hautsirik dugu orrialde hau eta aditz forma hau ez dago osorik.

274. (bis)Or. Testua: *oquerr onec engañadeçala onlaco auzobat*  
(atzealdean) Testuingurua: “... *lo trato de tuerto repitiendo la palabra tuerto con colera y enfado aunque en lengua bascongada y diciendo oquerr onec engañadeçala onlaco auzobat que según suena quiere decir en lengua castellana que este tuerto engañe a un conçejo ...*”.

Batuko ordaina: oker honek engaina dezala honelako auzo bat  
Burundera: *oker onek engaina zala olako auzo bat*  
Iruzkina: Aditz nagusia palatalizatu gabe erabiltzen da Burundan eta laguntzailea, aldiz, lehen silaba galdurik aferesiaren ondorioz. Erakusleari dagokionez, berriz, sinkopa silaba osokoa dugu gaur egun, eta ez bokalarena soilik dokumentuan ageri den bezala.

275. orria Testua: *ori ezta arramendia bayzic yaurtia*  
Testuingurua: “... *a la dha Maria Ramos oyo como dijo estas palabras en lengua bascongada ori ezta arramendia bayzic yaurtia que según suena quiere decir esse no es Aramendia sino yaurtia ...*”.

Batuko ordaina: hori ez da arramendia baizik yaurtia  
Burundera: *ori ez da A(r)ramendia Iyortia baindo*  
Iruzkina: Apaizaren abizenari buruz ari zaigu kasu honetan. Dokumentuan, horietako lehena, ia beti ageri da kontsonante dardarkari anitzez (bikoitza), baina Aramendia izango da, seguru asko, ezaguna baita modu honetan Sakanan. Bigarrena, Altsasuko toponimian ageri zaigu, *Iyortia* eta baita Altsasuko Kultur gunearen izen moduan ere, *Iortia*. Bestalde, ez da Sakana osoan *baizik* juntagailua erabiltzen, gaur egun behintzat.



282. orria  
(atzealdean) Testua: ***ni nor naiz ... çu alcatea ... nor da alcatea***  
 Testuingurua: “... algo alborotado comenzo a decir en lengua bascongada al dho prtante semejantes palabras ni nor naiz teniendo un papel en la mano que quiere en decir en castellano yo quien soy ha que respondio çu alcatea, que quiere decir, el alcalde y a esto replico nor da alcatea, que quiere decir quien es el alcalde y le respondio el prtante, Miguel Fernández de garayalde ...”.
- Batuko ordaina: ni nor naiz ... zu alkatea ... nor da alkatea  
 Burundera: ***ni nor naiz ... zu alkatia ... nor da alkatia***  
 Iruzkina: Berriz ere gogoratuko dut egun -e + -a > -ia bilakatzeko delako Burunda osoan eta Sakana erdialdeko zenbait herritan.
288. orria Testua: ***bay bay ... ongui da***  
 Testuingurua: “... a la memoria estas palabras bay bay válgame dios ongui da las cuales le parece las dijo así que quieren decir si si válgame dios bien esta ...”.
- Batuko ordaina: bai bai ... ongi da  
 Burundera: ***bai bai ... ondo da***  
 Iruzkina: Moduzko aditzondoa -gi morfemaz osatua dugu eta gaur egun, Burundan *ondo* erabiltzen da. Bestalde, gaztelaniaren eraginez, -u- bokala tar-tekatu ageri zaigu dokumentuan.
299. (bis)  
 orria Testua: ***ori da puta baten semea, lapur semea***  
 Testuingurua: “... se acuerda que la parte contraria le dijo que hera hijo de una puta y volviendo el (¿) a un lado añadió y oyo le dijo ladron con semejantes palabras en basquenz, ori da puta baten semea, lapur semea que según suena quiere decir esse es hijo de puta, de ladron y no oyo la palabra infame ni bellaco ...”.
- Batuko ordaina: hori da puta baten semea, lapur semea  
 Burundera: ***ori da puta baten semia, lapur semia***  
 Iruzkina: Sintagma errepikatua dugu, izenlaguna + izena, baina lehenengoaren kasuan zenbatzaile zehaztua erantsi dio eta bigarrean, berriz, ez eta, gainera, izenlagunaren morfema elipsian dago. Seguru asko, zenbatzailea erabiltzean amaren izaera azpimarratu nahi du eta bestean, aldiz,

izen konposatu moduan erabili du. Bestela, egun behintzat, zenbatzailerik gabe erabiltzekotan lehena erabiliko genuke.

301. orria    Testua:            *ni nayz çu baño ayta honrratuagoren semea*  
(atzealdean) Testuingurua:    “... *donde dice al segundo articulo semejantes palabras ni nayz çu baño ayta honrratuagoren semea que en lengua castellana quiere decir según su sentir, soy hijo de padre mas honrrado que Vm ...*”.
- Batuko ordaina:    ni naiz zu baino aita ondraduagoaren semea  
Burundera:        *ni naiz zu baindo aita onratuboon semia*  
Iruzkina:          Testu honetan eta hurrengoan, konparaziozko esaldietako berdintasuna eta desberdintasuna adierazteko menderagailuak erabili ditu dokumentuaren egileak: ... *baino ...-ago* desberdintasuna adierazteko menderagailua kasu honetan, eta partikulako kontsonante sudurkaria bustirik idatzia.
302. orria    Testua:            *çu bezayn ayta honrratuaren semea*  
Testuingurua:    “... *que no las dijo como se hallan escritas sino en esta forma çu bezayn ayta honrratuaren semea que quiere decir hijo de padre tan honrrado y no la palabra mas honrrado como se halla escrito ...*”.
- Batuko ordaina:    zu bezain aita ondraduaren semea  
Burundera:        *zu bezain aita onratuban semia*  
Iruzkina:          Oraingoan, aldiz, berdintasuna adierazteko menderagailua, *bezain*, erabili du. Aurrekoan bezala, dardarkari anitza bikoiztua idatzi du kontsonante sudurkariaren ondoren.

*(Faint handwritten text in Basque script, likely a historical document or letter. The text is difficult to decipher due to fading and bleed-through.)*

Dokumentuko 228. orrialdearen zatia



# •• Aurkibidea ••

Trapu zaharrarekin jantzi berria .....	5
Etorkizunerako zubia eraikitzen .....	7
ALTSASUKO EUSKARAREN AZTERKETA .....	15
1. Bokalismoa .....	17
1.1. Asimilazioa aurrerakaria .....	17
1.2. Asimilazio atzerakaria .....	19
1.3. Bokal elkarketak .....	19
1.4. Bokal luzeak .....	23
1.5. -a organikoa .....	24
1.6. e bokalaren itxiera .....	24
1.7. e bokalaren irekiera .....	25
1.8. o bokalaren itxiera .....	26
1.9. Diptongoak .....	26
1.10. Monoptongazioak .....	29
1.11. i/u bokal txandaketa .....	30

1.12. Aditzetako a + e > a bilakabidea	30
1.13. Aferesiak, sinkopak eta apokopeak	30
1.14. Bokal protetikoak	31
1.15. e bokalaren epentesia	31
1.16. Metatesiak	31
Kontsonantismoa	33
2.1. Bustidura edo palatalizazioa	35
2.2. Kontsonante herskarien burutzapenak	36
2.3. Kontsonante igurzariak	39
2.4. Kontsonante txistukariak	41
2.5. Kontsonante dardarkariak	43
2.6. Kontsonante sudurkariak	43
2.7. Kontsonante albokariak	44
2.8. Errotazismorik eza	45
Morfologia	47
3.1. Deklinabidea	49
3.2. Izenordainak eta erakusleak	54
3.3. Zenbatzaileak	55
3.4. -on erdal maileguak	56
3.5. Aditzondoak	57
3.6. -di eta -tai (-tegi) atzizkiak	58
3.7. Postposizio zenbait	58
3.8. Konparatiboa, superlatiboa eta gehiegizko maila	59
Aditza	61
4.1. Aditz laguntzailea	63
4.1.1. Indikatiboa	63

4.1.2. Baldintza .....	68
4.1.3. Ahalera .....	70
4.1.4. Subjuntiboa .....	70
4.1.5. Agintera .....	71
4.2. Zenbait aditz trinko .....	72
4.3. Altsasuko aditzaren ezaugarriak .....	78
Sintaxia .....	85
5.1. Esaldi bakunak .....	87
5.2. Esaldi konposatuak. Koordinazioa .....	88
5.3. Esaldi konposotauak. Menpekoak .....	91
Lexikoa .....	105
6.1. Izagirrek jasotako lexikoa .....	107
6.2. Altsasu (Burunda) eta Sakana erdialdearen arteko isoglosa lexikoak .....	140
Ondorioak .....	143
7.1. Altsasuko eta Burundako bertako ezaugarriak: .....	145
7.2. Euskal Herriko mendebaldera begiratzen duten altsasuerako ezaugarriak: .....	146
7.3. Erdialdeko hizkera-multzora begiratzen duten ezaugarriak:	147
7.4. Nafarrerara eta Euskal Herriko ekialdera begiratzen duten altsasuerako ezaugarriak: .....	148
ALTSASUKO BIKARIOA ETA BURUNDAKO ALKATEAREN ARTEKO AUZIA 1648. URTEAN .....	151
Zenbait argibide transkripzioei buruz .....	153
Euskarazko testuak .....	157





## •• Bibliografia ••

- Bonaparte, L-L, 1861, “Observaciones sobre el vascuence de algunos pueblos del valle de la Burunda”, *Euskal-Erria* 2, 145-151.
- Erdozia, JL., 2001, *Sakana erdialdeko euskara*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- Erdozia, JL., 2002, “Bakaikuko hizkera”, *FLV* 90, 269-306.
- Erdozia, JL., 2005, “Sakanerak”, *FLV* 98, 59-78.
- Erdozia, JL., 2005, “XVII. mendeko euskal testuak Nafarroan”, *FLV* 99, 307-334.
- Intza, D., 1922, “Burunda’ko euskalkia”, *Euskera* 3, 3-42.
- Izagirre, K., 1967, “Altsasuko euskeraren gai batzuk”, *ASJU* 1, 45-97.
- Karasatorre, R., 1993, *Barranca-Burunda*, Iruñea.
- Nafarroako Gobernua, 1992, *NTM (Nafarroako Toponimia eta Mapagintza)* IX, Iruñea.
- Ondarra Erdozia, Francisco, 1965, “Voces vascas de Bacaicoa”, *BAP* 21, 386-412.
- Satrustegi, J.M., 1967, “Estudio etnográfico de Urdiain”, *PV* 28, 97-125.
- Suarez, Castillo eta Arratibel, Imanol, 2002, *Sakanako Ahozko Tradizioa*, lan argitaragabea (liburuxka eta grabazio bilduma).
- Yrizar, P., 1991, *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano*, Bilbo, Euskaltzaindia.
- Zuazo, K, 1995, “Burundako hizkera”, *ASJU* XXVIII, 297-364.
- Zuazo, K, 2003, *EUSKALKIAK Herriaren lekukoak*, Elkar, Donostia.

